| | |
|---|---|
| **GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUA.** | **REGLAMENTO DE ARMONIZACIÓN DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS REGULARES DE TRANSPORTE DE PERSONAS VIAJERAS POR CARRETERA EN EL ÁMBITO DE LAS ADMINISTRACIONES GUIPUZCOANAS INTEGRADAS EN LA AUTORIDAD TERRITORIAL DEL TRANSPORTE DE GIPUZKOA.** |
| ZIOEN AZALPENA | EXPOSICIÓN DE MOTIVOS |
| Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektibo kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostia, Irun eta Errenteriako udalek, Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, SAk, RENFE-Operadora enpresa-erakunde publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzak 2012ko otsailaren 20an sinatutako lankidetzarako protokolo orokorrean, Gipuzkoan garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzea sustatzeko lankidetzarako esparru orokorra ezarri zen. | El Protocolo general de colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa, suscrito con fecha 20 de febrero de 2012 por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Diputación Foral de Gipuzkoa, los Ayuntamientos de Donostia/San Sebastián, Irun y Errenteria, Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos, SA, la Entidad Pública Empresarial RENFE-Operadora y la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, estableció el marco general de colaboración para el impulso de la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en Gipuzkoa. |
| 2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako lurraldeko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredua eta oinarri teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilita arrakastaz garaturik. | Con fecha de 4 de marzo de 2013 se implantó el Sistema de Integración Tarifaria en el territorio guipuzcoano, partiendo del modelo y de la base tecnológica del billete único desarrollado con éxito por la Diputación Foral de Gipuzkoa bajo la marca LURRALDEBUS. |
| Tarifa-sistema bateratua MUGI txartelaren inguruan eratuta dago; txartelari esker, titularrak bidaiatu dezake sistemari atxikitako edozein garraio-eragilerekin, partekatua den zonakapen baten arabera, tarifa bateratuak, talde berezi bateratuak eta hobaria duten garraio-aldaketak ahalbidetzeko politikak erabilita. | La Integración Tarifaria pivota sobre la tarjeta MUGI que permite viajar a su titular en cualquier operador adscrito al sistema, conforme a una zonificación común, unas tarifas integradas, unos colectivos especiales integrados y unas políticas de transbordos bonificados. |
| Gaur egun, tarifa-sistema bateratuari atxikita daude Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakida duten garraio-eragileak, LURRALDEBUS markaren barruan elkartuta, Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernani | Actualmente están adheridos al Sistema de Integración Tarifaria los operadores concesionarios de la Diputación Foral de Gipuzkoa, agrupados bajo la marca LURRALDEBUS y los autobuses urbanos de |

| | |
|---|---|
| udalerrietako hiri-barneko autobusak eta Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA, eta, horiez gain, RENFE trenbideko garraio-eragilea eta Oiartzungo hiri-barneko autobusa. Azken bi hauetan, erabiltzaileek tarifa-sistema bateratua erabil dezakete garraio-zerbitzua erabiltzeko ordainketa-baliabide moduan. | Donostia/San Sebastián, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate-Mondragón, Zarautz y Hernani, Eusko Trenbideak- Ferrocarriles Vascos, SA, además del operador ferroviario RENFE y el autobús urbano de Oiartzun, en los que la tarjeta del sistema de integración tarifaria puede ser utilizada por las personas usuarias como medio de pago para acceder al servicio de transporte. |
| Tarifa bateratuaren bidez lortu nahi diren helburuak honako hauek dira: Gipuzkoako garraio publiko kolektiboa erabiltzaile guztientzat erakargarriagoa den sistema bihurtzea, erraz ulertzeko moduko eta erabiltzaileek onartutako printzipioetan oinarritutako tarifa-sistema bat ezartzea, eta garraio publiko kolektiboaren sistema sare bateratu moduan hautematea, horren guztiaren xede nagusia delarik iraunkorragoa den eta ibilgailu pribatuaren mendekotasun txikiagoa duen mugikortasuna sustatzea. | Los objetivos que se pretenden alcanzar con la integración tarifaria son la contribución a posicionar el transporte público colectivo guipuzcoano como un sistema más atractivo para las personas usuarias, el establecimiento de un sistema de tarifas de fácil comprensión y basado en principios aceptados por los usuarios, y la percepción del sistema de transporte público colectivo como una red integrada, todo ello destinado primordialmente al fomento de una movilidad más sostenible y menos dependiente del vehículo privado. |
| Tarifa-sistema bateratuaren ondorioa den garraio publikoaren ingurune berria aztertuta, egiaztatu ahal izan dugu beharrezkoa dela zerbitzua arautzen duten arauak onartu eta egokitu edo aldatzea, gipuzkoarrek eskubide eta betebehar berberak izan ditzaten, garraioaren eskumena duen titularra edo zerbitzua ematen duena edozein dela ere. Halaber, garraio-eragile guztiek arau-esparru bakar baten barruan emango dute zerbitzua. Partekatutako arau-esparru horrek garraio-eragileak diren enpresen betebeharrak ezarriko ditu, eta orain arte araudirik ez zegoelako edo izatezko hipotesi batzuk ez aurreikusteagatik zeuden hutsuneak konpondu egingo ditu, eta zerbitzua emateko orduan behar den segurtasun juridikoa emango die aipatutako eragileei. | Del nuevo escenario del transporte público derivado de la integración tarifaria, se constata que resulta necesaria la aprobación y adaptación o modificación de las normas por las cuales se rige el servicio, de forma que los guipuzcoanos y guipuzcoanas sean titulares de derechos y obligaciones idénticos, independientemente de quien sea titular de la competencia en transporte o quien preste el servicio. Igualmente, los diversos operadores de transportes prestarán el servicio bajo la cobertura de un único marco normativo. Este marco normativo común establece las obligaciones de las empresas operadoras de transportes, resolviendo las lagunas existentes hasta la fecha por la ausencia de reglamentación o previsión de algunos supuestos de hecho, y proporcionándoles la necesaria seguridad jurídica en la prestación del servicio. |
| Erregelamendu hau oinarrituta dago Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa-sistema bateratua ezartzeko Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzako kontsortziokideak diren erakundeek sinatutako lankidetza hitzarmenetan; bertan, berariaz xedatzen da | El presente Reglamento encuentra su fundamento en los convenios de colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa suscritos por las entidades consorciadas a la Autoridad Territorial del |

| | |
|---|---|
| erakunde horiek konpromisoa hartzen dutela Gipuzkoako Lurralde Historikoko bidaiarien garraio publikoko zerbitzua arautzen duen araudia harmonizatzeko egokiak diren jarduerak hasteko. | Transporte de Gipuzkoa, los cuales establecen expresamente que estas se comprometen a iniciar las actuaciones que resulten pertinentes para armonizar la normativa que rige en el servicio de transporte público de viajeros del Territorio Histórico de Gipuzkoa. |
| Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularraren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea. | El presente Reglamento tiene por objeto regular de forma unitaria y homogénea la prestación del servicio público de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general titularidad de las Administraciones Públicas guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. |
| Erregelamendu hau ezargarria izango zaie garraio publikoko zerbitzua erabiltzen duten erabiltzaileei eta zerbitzu hori ematen duten garraio-eragileei. | El Reglamento será de aplicación a las personas que utilicen y a los operadores que presten el servicio de transporte público. |
| Garraio publikoaren jarduera herritarren zerbitzura bideratuta egon behar da, zerbitzu erregular, maiztasunezkoa, puntuala, azkarra, autobus-aldaketa ahalbidetzen duena, erosoa eta segurua eskaintzea lortzeko, informazioa formatu egokietan eskaintzen duena, guztientzako diseinuaren printzipioak markatutako arauei jarraituz, eta zerbitzuaren egoera zehatzen arabera egokiena dena. | El transporte público debe orientar su actuación al servicio de la ciudadanía logrando ofrecer un servicio regular, frecuente, puntual, rápido, transbordable, cómodo y seguro y en el que la información se ofrezca en formatos adecuados, siguiendo las reglas marcadas por el principio de diseño universal o diseño para todas las personas, y sea lo más adecuada a las circunstancias concretas del servicio. |
| Gipuzkoako gizartearen bilakaeraren ondorioz, eskakizun berriak sortu dira garraio publikoko zerbitzuan: irisgarritasun unibertsalari eta mugikortasun murriztuari lotutakoak, haur-kotxe eta -aulkiak sartzeko modua antolatzeko beharra, bizikletak edo etxeko animaliak sartzea baimentzeko aukera, biztanle-dentsitate txikiari edo eskaera-maila baxuari erantzuna emateko zerbitzuak, bakar batzuk adieraztearren. Eskaera horiei erantzuna eman nahi diegu Erregelamendu honetako artikuluen bidez, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek apustu argi bat eginda, pertsona guztiek garraio publikoa erabiltzea ahalbidetzen duen zerbitzu unibertsala sustatzeko, denok ibilgailu pribatua erabili behar izan gabe dugun mugikortasunerako eskubidea erabiliz. | De la evolución de la sociedad guipuzcoana han surgido nuevas demandas en el servicio de transporte público: las relacionadas con los problemas de accesibilidad universal y movilidad reducida, la necesidad de organizar el acceso de coches y sillas de niños, la posibilidad de permitir el acceso de bicicletas o animales de compañía, los servicios a la demanda para satisfacer la baja densidad de población o reducido nivel de demanda, solo por enumerar algunas de ellas. Demandas a las que se pretende dar respuesta en el articulado del presente Reglamento, en una clara apuesta de las Administraciones titulares del servicio por el impulso de un servicio universal que posibilite que todas las personas puedan acceder al transporte público, ejerciendo su derecho a la movilidad sin tener que optar por el vehículo privado. |
| Mugikortasuna oinarrizko eskubidea da herritar guztientzat, eta zerbitzua edozein | La movilidad es un derecho fundamental para toda la ciudadanía y una configuración del |

| | |
|---|---|
| pertsonarentzat irisgarria, ingurune abegitsuan eskainia eta guztientzat seguru eta erosoa izateak eragina du gizarte osoaren bizi-kalitatean. Diseinu unibertsala onuragarria da adin guztietako eta gaitasun guztietako pertsona guztientzat. | servicio accesible a cualquier persona en un entono amigable, seguro y confortable para todos incide en la calidad de vida de toda la sociedad. El diseño universal beneficia a todas las personas de todas las edades y todas las capacidades. |
| Erregelamendu honen xedea da garraio-zerbitzua edozein pertsonarentzat irisgarria izango dela bermatzea, pertsonek mugikortasun-arazoak, zentzumen-komunikaziorako arazoak, pertzepzio-arazoak zein dibertsitate kognitibo edo mentaleko arazoak izan edo ez. | Este Reglamento aspira a garantizar un servicio de transporte accesible a cualquier persona, tenga o no problemas de movilidad, comunicación sensorial, percepción o diversidad cognitiva o mental. |
| Garraio publikoaren bidez mugikortasun irisgarria bermatzeko oinarria bidaiarien mugikortasun-kateko espazio eta une bakoitzean ezartzen diren irisgarritasun unibertsalerako baldintzak eta zehaztasunak lortu eta betetzea da, eta kate hori honela eratuta dago: azpiegitura edo instalazio finkoak (adibidez, geltokiak edo markesinak), ibilgailuak, bien arteko lotura, informazio-, seinaleztapen- eta orientazio-sistemak, eta, azkenik, berez zerbitzua dena ematea. | La garantía de la movilidad accesible mediante el transporte público se basa en la consecución y cumplimiento de las condiciones y especificaciones en Accesibilidad Universal que se establezcan para cada uno de los espacios y momentos de la cadena de la movilidad de las personas viajeras, configurada por las infraestructuras o instalaciones fijas (tales como paradas o marquesinas), los vehículos, el vínculo entre ambos, los sistemas de información, señalización y orientación y por último, la prestación del servicio propiamente dicho. |
| Erregelamendua, bestalde, honela egituratuta dago: Atariko Titulua eta bost titulu gehiago, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen. | El Reglamento se estructura en un Título Preliminar y cinco Títulos, dos disposiciones adicionales, una disposición transitoria, una disposición derogatoria y dos disposiciones finales. |
| Erregelamenduan berariaz jaso nahi izan dugu irisgarritasun unibertsalari buruzko berariazko titulu bat, I. Titulua, hain zuzen ere, eta bertan bereizi egin dira irisgarritasun unibertsalaren eta mugikortasun murriztuaren kontzeptuak. | El Reglamento ha querido recoger expresamente un título específico sobre la accesibilidad universal, el Título I, diferenciando los conceptos de accesibilidad universal y movilidad reducida. |
| Ildo horretan, erregelamenduan xedatzen da garraio-zerbitzu publikoaren titularrak diren administrazioek eskura dituzten tresna guztiak erabili behar dituztela pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, eta, horrela, pertsona guztiek, eta bereziki mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasuna edo bestelako muga psikiko edo sentsoriala dutenek, aldi baterako edo behin betiko izan, garraio-zerbitzua erabili eta gozatu ahal izango dutela bermatzeko. | En este sentido, el Reglamento establece que las Administraciones titulares del servicio público de transporte deben utilizar todas las herramientas a su alcance para garantizar la accesibilidad y la movilidad de las personas, garantizando así el uso y disfrute del servicio de transporte de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial de carácter temporal o |

| | |
|---|---|
| Irisgarritasuna funtsezko eta ezinbesteko elementua da desgaitasuna duten pertsonen eskubideak erabat eraginkorrak izan daitezen. | permanente. La accesibilidad se configura como elemento clave e indispensable para la plena efectividad de los derechos de las personas con discapacidad. |
| Egungo gizartean, bizi-itxaropena handituz doa etengabe, eta hala, pertsona ugarik istripu edo gaixotasunen ondorioz murriztua dute mugitzeko eta komunikatzeko gaitasuna, eta halaber, pertsona ugarik, egoeraren arabera, mugikortasun mugatua dute. Gizartea bera da garraioan irisgarritasun-baldintzen hobekuntza eskatzen duena, horrek pertsona horien eta, oro har, gizartearen bizi-kalitate hobea ekarriko baitu. | La sociedad actual, con una esperanza de vida en constante progresión presenta a un gran número de personas que por accidente o enfermedad han visto disminuida su capacidad de movimiento y comunicación y a un importante número de personas que circunstancialmente ven limitada su movilidad. Es la propia sociedad la que demanda la mejora de la condiciones de accesibilidad en el transporte pues de ello redundará una mayor calidad de vida de dichas personas y de la sociedad en general. |
| 8. artikuluan, erabiltzaileen bizitzan norberaren egoera iraunkorraren edo behin-behinekoaren arabera mugikortasun murriztuko pertsonatzat hartzen diren pertsona multzoen zerrenda bat jaso dugu. Artikuluaren barruan, desgaitasunaren legezko definizioa gaindituta, oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak sartu dira, eta lehentasunerako araubide argia ezarri da erreserbatutako espazio eta eserlekuetan. Halaber, ibilgailuetan sartzeko lehentasun-araubidea ezarri da, eta, hala, erabiltzaileen zein gidarien arau-hauste bezala tipifikatu da mugikortasun murriztua duten pertsonei erreserbatutako plaza horiek okupatzen ez uztea. | El artículo 8 refiere una lista en la que se recogen los grupos de personas que son consideradas personas con movilidad reducida y que responde a las circunstancias personales, permanentes o temporales, de las personas usuarias a lo largo de su vida. El artículo va más allá de la definición legal de discapacidad y abre el abanico a todas aquellas personas que por sus circunstancias personales no pueden viajar de pie sin riesgo para sí mismas o para terceros, estableciendo un claro régimen de preferencia en espacios y asientos reservados. Se recoge, así mismo, el régimen de preferencia de acceso a los vehículos, tipificando como infracción tanto de personas usuarias como del personal de conducción el no permitir ocupar dichas plazas reservadas a las personas con movilidad reducida. |
| Ildo berean, aurretiazko erreserbarako araubide bat ezarri da ibilbide luzeko bidaietan, aulki gurpildunean lekualdatu behar diren pertsonentzat, eta, hala, zerbitzuaren titularra den administrazioak ordezko garraioa bermatuko dio erabiltzaileari, aurretiazko erreserba egin eta gero, erreserbatutako plaza edo espazioaren eskaerari garraio-enpresa eragileak erantzun ezin dionean. | En la misma línea, se establece un régimen de reserva previa en los trayectos de largo recorrido para las personas que precisen desplazarse en silla de ruedas, garantizándose por parte de la Administración titular del servicio un transporte alternativo para los supuestos en que habiéndose realizado dicha reserva previa, la empresa operadora no pueda satisfacer la demanda de plaza o espacio reservado. |
| Zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, mugikortasun murriztua duten pertsonek gastu gehigarria izaten dutela jakinda –zenbaitetan lagunduta bidaiatu behar baitute– | Las Administraciones titulares del servicio, conscientes del gasto adicional que afrontan las personas con movilidad reducida obligadas en muchas ocasiones a viajar |

| | |
|---|---|
| , berariazko tarifa-araubide bat ezarri dute, itsuen eta aulki gurpildunean lekualdatzen diren pertsonen laguntzaileentzat, eta, hala, doan bidaiatu ahal izango dute. Ekintza positibozko neurri horren bidez, garraio publikora bakarrik iristeko autonomiarik ez duten pertsonen desabantaila ekonomikoak konpentsatu nahi dira. | acompañadas, establecen un régimen tarifario específico para las personas acompañantes de las personas invidentes y de aquellas personas que se desplazan en sillas de ruedas, que podrán viajar de forma gratuita. Mediante esta medida de acción positiva se pretende compensar las desventajas económicas de las personas con falta de autonomía para acceder solas al transporte público. |
| Erregelamenduan arabera, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek sustatuko dute garraio-enpresa eragileek erabiltzaileei zuzentzen dieten informazioa formatu egokietan eskaintzea, pertsona guztientzat irisgarri eta ulerterrazak izan daitezen, irisgarritasun kognitiboaren ildoei jarraituz. Halaber, arreta-zerbitzuetan eta web orrialdeetan, komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak ematea sustatuko du, hala nola, sistema handigarriak eta hautabidezkoak, ahoz eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko sistema laguntzaileak, ukimen-komunikazioko sistemak eta beste gailu batzuk, pertsona guztiei komunikazioa ahalbidetzeko, eta dena pixkanaka-pixkanaka, gaiaren konplexutasuna kontuan hartuta. | El Reglamento establece que las Administraciones titulares del servicio promoverán que la información dirigida a las personas usuarias por las empresas operadoras de transportes se preste en formatos adecuados que resulten accesibles y de fácil comprensión para todas las personas, de acuerdo con los planteamientos de accesibilidad cognitiva. Así mismo, promoverán que en los servicios de atención y en las páginas web se presten ayudas y servicios auxiliares para la comunicación, tales como sistemas aumentativos y alternativos, sistemas de apoyo a la comunicación oral y lengua de signos, sistemas de comunicación táctil y otros dispositivos que permitan la comunicación a todas las personas, todo ello en términos de progresividad atendiendo a la complejidad de la materia. |
| Azkenik, aurreikuspen bat sartu da, alegia, zerbitzuaren titularrak diren administrazioek autobusetako eta, hala badagokio, geltokietako gailu akustikoak aktibatzeko beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa sustatzea, hala eskatzen duten pertsonen artean. | Finalmente, se incluye la previsión de que las Administraciones titulares del servicio impulsarán la distribución entre las personas que los soliciten, de los mandos a distancia necesarios para activar los dispositivos acústicos de los autobuses, y paradas, en su caso. |
| II. Tituluan, garraio-zerbitzua erabiltzean bidaiariek dituzten eskubide eta betebeharrei buruzkoan, erabiltzaileen interes askotarikoak kontuan hartu nahi izan dira, bizitza pertsonal eta profesionalaren beharrei erantzun ahal izateko. | El Titulo II, dedicado a los derechos y obligaciones de las personas viajeras en la utilización del servicio de transporte, pretende atender a los diversos intereses de las personas usuarias y satisfacer así, las necesidades derivadas de la vida personal y profesional. |
| Gipuzkoako errealitate soziolinguistikoarekin bat, erabiltzaileen hizkuntz eskubideak ere kontuan hartu dira, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionean, eta eskubide horiek bermatu egin behar dituzte bai zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, bai garraio-enpresa | De acuerdo con la realidad sociolingüística de Gipuzkoa, se configuran una serie de derechos lingüísticos de las personas usuarias respecto de la utilización de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma de País Vasco que deben ser garantizados tanto por las Administraciones titulares del servicio, |

| | |
|---|---|
| eragileek. | como por las empresas operadoras de transportes. |
| Erregelamenduaren bidez, haur txikiak dituzten familien betebeharrei erantzun nahi zaie, familia-bizitza eta bizitza profesionala bateratzeko zailtasun handiak dituztenean. Era horretan, ahalbidetu egin da heldu batek 5 urtetik beherako 4 adingaberekin batera bidaiatzea eta adin horretatik aurrerako haurrek bakarrik bidaiatu ahal izatea, guraso edo tutoreek horretarako baimena ematen badiete. Nolanahi ere, ohiz kanpoko edozein egoera edo adingabeenganako arretarik eza hautemanez gero, gidariek horretarako gaitutako mekanismoak erabili ahal izango dituzte. Neurri horien bidez, familia eta lanbidea bateratzeko erraztasunak eman nahi dira eta, halaber, udalerri txikietan orokorra den jardun bat islatzea, izan ere, bertan, hiri-barneko garraioa ikastetxeetara joateko ohiko bitartekoa da. | El Reglamento pretende atender las necesidades de las familias con niños y niñas pequeños que tienen serias dificultades para conciliar la vida familiar y profesional. Se posibilita, así, que una persona adulta pueda viajar acompañada de 4 menores de 5 años y que los niños y niñas a partir de esa edad, puedan viajar solos, si sus progenitores o tutores les autorizan a ello. Todo ello, sin perjuicio de que el personal de conducción pueda utilizar los mecanismos habilitados a tal efecto, si se detectase cualquier situación anómala o de desatención al menor. Con estas medidas se pretende facilitar la conciliación familiar y profesional y reflejar una práctica generalizada en los municipios pequeños, donde el transporte urbano viene siendo el medio habitual de traslado a los centros educativos. |
| Garraio iraunkorra eta modu-artekotasuna sustatzeko xedez, bizikletak eramaten dituzten pertsonak sartu ahal izango dira dituzten ezaugarrien arabera hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, zerbitzuaren egoera kontuan hartuta, eta lurraldeko goi-eremuetako linea eta geltokietan. Hala eta guztiz ere, herritarrei aldez aurretik iragarrita, zerbitzuaren titularra den administrazioak mugak jarri ahal izango ditu, egun jakin batzuetan edo ekitaldi jakinak daudenean. | Con el propósito de promover el transporte sostenible y la intermodalidad, se permite el acceso de personas portando bicicletas en aquellos vehículos que por sus características así lo posibiliten y atendiendo a las circunstancias específicas del servicio, en líneas y paradas que coinciden con las zonas altas del territorio. Todo ello, sin perjuicio de que previo anuncio a la ciudadanía, la Administración titular del servicio pueda limitar dicho acceso por motivo de fechas o eventos específicos. |
| Ildo horretan, halaber, tolestutako bizikletak eskuko fardel edo ekipajetzat hartuko dira, ondorio guztietarako. | En este mismo sentido, las bicicletas plegadas serán consideradas bultos de mano o equipaje, a todos los efectos. |
| Erabiltzaileak izan daitezkeen pertsonen dibertsitatea errespetatzeko, eta Europako gainerako herrialdeetan zein Estatuko beste hiri batzuetan dauden azken joerekin bat, baimendu ahal izango da etxeko animaliek lagunduta doazen pertsonek bidaiatzea. Maskota-kopurua, eta bereziki txakur-kopurua, etengabe eta biztanleriaren adina igotzearekin batera handitzen ari dela jakitun izanik, garraio-zerbitzuaren titularrak diren administrazioek txakur eta katuak eramatea baimentzeko apustua egin dute, eta kasu zehatz batzuetan, tamaina txikiko beste | En la misma línea de respetar la diversidad de las potenciales personas usuarias, y en consonancia con las últimas tendencias en el resto de países europeos así como en otras ciudades del Estado español, se permite el acceso de personas portando animales de compañía. Conscientes de que el número de mascotas, especialmente de perros, aumenta progresivamente y en paralelo al incremento de la edad de la población, las Administraciones titulares del servicio de transporte han apostado por permitir el acceso de perros y gatos, y en algún caso |

| | |
|---|---|
| animaliaren bat ere bai. | específico, de algún otro animal de pequeño tamaño. |
| Hala eta guztiz ere, hainbat baldintza ezarri dira etxeko animaliak garraiatzeko, gainerako erabiltzaileen konfort- eta erosotasun-baldintzak errespetatu eta animalien ardura dutenek erantzun dezaten animaliek sor ditzaketen kalte edo bestelako gorabeheren aurrean. | Con todo, se establece una serie de condiciones en el transporte de animales de compañía al objeto de que el resto de personas usuarias vean respetadas sus condiciones de confort y comodidad y las personas responsables de los animales respondan de los daños o incidentes que estos pudieran originar. |
| Zerbitzua normaltasunez emateko orduan, erabiltzaileen interes kontrajarriek zailtasunak edo haserrealdiak sor ditzaketela jakinda, erregelamenduaren bidez gidarien irudia nabarmendu nahi izan da, eta, hala, gidariaren irizpidea izango da nagusitzen dena erabiltzaileen artean edo erabiltzaileen eta garraio-enpresa eragileetako langileen artean desadostasunak gertatuz gero. | Conscientes de que los intereses contrapuestos de las personas usuarias pueden dificultar o llegar a generar incidencias en la normal prestación del servicio, el Reglamento pretende realzar la figura del personal de conducción, cuyo criterio será el que prevalezca en caso de discrepancia entre personas usuarias o entre estas y el personal de las empresas operadoras de transportes. |
| Tituluan, garraio-enpresa eragileen betebeharrak jaso dira. Berriro ere pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko helburuaz, erregelamenduaren bidez ezarri da zerbitzua emateari buruzko informazio guztiak modu irisgarrian eskaintzeko betebeharra; hala ere, betebehar hori arian-arian beteko da, gaiaren konplexutasun teknikoa kontuan hartuta. | El Título III recoge las obligaciones de las empresas operadoras de transportes. Con el propósito de incidir nuevamente en garantizar la accesibilidad a todas las personas, el Reglamento impone la obligación de facilitar toda información sobre la prestación del servicio de forma accesible, si bien prevé dicha obligación en términos de progresividad, atendiendo a la complejidad técnica de la materia. |
| IV. Tituluan, garraio-tituluari buruzkoan, Gipuzkoan 2013ko martxoaren 4an ezarri ziren tarifa bateratuen ondorioa den egoera berriari erantzuna emateko, txartela sartu da tarifa-sistema bateratuko tituluen barruan, eta tarifa-izaerako aparteko errekargu bat sortzea aurreikusi da. Txartel pertsonalizatuak behar bezala ez erabiltzeagatik jarriko diren zigorren araubidea ezarri da, eta berariaz bidaltzen da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak onartu eta 2014ko apirilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko Baldintza Orokorretara. | El Título IV, relativo al título de transporte, en respuesta al nuevo escenario que se deriva de la integración tarifaria implantada en Gipuzkoa con fecha de 4 de marzo de 2013, incluye en la lista de títulos válidos las tarjetas del sistema de integración tarifaria y prevé la creación de un recargo extraordinario de carácter tarifario. Se establece un régimen de penalizaciones por uso incorrecto de títulos personalizados y se hace una remisión expresa a las Condiciones Generales de contratación y utilización del Sistema de Integración Tarifaria en el Territorio Histórico de Gipuzkoa aprobadas por la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 4 abril de 2014. |
| V. Tituluan, erregelamendu honetan | El Título V prevé el Régimen Sancionador por |

| | |
|---|---|
| zehaztutako betebeharrak ez betetzeagatik ezarriko den zehapen-araubidea aurreikusten da. | el incumplimiento de las obligaciones señaladas en el presente Reglamento. |
| Amaitzeko, erregelamenduan, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan jarraipen-batzorde bat sortzea erabaki da, honela osatuta egongo dena: kontsortzioko kide diren administrazioen ordezkariak, garraio-enpresen ordezkariak, eta mugikortasuna mugatua duten edo bestelako mugaketa psikiko edo sentsoriala duten pertsonen alde lan egiten duten elkarteen ordezkariak. Kontsulta-izaera izango duen batzorde horrek erregelamendu hau bete eta garatuko dela zainduko du, eta, egokia bada, Gipuzkoako gizartearen eskakizunei behar bezala erantzun ahal izateko testuak behar dituen aldaketak proposatuko ditu. | Finalmente, el Reglamento opta por la creación de una comisión de seguimiento en el seno de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa conformada por representantes de las administraciones consorciadas, de las empresas operadoras de transportes y de los colectivos que trabajan en defensa de las personas con movilidad reducida o cualquier otra limitación psíquica o sensorial. Dicha comisión de carácter consultivo velará por el cumplimiento y desarrollo del presente Reglamento y propondrá, en su caso, las modificaciones que precise el texto para responder de forma satisfactoria a las demandas de la sociedad guipuzcoana. |
| Erregelamendu hau idazteko prozesuan, zuzenean eraginda dauden taldeek parte hartu dute. | En el proceso de elaboración del presente reglamento han participado los colectivos directamente afectados. |
| ATARIKO TITULUA | TÍTULO PRELIMINAR |
| 1. artikulua. *Erregelamenduaren xedea eta erregelamendua ezartzeko eremua* | Artículo 1. *Objeto y ámbito de aplicación del Reglamento* |
| Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularraren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea. | El presente Reglamento tiene por objeto regular de forma unitaria y homogénea la prestación del servicio público de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general titularidad de las Administraciones Públicas guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. |
| Erregelamendu hau ezargarria izango zaie adierazitako garraio publikoko zerbitzua erabiltzen dituzten pertsonei eta zerbitzu hori ematen duten garraio-enpresa eragileei. | El presente Reglamento será de aplicación a las personas que utilicen y a las empresas operadoras que presten dicho servicio de transporte público. |
| 2. artikulua. *Zerbitzuaren izaera publikoa* | Artículo 2. *Carácter público del servicio* |
| Bidaiarien garraio-zerbitzua izaera publikokoa da, eta, hortaz, garraioa erabiltzeko eskubidea izango dute hala nahi duten pertsona guztiek, erregelamendu honetan eta errepideko bidaiarien garraioari buruz indarrean dagoen legeria ezargarrian erabiltzaileentzat jasotako baldintzak eta betebeharrak muga bakarrak | El servicio de transporte de personas viajeras es de carácter público, por lo que tendrán derecho a su utilización cuantas personas lo deseen, sin otra limitación que las condiciones y obligaciones que para las personas usuarias señale el presente Reglamento y la normativa vigente en materia |

| | |
|---|---|
| direla. | de Transporte de Viajeros por Carretera que resulte de aplicación. |
| Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak eskura dituen tresna guztiak erabiliko ditu pixkanaka-pixkanaka pertsona guztien irisgarritasun eta mugikortasuna bermatzeko. | La Administración titular del servicio de transporte utilizará todas las herramientas a su alcance para garantizar la progresiva accesibilidad y la movilidad de todas las personas. |
| **3. artikulua.** *Definizioak* | **Artículo 3.** *Definiciones* |
| Hona hemen kontzeptu batzuen definizioa, erregelamendu honen eraginetarako: | A los efectos del presente Reglamento se entenderá por: |
| **Bidaiaria:** Erregelamendu honetan arautzen den garraio-zerbitzu publikoaren erabiltzaile guztiak. Pertsona bat definizio honen barruan sartuko da aldez aurretik tiketa erosten duen unetik edo zerbitzuaren titularra den administrazio publikoak finkatutako geltokiren batean zerbitzuaren erabilera eskatzen ari den unetik, lekualdatzen ari denean eta aipatutako administrazioak ere finkatutako beste geltoki batean ibilgailu horretatik jaitsi arte. | **Persona viajera:** toda persona usuaria del servicio público de transporte regulado en el presente Reglamento. Una persona se encuadra en esta definición desde el momento en el que adquiera el billete por anticipado o se encuentre en una parada de las instituidas por la Administración Pública titular del servicio demandando la utilización del servicio, hasta que embarca en el vehículo que presta el servicio, durante el traslado y hasta que desembarca de dicho vehículo en otra parada igualmente instituida por la referida Administración. |
| **Adingabea:** bost urtetik beherako bidaiaria. | **Menor:** persona viajera con edad inferior a cinco años. |
| **Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra:** garraio publiko erregularrak, iraunkorrak edo aldi baterakoak, eta erabilera orokorrekoak honako hauek dira: administrazio publiko eskudun batek ezarritakoak diren eta eskaera orokorrari erantzutera zuzentzen direnak, errepideetan ibiltzen diren ibilgailuen bitartez. Zerbitzu horiek eskaerari egokitutako garraio-zerbitzu moduan konfiguratuta egon daitezke, edo ez. | **Servicio público de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general:** son transportes públicos regulares, permanentes o temporales, de uso general, los que, previo su establecimiento por una Administración Pública competente, van dirigidos a satisfacer una demanda general a través de vehículos que circulan por carreteras. Estos servicios estarán, o no, configurados como servicios de transporte a la demanda. |
| **Ibilbide luzeko zerbitzua:** zerbitzu publikoko linea, III. mailako autokarren bidez ematen dena; autokar horiek egokituta daude bidaiariak eserita garraiatzeko, eta ez dituzte inolaz ere zutik doazen bidaiariak garraiatzen. Ibilgailu horiek maletategia izango dute, fardelak eta ekipajea, haur-kotxe eta -aulkiak, bizikletak eta etxeko animaliak garraiatzeko. | **Servicio de largo recorrido:** línea de servicio público cubierta con autocares de clase III, acondicionados para llevar únicamente viajeros sentados y que en ningún caso transportan personas de pie. Estos vehículos tendrán bodega para el transporte de los bultos y equipaje, coches y sillas de niños, bicicletas y animales de compañía. |
| **Ibilgailua:** Errepide bidezko pertsonen garraio | **Vehículo:** medio de transporte homologado |

| | |
|---|---|
| kolektiborako garraiobide homologatua. Hau da: autokar edo autobusa, minibus edo mikrobusa eta taxibusa. | para el transporte colectivo de personas por carretera. A saber: autocar o autobús, mini-bus o micro-bus y taxi-bus. |
| **Geltokia:** administrazio publiko eskudunak bide publikoan egokitutako espazioa, garraio publikoko ibilgailuak geratzeko eta bidaiariek itxaroteko; bertan, halaber, bidaiariak ibilgailuetara igo eta bertatik jaisten dira. | **Parada:** espacio en la vía pública acondicionado por la Administración Pública competente para que se detengan los vehículos destinados al transporte público en el que esperan las personas viajeras y en el que se produce el embarque y desembarque de estas en aquellos. |
| Geltokiak bere eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren elementu guztiak ditu, administrazio publiko eskudunak emandako ezaugarri berezien arabera: markesina, informatzeko elementuak, eserlekuak, etab. | La parada comprende todos los elementos necesarios para, atendiendo a sus características particulares dotadas por la Administración Pública competente, cumplir su función: marquesina, elementos de información, asientos, etc. |
| **Bizikleta:** bi gurpildun zikloa, gainean doan pertsonak pedalen bidez sortutako muskulu-energiagiak bakarrik edo bereziki bultzatuta mugitzen dena. | **Bicicleta:** ciclo de dos ruedas, propulsado exclusivamente o principalmente por la energía muscular de la persona que está sobre él, por medio de pedales. |
| **Irisgarritasun unibertsala:** Ingurune, prozesu, ondasun, produktu eta zerbitzuek zein objektu, tresna, lanabes eta gailuek bete behar duten baldintza da, pertsona guztiek segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomoen eta naturalenean horiek ulertu, erabili eta eskuratu ahal izateko. Berekin du “diseinu unibertsalaren edo pertsona guztientzako diseinuaren” estrategia, eta ulertu behar da egin behar diren zentzuzko doikuntzak egingo direla. | **Accesibilidad Universal:** Es la condición que deben cumplir los entornos, procesos, bienes, productos y servicios, así como los objetos, instrumentos, herramientas y dispositivos, para ser comprensibles, utilizables y practicables por todas las personas en condiciones de seguridad y comodidad y de la forma más autónoma y natural posible. Presupone la estrategia de «diseño universal o diseño para todas las personas», y se entiende sin perjuicio de los ajustes razonables que deban adoptarse. |
| Garraio kolektiboko sistemek irisgarritasun unibertsalaren diseinu-jarraibideak bete behar dituzte, erabiltzaile izan daitekeen edozein pertsonari egokia den zerbitzua eskaini ahal izateko, giza aniztasuna eta horren araberako eskakizunak kontuan hartuta; eskakizun horiek, hain zuzen ere, garraio modu bakoitzeko diseinu irisgarrirako zehaztasun tekniko multzo batean eta horien arteko elkarrekintzan gorputzen dira. | Los sistemas de transporte colectivo han de seguir la pautas de diseño de la Accesibilidad Universal a fin de poder ofrecer un servicio apropiado a cualquier persona usuaria potencial, tomando en consideración la diversidad humana y los requerimientos correspondientes que se plasman en un conjunto de especificaciones técnicas de diseño accesible en cada uno de los modos de transporte y en sus mutuas interacciones. |
| **Mugikortasun murriztua duten pertsonak:** aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak dira, eta, oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten | **Personas con movilidad reducida:** aquellas personas que se desplazan en sillas de ruedas y en general, las personas que, por sus circunstancias personales, no pueden viajar de pie sin riesgo para sí mismas o para |

| | |
|---|---|
| pertsonak. | terceros. |
| **Plataforma:** autobusean gainerako espazioak baino gardenagoa dena; bertara, zuzenean iristen da kanpotik, eta eusteko elementuak edota eserleku bereziak ditu, aulki gurpildunetan lekualdatzen diren edo mugikortasun murriztua duten gainerako pertsonak, haur-kotxe eta -aulkiak, eta fardel jakin batzuk garraiatzeko. | **Plataforma** : zona del autobús más diáfana que el resto y a la que se accede de forma directa desde el exterior, dotada de elementos de sujeción y/o de asientos especiales destinados al transporte de personas que se desplazan en sillas de ruedas o demás personas con movilidad reducida, coches y sillas de niños, bicicletas y ciertos bultos. |
| **4. artikulua.** *Zerbitzuaren eskumena, antolakuntza eta ustiapena* | **Artículo 4.** *Competencia, organización y explotación del servicio* |
| Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregular bakoitzean eskumena duen administrazio publikoa da zerbitzua ezartzen duena, eta, halaber, horren titularra da, bidaiarien errepide bidezko garraioari buruz indarrean dagoen eta Euskal Autonomia Erkidegoan zein, hedaduraz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezargarria den araudiaren arabera. | La Administración Pública competente en cada servicio público de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general es la que lo establece, siendo titular del mismo, de conformidad con la normativa vigente en materia de Transporte de Viajeros por Carretera que resulte de aplicación en la Comunidad Autónoma de Euskadi y, por extensión, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. |
| Administrazio publiko horrek erabilera orokorreko garraio publiko erregularreko zerbitzua antolatu eta planifikatuko du, bai linea, ibilbide, geltoki eta ordutegiei dagokienez, bai bere eskumenekoa den garraio horrekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, eta halaber, berariaz pertsona guztien irisgarritasun unibertsala bermatzen duten sistema eta elementu guztiei dagokienez, hala nola: inklinatzeko sistemak, arrapalak, plataforma jasotzaileak eta txirrin egokituak. | Dicha Administración Pública organizará y planificará el servicio de transporte público regular de uso general, tanto en lo que se refiere a las líneas, itinerarios, paradas y horarios, y a cuantos aspectos se relacionen con dicho transporte de su competencia, como específicamente, a lo referente a sistemas y elementos que garanticen la accesibilidad universal de todas las personas, tales como sistemas de inclinación o arrodillamiento, rampas, plataformas elevadoras y timbres adaptados. |
| Administrazio publiko horrek, era berean, zerbitzua kudeatzeko modalitatea definituko du, eta, antolamendu juridikoan aurreikusitakoa betez, garraio-zerbitzu publikoa ustiatu eta bidaiariei eskainiko dien erakunde eragilea hautatuko du. | Dicha Administración Pública también definirá la modalidad de gestión del servicio y seleccionará, de conformidad con lo previsto en el ordenamiento jurídico, a la entidad operadora que vaya a explotar y prestar efectivamente el servicio público de transporte a las personas viajeras. |
| I. TITULUA. IRISGARRITASUN UNIBERTSALA | TITULO I. ACCESIBILIDAD UNIVERSAL |
| **5. artikulua.** *Esparru juridiko arautzailea* | **Artículo 5.** *Marco jurídico regulador* |
| Garraio-enpresa eragilea behartuta egongo da ezargarria den indarreko legerian, eta, | La empresa operadora de transportes estará obligada al cumplimiento de la normativa |

| | |
|---|---|
| nolanahi ere, emakida-tituluan edo zerbitzuaren ustiapena egiteko emandako agirian jasota dagoen garraio publikoetako irisgarritasun unibertsalari buruzko araudia betetzera. | sobre accesibilidad universal en los transportes públicos recogida en la legislación vigente que sea de aplicación y, en todo caso, en el correspondiente título concesional o documento en virtud del cual le haya sido confiada la explotación del servicio. |
| 6. artikulua. *Irisgarritasuna sustatzen duten elementuak* | Artículo 6. *Elementos de acceso que promueven la accesibilidad* |
| 1. Ibilgailuak irisgarritasun-sistemez hornituta egongo dira. Aipatutako sistemak erabilgarri eta aktibagarri egongo dira beti, horretarako ezarritako gailuen bitartez, adibidez urrutiko kontrolen bitartez. | 1. Los vehículos estarán dotados de sistemas de accesibilidad que deberán estar siempre disponibles y activables mediante los mecanismos establecidos al efecto, tales como mandos a distancia. |
| 2. Ibilgailuek dituzten ezaugarrien arabera, sartu-irteteko sistema hauek eduki beharko dituzte: | 2. Los vehículos, en función de sus características, deberán contar con los siguientes sistemas de acceso: |
| • Inklinatzeko sistemak zoru baxuko autobusetan. Sistema horiek beti erabili beharko dira, ezaugarri orografikoek galarazten ez duten bitartean hala ahalbidetzen badute, mugikortasun murriztua duten bidaiariak igo eta jaisteko. | • Sistemas de inclinación (arrodillamiento) para los autobuses de piso bajo, que deberán ser utilizados siempre, salvo que las condiciones orográficas no lo permitan, para facilitar el embarque y desembarque de personas viajeras con movilidad reducida. |
| • Arrapalak zoru baxuko autobusetan, aulki gurpildunetan mugitzen diren pertsonek ez ezik, mugitzeko material ortoprotesikoa (taka-takak, makuluak, etab.) behar duten bidaiariek ere erabili ahal izateko. | • Rampas para los autobuses de piso bajo, que pueden ser utilizadas, además de por las personas que se desplazan en sillas de ruedas, por personas viajeras que precisen de material orto protésico para su movilidad (tales como andadores, muletas, etc,...) |
| • Plataforma jasotzaileak zoru altuko autobusetan. Aulki gurpildunetan mugitzen diren bidaiariek sartu-irteteko erabiliko dira. | • Plataformas elevadoras para los autobuses de piso alto, que se utilizarán para el acceso de personas viajeras que precisen hacerlo en silla de ruedas. |
| 3. Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak deitzeko txirrinak zein ohartzeko sistemak ulertu eta erabiltzea errazteko piktogramak eta bestelako elementuak jartzea sustatuko du, eta, halaber, geltokietan informazio | 3. La Administración titular del servicio de transporte promoverá la inclusión de pictogramas y otros elementos que faciliten la compresión y utilización de los timbres de llamada y sistemas de aviso. Dichos sistemas de aviso tendrán un volumen y tono |

| | |
|---|---|
| eskuragarria ematea. Ohartzeko sistema horiek ozentasun eta soinu egokiak izango dituzte, gidatzen duen langileari eragozpenik ez sortzeko modukoak. | adecuados, de forma que no supongan molestias al personal de conducción. |
| 4. Zerbitzuaren titularra den administrazioak, halaber, ibilgailu eta geltokietan informazioa eskuragarria izatea, eta arreta-zerbitzuetan eta web orrialdeetan komunikaziorako laguntzak eta zerbitzu osagarriak ematea sustatuko du, hala nola, sistema handigarriak eta hautabidezkoak, ahoz eta zeinu-hizkuntzaz komunikatzeko sistema laguntzaileak, ukimen-komunikazioko sistemak eta beste gailu batzuk, pertsona guztiei komunikazioa ahalbidetzeko. | 4. La Administración titular del servicio de transporte promoverá que la información sea accesible en los vehículos y en las paradas y que en los servicios de atención a las personas usuarias y en las páginas web se presten ayudas y servicios auxiliares para la comunicación, tales como sistemas aumentativos y alternativos, sistemas de apoyo a la comunicación oral y lengua de signos, sistemas de comunicación táctil y otros dispositivos que permitan la comunicación a todas las personas |
| 5. Ikusteko zailtasunak dituzten pertsonak garraiatzeko, ibilgailuek seinale argidun eta akustikoak izango dituzte sartzeko ateetan, kirrinkari edo deigarriegiak ez direnak, ateen kokapena erraz aurkitzeko. Era berean, geldialdia eskatu dela bisualki eta soinuaren bidez informatuko da, eta funtzionamenduan mantenduko da ibilbide osoan. | 5. Para el transporte de personas con dificultades visuales los vehículos deberán estar dotados de indicadores luminosos y acústicos, no estridentes, en las puertas de entrada para facilitar su localización. Así mismo, se proporcionará de manera visual y sonora información de las paradas solicitadas, que permanecerá en funcionamiento durante todo el recorrido. |
| 6. Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak sustatuko du autobusetako irisgarritasunerako gailu akustikoak aktibatzeko beharrezkoak diren urrutiko aginteen banaketa, hala eskatzen duten pertsonen artean. | 6. La Administración titular del servicio de transporte promoverá la distribución de los mandos a distancia necesarios para activar los dispositivos de accesibilidad de los vehículos entre las personas usuarias que los requieran. |
| **7. artikulua.** *Irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzea* | **Artículo 7.** *Garantía de accesibilidad y movilidad* |
| Garraio-zerbitzuaren titularra den administrazioak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu garraio-sistema une bakoitzean dauden irisgarritasun- eta mugikortasun-beharretara pixkanaka egokitzeko. | La Administración titular del servicio de transporte adoptará las medidas oportunas para la progresiva adaptación del sistema de transporte a las necesidades de accesibilidad y movilidad existentes en cada momento. |
| Halaber, garraio-enpresa eragileetako langileei egokia den prestakuntza ematea sustatuko du, mugikortasun murriztua duten bidaiarien beharrei erantzutearren. | Así mismo, promoverá que el personal de las empresas operadoras de transportes reciba la formación adecuada al objeto de responder a las necesidades de las personas viajeras con movilidad reducida. |

| | |
|---|---|
| **8. artikulua.** *Mugikortasun murriztua duten bidaiarien definizioa*<br><br>Jarraian adierazitako pertsonak hartuko dira mugikortasun murriztua duten bidaiaritzat –besteak beste ibilgailuen barruan erreserbatutako plazak eta espazioak erabiltzeko xedez–:<br><br>• Aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak.<br><br>• Zentzumen-zailtasunak (ikusmena, entzumena, mintzamena) eta adimen-zailtasunak dituzten edo garraio-zerbitzu arrunta erabiltzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak.<br><br>• Alderdi antropometrikoak direla kausa, maniobratzeko zailtasunak dituzten pertsonak, eta, hala, espazio guztietara iristeko edo eserlekuak erabiltzeko gaitasun mugatua dutenak.<br><br>• Bihotzeko gaixotasunak edo arnasa-eritasunak nahiz mugitzeko zailtasuna sortzen dieten bestelako gaixotasunak dituzten pertsonak.<br><br>• Adin handikoak direlako lekualdatzeko arazoak dituzten edo autonomiaz lekualdatu ezin diren pertsonak.<br><br>• Haurdun dauden emakumeak edo adingabeekin doazen pertsonak.<br><br>• Gorputz-adar immobilizatu edo igeltsatuta dauzkaten edo makuluak erabiltzen dituzten pertsonak.<br><br>• Mugikortasun funtzionalik ez duten eta lekualdatzeko arazoak dituzten pertsonak. | **Artículo 8.** *Consideración de personas viajeras con movilidad reducida*<br><br>Se considerarán personas viajeras con movilidad reducida a efectos, entre otros, de utilización de plazas y espacios reservados en el interior de los vehículos, los siguientes grupos de personas usuarias:<br><br>• Personas que se desplazan en silla de ruedas.<br><br>• Personas con dificultades de tipo sensorial (visión, audición, habla), intelectual o con importantes dificultades para utilizar un servicio de transporte convencional.<br><br>• Personas que por factores antropométricos tienen dificultad de maniobra que limita su capacidad de acceso a los diferentes espacios o usos de los asientos.<br><br>• Personas con enfermedades cardíacas o respiratorias u otras enfermedades que les dificulte la movilidad.<br><br>• Personas que debido a su avanzada edad tienen problemas para desplazarse o no se pueden desplazar con autonomía.<br><br>• Mujeres en estado de gestación o personas que se desplazan acompañadas de un menor.<br><br>• Personas con miembros inmovilizados, escayolados o con muletas.<br><br>• Personas con ausencia de movilidad funcional, y que presentan problemas para el desplazamiento. |

| | |
|---|---|
| • Oro har, inguruabar pertsonalak direla kausa beren burua edo hirugarrenak arriskuan jarri gabe zutik bidaiatu ezin duten pertsonak. | • En general, las personas que, por sus circunstancias personales, no pueden viajar de pie sin riesgo para sí mismos o para terceros. |
| **9. artikulua.** *Mugikortasun murriztua duten bidaiariak sartu-irtetea* | **Artículo 9.** *Acceso de personas viajeras con movilidad reducida* |
| Mugikortasun murriztua duten bidaiariak sartu eta irteteko orduan, segurtasun osoa bermatu beharko da, ezargarria den araudiaren arabera. | El acceso de las personas viajeras con movilidad reducida deberá realizarse garantizando su máxima seguridad y de acuerdo con la normativa de aplicación. |
| Mugikortasun murriztua duten bidaiariak ibilgailuan sartzeko mailara igo ezin direnean, horren berri emango diote ahoz gidatzen duen langileari, eta gidariak egokiak diren baliabideak erabiliko ditu bidaiari horiek autobusean sartzeko. Halaber, hitz egiteko mugatuta dauden bidaiariek keinu bidez adieraziko diote gidatzen duen langileari. | Las personas viajeras con movilidad reducida que no puedan subir el escalón de acceso al vehículo lo señalarán al personal de conducción verbalmente, el cual facilitará los medios oportunos para facilitar su embarque. Aquellas personas que, además, tuvieran limitaciones en el habla lo señalarán gestualmente al personal de conducción. |
| Mugikortasun murriztua duten bidaiariak ibilgailuan sartu eta bertatik jaitsi ahal izango dira erabiltzen erosoen zaien eta esfortzu fisikorik txikiena egitera behartzen dituen atea erabilita. | Las personas viajeras con movilidad reducida podrán acceder y descender del vehículo por la puerta cuya utilización les proporcione mayor comodidad y les obligue a realizar un menor esfuerzo físico. |
| Mugikortasun murriztua duten bidaiarien aulki gurpildunak sartu eta irteteko, horretarako gaituta dagoen atea erabiliko da, inklinatzeko sistemari eta sartzeko arrapalari edo plataforma jasotzaileari eragin eta gero, eta ibilgailuaren martxaren noranzkoa kontuan hartuta, aurrerantz edo atzerantz begira kokatuko dira, kasuaren arabera, eta balazta jarrita. | Las personas viajeras con movilidad reducida que se desplazan en sillas de ruedas accederán por la puerta habilitada para ello, una vez accionado el sistema de inclinación o arrodillamiento y la rampa o plataforma elevadora de acceso y, situándose hacia delante o hacia atrás, según el caso, respecto del sentido de la marcha del vehículo, con el freno accionado. |
| Autobusei dagokienez, oro har, aulki gurpildun homologatuetan lekualdatzen diren bi pertsona, gehienez ere, sartu ahal izango dira aldi berean ibilgailuan, irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoen arabera. | En el caso de los autobuses, con carácter general, el número máximo de personas que se desplazan en sillas de ruedas homologadas, según las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad, que podrán acceder de forma simultánea al vehículo es de dos. |
| Aulki gurpilduntan lekualdatzen diren pertsonek lehentasuna izango dute ibilgailuan sartzeko orduan, haur-kotxe eta -aulkien edo bizikleten aurretik, betiere horiek jadanik ibilgailuaren barruan ez badaude. | Las personas que se desplazan en sillas de ruedas tendrán preferencia en el acceso al vehículo respecto de los coches y sillas de niños o de las bicicletas, salvo que estas ya se encuentren en el interior del mismo. |
| Mugikortasun murriztua duten | Los elementos auxiliares o de apoyo a las |

| | |
|---|---|
| pertsonentzako elementu lagungarriak edo eustekoak, hala nola taka-takak, behar bezala lotuta egongo dira bidaiatu bitartean. Elementu lagungarriak eramaten dituen pertsona izango da objektuek pertsonei edo ondasunei sor diezazkieketen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada. | personas con movilidad reducida, como por ejemplo los andadores, deberán ser sujetados adecuadamente durante su traslado. Serán responsabilidad de la persona portadora los daños que dichos objetos puedan ocasionar a personas o bienes, salvo que se pruebe la responsabilidad de la empresa operadora de transportes en el daño ocasionado. |
| 10. artikulua. *Ibilgailuan erreserbatuta dauden eserlekuak eta espazioak* | Artículo 10. *Asientos y espacios reservados en el vehículo* |
| Bidaiariek, lehentasunik gabe, askatasunez erabili ahal izango dituzte ibilgailuko eserlekuak, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat berariaz erreserbatutakoak salbu. Erabiltzaileek ezin izango dute inolaz ere eserita bidaiatzeko eskakizuna egin –eskubide hori izango baitute soilik bete gabeko eserlekuak badaude–, ibilbide luzeko zerbitzua ematen duten autobusetan izan ezik. | Los asientos del vehículo serán ocupados libremente por las personas viajeras sin preferencia alguna, excepto los expresamente reservados para personas con movilidad reducida. Las personas usuarias no podrán exigir en ningún caso viajar sentadas, a lo que sólo tendrán derecho habiendo asientos vacíos, salvo en los autobuses que presten el servicio de largo recorrido. |
| Autobusetan, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabil ditzaten, aulki gurpildunetarako bi espazio eta lau eserleku erreserbatuko dira gutxienez, 12 metro arteko luzera duten autobusak direnean, eta sei eserleku, 18 metroko luzera duten autobus artikulatuak direnean. Eserleku horiek sartu-irteteko ateetatik hurbil egongo dira, behar bezala seinaleztatuta eta balidatzaileak, txirrinak eta geldialdi-seinaleak irisgarri izateko moduan. | En los autobuses se reservarán para uso prioritario de personas con movilidad reducida al menos dos espacios para sillas de ruedas y cuatro asientos en los autobuses de hasta 12 metros de longitud y seis asientos en los autobuses articulados de 18 metros de longitud. Estos asientos deberán estar próximos a las puertas de acceso, adecuadamente señalizados y accesibles a las validadoras, a los timbres y a las señales de parada. |
| Mikrobusetan, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabil ditzaten, aulki gurpildunetarako espazio bat eta bi eserleku erreserbatuko dira gutxienez. | En los microbuses se reservarán para uso prioritario de personas con movilidad reducida al menos un espacio para sillas de ruedas y dos asientos para personas con movilidad reducida. |
| Gainerako erabiltzaileek okupatu ahal izango dituzte mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak, betiere pertsona horiek ibilgailuan ez badaude edo, ibilbidean, eserleku horiek eskatzen ez badituzte. Eserlekuetan mugikortasun murriztua duen pertsonaren bati plaza uzten ez dioten bidaiariak eserita badaude, gidariak eskatuko die eserleku erreserbatu horiek erabili behar dituzten bidaiariei uzteko. | Los asientos reservados para personas con movilidad reducida podrán ser ocupados por el resto de personas usuarias cuando tales personas no se hallen en el vehículo o durante el trayecto no sean requeridas por ellas. Si estos estuvieran ocupados por personas que no cedieran la plaza a una persona con movilidad reducida, el personal de conducción requerirá la utilización de estos asientos para las personas para las cuales están reservados. |

| | |
|---|---|
| Ibilbide luzeko zerbitzuetan, eserleku zenbakidunen arabera salmenta-zerbitzua ematen duten garraio-enpresa eragileek mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako plazak erabiltzaileen eskura jarri ahal izango dituzte, bakar-bakarrik, gainerako plazak jadanik erosi direnean. | En los servicios de largo recorrido, las empresas operadoras de transportes que dispongan del servicio de venta por asiento numerado, pondrán a disposición de las personas usuarias las plazas reservadas a personas con movilidad reducida únicamente cuando el resto de las plazas hayan sido adquiridas. |
| Aipatutako zerbitzuetan, bidaiariek errespetatu beharko dute esleitu zaien plaza, tiketean adierazita dagoena. Nolanahi ere, garraio-enpresa eragileko langileek plazaren esleipena aldatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean. | En los referidos servicios, quienes viajen deberán respetar la plaza asignada e indicada en el billete. No obstante lo anterior, el personal de la empresa operadora de transportes podrá modificar la asignación de la plaza realizada por razones debidamente justificadas. |
| Zutik bidaiatzerik onartzen ez den zerbitzuetan, alderdi antropometrikoak direla kausa –aldi baterako edo behin-betikoak izan–, erosotasun- eta segurtasun-baldintza orokorretan lekualdatzeko espazio gehigarria behar duten bidaiariek zerbitzua ematen duen enpresari egoera horren berri eman ahal izango diote, bidaia hasi baino 30 minutu lehenago gutxienez. Modu horretan, garraio-enpresa eragileak erreserbatu ahal izango ditu pertsona horiek bidaiatzeko beharrezkoak diren plazak. | En los servicios en los que no se admite viajar de pie, las personas que por factores antropométricos, sean estos temporales o permanentes, necesiten espacio adicional para que su desplazamiento se realice en condiciones generales de comodidad y seguridad, podrán poner en conocimiento de la prestadora del servicio dicha situación con al menos 30 minutos de antelación al inicio del viaje. De este modo, la empresa operadora de transportes podrá reservar las plazas necesarias para su desplazamiento. |
| **11. artikulua**. *Ibilgailuan espazio erreserbaturik eza* | **Artículo 11.** *Falta de espacio reservado en el vehículo* |
| Ibilbide luzeko zerbitzuetan, garraio-enpresa eragileak zerbitzua antolatu ahal izateko, aulki gurpildunean lekualdatu eta espazio erreserbatu baten erabilera bermatu nahi duten mugikortasun murriztuko bidaiariek enpresa eragileari horren berri eman beharko diote ibilgailua irteteko finkatutako dataren aurreko laneguneko 18:00ak baino lehen. | En los servicios de largo recorrido, con el fin de que la empresa operadora de transportes pueda organizar el servicio, las personas viajeras con movilidad reducida que precisen desplazarse en silla de ruedas y deseen garantizar el uso de un espacio reservado deberán comunicarlo a la empresa operadora antes de las 18:00 horas del día anterior laborable a la fecha fijada para la salida del vehículo. |
| Aipatutako erreserba egin bada eta egitean emandako zenbakiaren bidez egiaztatu bada, eta hala ere garraio-enpresa eragileak ezin badu erreserbatutako plaza edo espazioa eskaini bidaia egiteko orduan, horren ordezko garraiobide bat emango du, eta horren kostua zerbitzuaren titularra den administrazioak hartuko du bere gain. | Si habiéndose realizado la precitada reserva y habiéndose acreditado la misma a través del número facilitado en el momento de su realización, la empresa operadora de transportes no pudiera satisfacer la demanda de plaza o espacio reservado en el momento de la expedición, proporcionará un transporte alternativo cuyo coste será asumido por la |

| | |
|---|---|
| | Administración titular del servicio. |
| Espazio erreserbatua behar duen mugikortasun murriztuko bidaiariak artikulu honetako lehenengo paragrafoan araututa dagoen erreserba egin ez badu eta ibilgailuan bidaiari horrentzat espazio erabilgarririk ez badago, baldintza egokietan artatua izan daitekeen lehenengo zerbitzura bideratu ahal izango da. | En el caso de que una persona viajera con movilidad reducida que precisase de un espacio reservado no hubiera realizado la reserva regulada en el párrafo primero de este artículo y no hubiera espacio disponible habilitado para ella en el vehículo, podrá ser derivada al primer servicio en que pueda ser atendida en condiciones satisfactorias. |
| **12. artikulua**. *Mugikortasun murriztua duten bidaiarien tarifa-araubidea* | **Artículo 12**. *Régimen tarifario de las personas viajeras con movilidad reducida* |
| Mugikortasun murriztua duten bidaiariek gainerako bidaiarien tarifa-araubide bera izango dute, bidaian ibilgailuko zer espazio okupatu behar duten alde batera utzita. | Las personas viajeras con movilidad reducida estarán sometidas al mismo régimen tarifario que el resto de las personas viajeras, con independencia del espacio del vehículo que requieran ocupar durante el transporte. |
| Nolanahi ere, itsuak eta aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak lagunduta egon ahal izango dira eurek aukeratutako pertsona batek, beraien segurtasun eta erosotasuna bermatzeko beharrezkoa den laguntza emateko gai denak; laguntzaile horrek doan bidaiatu ahal izango du, eta itsuen laguntzaile denean, ahal bada, haien ondoan eseriko da. | No obstante lo anterior, las personas invidentes y las personas que se desplazan en sillas de ruedas podrán ir acompañadas por otra persona de su elección capaz de prestarles la asistencia necesaria para garantizar su seguridad y comodidad, que será transportada de forma gratuita, y en el caso de las personas invidentes, de ser viable, se sentará a su lado. |
| Aulki gurpilduna erabiltzen duen bidaiariak hirugarren baten laguntza behar izateari buruz desadostasunak gertatuz gero, gidarien irizpidea nagusituko da "in situ", eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero. | En caso de divergencia sobre la necesidad de asistencia de un tercero por parte de la persona que se desplaza en silla de ruedas, prevalecerá "in situ" el criterio del personal de conducción, sin perjuicio de la devolución del importe del viaje una vez acreditada convenientemente aquella circunstancia. |
| **II. TITULUA. GARRAIO-ZERBITZUA ERABILTZEAN BIDAIARIEK DITUZTEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK** | **TÍTULO II. DE LOS DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS VIAJERAS EN LA UTILIZACIÓN DEL SERVICIO DE TRANSPORTE** |
| **I. KAPITULUA. Bidaiarien eskubideak** | **CAPÍTULO I. De los derechos de las personas viajeras** |
| **13. artikulua**. *Bidaiarien eskubideak* | **Artículo 13**. *Derechos de las personas viajeras* |
| 1. Bidaiariak, erregelamendu honen ezarpen-eremuaren barruan dauden enpresa eragileek emandako garraio-zerbitzuaren jasotzaileak izanik, garraioari buruzko araudi orokorrean ezarritako eta, berariaz, kapitulu honetan zein erregelamendu honetako gainerako xedapenetan eta ezargarriak diren | 1. Las personas viajeras, como destinatarias del servicio de transporte prestado por las empresas operadoras incluidas en el ámbito de aplicación del presente Reglamento, serán titulares de los derechos establecidos por la normativa de transporte de carácter general y específicamente de los incluidos en este |

| | |
|---|---|
| gainontzeko araudietan adierazitako eskubideen titularrak izango dira. | capítulo, así como de los que resulten de las restantes disposiciones de este Reglamento y demás normativa de general aplicación. |
| 2. Bereziki, honakoak dira bidaiarien eskubideak: | 2. En especial, son derechos de las personas viajeras los siguientes: |
| 1. Garraiatuak izatea, eta horretarako behar den eskakizun bakarra baliozkoa den eta, hala badagokio, behar bezala balidatuta dagoen garraio-titulua eramatea. Bidaiariek une bakoitzean indarrean dauden garraio-tituluen artean aukeratu ahal izango dute, indarrean dauden tarifen arabera eta betiere erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betez. Garraiatuak izateko eskubidea erabiltzeko baldintza aukeratutako zerbitzuan plazak egotea da. | 1. Ser transportadas con el solo requisito de portar un título de transporte válido, y en su caso debidamente validado, pudiendo elegir entre los diferentes títulos de transporte en vigor en cada momento, conforme a las tarifas vigentes, y cumpliendo siempre las condiciones establecidas en el presente Reglamento.<br><br>El derecho a ser transportadas está condicionado a la existencia de plazas en el servicio de que se trate. |
| 2. Oro har ezarritako eta programatutako zerbitzu-eskaintzaren baldintzetan garraiatuak izatea, irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalaren printzipioen arabera. | 2. Ser transportadas en las condiciones de oferta de servicio establecidas y programadas con carácter general, conforme a los principios de accesibilidad y movilidad universal. |
| 3. Autobus, autokar, mikrobus, minibus eta taxibusen zirkulazioari atxikitako derrigorrezko aseguruen estalpean garraiatuak izatea, egokiak diren homologazio-arauak betetzen dituzten ibilgailuetan, eta behar bezala prestatuta dauden langileek gidatuak, horretarako gaitzen dituen administrazio-baimena dutela. | 3. Ser transportadas bajo la cobertura de los seguros obligatorios afectos a la circulación de autobuses, autocares, micro-buses, mini-buses y taxi-buses, en vehículos que cumplan las normas de homologación correspondientes, y conducidos por personal adecuadamente formado y en posesión de la autorización administrativa que le habilite para ello. |
| 4. Zerbitzuan dauden tarifa, funtzionamendu eta baldintza zein gorabeherei buruzko informazioa jasotzea, beti irisgarritasun eta mugikortasun unibertsalaren printzipioen arabera. | 4. Ser informadas de las tarifas, del funcionamiento y condiciones del servicio y de sus incidencias, todo ello conforme a los principios de accesibilidad y movilidad universal. |
| 5. Laguntza-txakurrek lagunduta joatea, animalia horiei ezargarri zaien indarreko legerian | 5. Ir acompañadas de perros de asistencia, conforme a lo dispuesto en la legislación vigente que sea de |

| | |
|---|---|
| ezarritakoari jarraituz. | aplicación a dichos animales. |
| 6. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan informazioa erabili eta jasotzea. | 6. Utilizar y recibir información en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| 7. Garraio-enpresa eragileetako langileengandik tratu zuzena jasotzea. Langileek erantzun beharko diete erabiltzaileek zerbitzuarekin zerikusia duten gaietan egiten dituzten laguntza- eta informazio-eskaerei. | 7. Recibir un trato correcto por parte del personal de las empresas operadoras de transportes, que deberá atender las peticiones de ayuda e información que le sean solicitadas por las personas usuarias en asuntos relacionados con el servicio. |
| 8. Ibilgailuan sartzea beren fardel edo ekipajea aldean dutela, betiere gainerako erabiltzaileei edo ibilgailuari eragozpen edo arriskurik sortzen ez badiete, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera. | 8. Acceder con los bultos y equipaje que lleven, siempre que no supongan molestias o peligro para el resto de las personas usuarias o para el vehículo, conforme a lo establecido en este Reglamento. |
| 9. Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea, prestazio horren truke errekargurik ordaindu gabe, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera. | 9. Viajar con coches y sillas de niños sin abonar recargo alguno por dicha prestación, conforme a lo establecido en este Reglamento. |
| 10. Bizikletak eramatea, prestazio horren truke errekargurik ordaindu gabe. Bizikletak barruan edo maletategian soilik eramango dira, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, eta aurretiaz zehaztuko diren linea, geltoki eta ordutegietan, erregelamendu honetako 20. artikuluan ezarritakoaren arabera. | 10. Viajar portando bicicletas, sin abonar recargo alguno por dicha prestación, únicamente en el interior, o bodega, en su caso, de los vehículos que por sus características así lo posibiliten y en las líneas, paradas y horarios que previamente se determinen, conforme a lo establecido en el artículo 20 de este Reglamento. |
| 11. Ibilgailuetan sartzea etxeko animaliek lagunduta, prestazio horren truke inolako errekargurik ordaindu gabe, betiere gainerako erabiltzaileei edo ibilgailuari eragozpen edo arriskurik sortzen ez badiete, erregelamendu honetako 21. artikuluan ezarritakoaren arabera. | 11. Acceder a los vehículos acompañados de animales de compañía, sin abonar recargo alguno por dicha prestación, siempre que no supongan molestias o peligro para el resto de las personas usuarias o para el vehículo, conforme a lo establecido en el artículo 21 de este Reglamento. |
| 12. Garraio-enpresa eragileen ibilgailu guztietan nahiz instalazio finkoetan, une bakoitzean indarrean dagoen erreklamazio-orria eskatu eta | 12. Solicitar y obtener en todos los vehículos y en las instalaciones fijas de las empresas operadoras de transportes, el libro y/u hoja de reclamaciones que en cada momento |

| | |
|---|---|
| eskuratzea, zerbitzua ematearekin zerikusia duen edozein erreklamazio jarri ahal izateko. | esté en vigor, en el que podrán exponer cualquier reclamación relacionada con la prestación del servicio. |
| 13. Bidaiaren zenbatekoaren itzulketa jasotzea, zerbitzua eten egiten bada. | 13. Obtener el reintegro del importe del viaje en caso de suspensión del servicio. |
| 14. Bidaiaren zenbatekoaren itzulketa jasotzea garraio-tiketa aldez aurretik erosi denean, betiere erabiltzailea zerbitzua ematen duen enpresa eragilearen leihatilara bertaratzen bada zerbitzua irten baino 10 minutu lehenago gutxienez, eta dena erregelamendu honetako 22. eta 41. artikuluetan jasotakoaren arabera. | 14. Obtener el reintegro del importe del viaje cuando el título de transporte haya sido adquirido con antelación, siempre que la persona usuaria se persone en la taquilla de la empresa operadora del servicio con una antelación mínima de 10 minutos a la salida del servicio en cuestión, todo ello en los términos de los artículos 22 y 41 del presente Reglamento. |
| 15. Gorabeheraren baten ondorioz ibilgailua baztertu behar bada, bidaia linea berean edo, ezinezkoa bada, antzeko ibilbidea duen beste linea batean jarraitzea. Bidaiariek ez dute ordezko ibilbide hori ordaintzeko beharrik izango, eta irisgarritasun-baldintza egokiak eskainiko zaizkie. | 15. Continuar el viaje en la misma línea o, de no ser posible, en otra de itinerario semejante, en caso de incidencia que provoque la retirada del vehículo. Todo ello sin obligación de pagar este nuevo trayecto alternativo y en condiciones satisfactorias de accesibilidad. |
| 16. Ibilgailuetan aurkitzen diren objektu galduak berreskuratzea, objektu horien jabetza edo edukitza legitimoa egiaztatu eta gero. Objektu horiek garraio-enpresa eragileen bulegoetan edo objektu galduen udal-bulegoetan entregatuko dira, garraio-enpresa eragileetako langileek aurkitutako egoera berean.<br><br>Objektu galduak aurkitu eta bi urtetan egongo dira haien jabetza egiaztatzen duten pertsonen eskura; aldi hori igaro eta gero, objektuak aurkitu zituen erabiltzaileari itzuliko zaizkio edo, ezinezkoa bada, objektuez arduratu zen garraio-enpresa eragileko langileari. Ibilgailu batean objekturen bat galdu duela uste duen edozein bidaiari harremanetan jarri ahal izango da zerbitzua ematen duen garraio-enpresa eragilearekin, objektua berreskuratzeko. | 16. Recuperar los objetos perdidos que sean hallados en los vehículos, previa acreditación de la propiedad o legítima posesión de los mismos. Dichos objetos serán entregados, en el mismo estado en el que fueron encontrados por el personal de las empresas operadoras de transportes, bien en sus propias oficinas o en las correspondientes dependencias municipales de objetos perdidos.<br><br>Los objetos perdidos estarán a disposición de quien acredite ser su dueño, durante dos años desde su hallazgo, transcurridos los cuales serán devueltos a la persona usuaria que los encontró o, en su defecto, a la persona empleada de la operadora del servicio que se hizo cargo de ellos. Toda persona viajera que crea haber extraviado algún objeto en un vehículo podrá comunicarse para su recuperación con la empresa operadora del servicio. |

| | |
|---|---|
| **14. artikulua.** *Garraioaren baldintzak* | **Artículo 14**. *Condiciones del transporte* |
| Erabiltzaileek eskubidea izango dute zerbitzuaren titularra den administrazioak zerbitzua emateko ezarritako eskaintza-baldintzetan garraiatuak izateko. | Las personas usuarias tendrán derecho a ser transportadas en las condiciones de oferta de servicio establecidas por la Administración titular del servicio. |
| **15. artikulua**. *Informazioa* | **Artículo 15.** *Información* |
| Zerbitzuaren titularra den administrazioak zainduko du pertsona guztiek zerbitzu horren ezaugarri, baldintza, funtzionamendu eta tarifei buruzko edo bestelako gorabehera, kexa, iradokizun edo erreklamazioei buruzko informazioa pixkanaka jaso edo kontsultatzeko aukera izatea, edozein formatu irisgarritan, jatorria eta euskarria zein den ere. | La Administración titular del servicio velará por que de forma progresiva, las personas reciban o puedan consultar, la información sobre características, condiciones, funcionamiento y tarifas del referido servicio, así como sobre cualquier otra incidencia, queja, sugerencia o reclamación, en cualquier formato accesible, sea cual sea su origen y soporte. |
| Adierazitako formatu irisgarri eta hautazko horiek honakoak izan daitezke, besteak beste: karaktere handiak, hizkera erraza, braille, teknologia moldagarriaren bidezko komunikazio elektroniko irisgarriak eta audio-zintak edo antzekoak. | Los referidos formatos accesibles y alternativos podrán ser, entre otros, grandes caracteres, lenguaje sencillo, braille, comunicaciones electrónicas accesibles mediante tecnología adaptativa, cintas de audio o similares. |
| Hautazko formatuetako informazio hori ibilgailuetan, instalazio finkoetan, geltokietan, web orrialdeetan edo beste edozein tokitan eman beharko da. | La precitada información en formatos alternativos deberá proporcionarse tanto en los vehículos, instalaciones fijas, paradas, páginas webs como en cualquier otra ubicación. |
| Zerbitzuaren titularra den administrazioak sustatuko du erabiltzaileei ematen zaien informazioa euskaraz eta gaztelaniaz ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere etengabe ematea, garraio-zerbitzua erabiltzen duten atzerritarren eskaerei erantzutearren. | La Administración titular del servicio impulsará que la información a las personas usuarias se ofrezca progresivamente, además de en euskera y castellano, en otros idiomas, al objeto de atender las demandas de las personas extranjeras que acceden al servicio de transporte. |
| **16. artikulua.** *Hizkuntza-politika* | **Artículo 16.** *Política lingüística* |
| **1.** Kapitulu honetan ezarritakoari jarraituz, eta jarraitutasunez, bertan jasotakoaren arabera, bidaiariek, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, hizkuntza-eskubide hauek izango dituzte: | **1.** Con arreglo a lo establecido en el presente capítulo, y conforme a los términos de progresividad que en él se contienen, las personas viajeras tienen los siguientes derechos lingüísticos respecto a la utilización de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| a. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren titularrak diren administrazio | a. Derecho a ser atendidas en la lengua oficial que elijan en sus relaciones con las Administraciones Públicas |

| | |
|---|---|
| publikoekin harremanetan jartzeko aukeratutako hizkuntza ofizialean artatua izateko. | titulares de los servicios públicos de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general. |
| b. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten enpresa eragileekin eta enpresa horien establezimenduekin harremanetan jartzeko orduan, hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea; zerbitzu horietan ari diren langileak bidaiariak artatzeko moduan egon beharko dira, erabiltzen duten hizkuntza ofiziala edozein dela ere. | b. Derecho a usar cualquiera de las lenguas oficiales en sus relaciones con las operadoras de los servicios públicos de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general y sus establecimientos, debiendo el personal empleado en los mismos estar en condiciones de poder atender a las personas viajeras cualquiera que sea la lengua oficial en que se expresen. |
| c. Aukeratzen duten hizkuntza ofizialean, garraio-zerbitzuari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea. | c. Derecho a recibir en la lengua oficial que elijan información sobre el servicio de transporte. |
| d. Hizkuntza ofizialetako edozeinetan erreklamazioak egiteko eskubidea. | d. Derecho a formular reclamaciones en cualquiera de las lenguas oficiales. |
| **2.** Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Kontsumitzaileen Estatutuari jarraituz, bidaiariekin harremanetan jartzeko orduan, bi hizkuntz ofizialen erabilera bermatuta egongo da honakoetan: | **2.** Conforme al Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarias vigente en la Comunidad Autónoma de Euskadi, estará garantizada la presencia de las dos lenguas oficiales en sus relaciones con las personas viajeras en: |
| a. Gipuzkoako lurralde-eremuko establezimenduetan, idazkun, ohar eta, oro har, jendeari zuzendutako komunikazioetan. | a. Los establecimientos del ámbito territorial de Gipuzkoa, en rótulos, avisos y en general comunicaciones dirigidas al público. |
| b. Bidaiariek betetzeko prestatu diren inprimaki edo eredu ofizialetan. | b. Los impresos o modelos oficiales confeccionados para su cumplimentación por las personas viajeras. |
| c. Atxikipen-kontratu, klausula-ereduak dituzten kontratu, kontratu arautu, baldintza orokor eta kontratu horiei lotutako edo kontratuak gauzatzearen ondoriozko dokumentuetan, betiere bidaiariak berariaz aukeratzen ez badu hizkuntz ofizialetako bat erabiltzea. | c. Salvo la opción expresa de la persona viajera a favor de la utilización de una de las dos lenguas oficiales, los contratos de adhesión, los contratos con cláusulas tipo, los contratos normados, las condiciones generales y la documentación que se refiera a los mismos o que se desprenda de la realización de los citados contratos. |

| | |
|---|---|
| d. Bidaiariei berariaz zuzendutako komunikazioak eta, halaber, fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak bi hizkuntzatan idatziko dira, betiere bidaiariak berariaz aukeratzen ez badu bi hizkuntza ofizialetako bat erabiltzea. | d. Las comunicaciones dirigidas a las personas viajeras en particular, así como facturas, presupuestos y documentos análogos deberán redactarse en forma bilingüe, salvo que la persona viajera elija expresamente la utilización de una de las dos lenguas oficiales. |
| e. Bidaiariei zuzendutako garraio-zerbitzuen eskaintza, sustapen eta publizitatean, erabilitako euskarriak edozein izanda ere. | e. La oferta, promoción y publicidad de los servicios de transporte destinados a las personas viajeras, cualesquiera que sean los soportes utilizados. |
| 3. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematen duten enpresa eragileek artikulu honetako 1. eta 2. idatzi-zatietan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte. | 3.- Las empresas operadoras de servicios públicos de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general deberán cumplir, las obligaciones establecidas en los apartados 1 y 2 del presente artículo. |
| **17. artikulua.** *Adintxikikoak garraiatzea* | **Artículo 17.** *Transporte de personas menores de edad* |
| 1. Adingabeek doan bidaiatuko dute; hala ere, doaneko tiketa izenekoa eduki beharko dute, plazak zenbatzeko eta trafikoari buruzko legeriak ezarritako derrigorrezko aseguruen estaldura izateko xedez. | 1. Los menores viajarán de forma gratuita, si bien deberán estar en posesión del título habilitante denominado billete gratuito, a efectos del cómputo de plazas y de la cobertura de los seguros obligatorios establecidos por la legislación de tráfico. |
| Adingabearen adinaren inguruan desadostasunak gertatuz gero, gidarien irizpidea nagusituko da "in situ", eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero. | En caso de divergencia sobre la edad del menor, prevalecerá "in situ" el criterio del personal de conducción, sin perjuicio de la devolución del importe del viaje una vez acreditada convenientemente aquella circunstancia. |
| Adingabeak, une oro, beren segurtasunaren erantzule den pertsona batek lagunduta joan beharko dira. | Los menores deberán ir acompañados en todo momento por una persona que se responsabilice de su seguridad. |
| Heldu bat gehienez ere lau adingabek lagunduta egon ahal izango da. | Una persona adulta podrá ir acompañada, como máximo, de cuatro menores. |

| | |
|---|---|
| 2. 5 eta 18 urte bitarteko bidaiariak ibilgailuan sartzen badira beren segurtasunaren erantzulea den pertsona heldu baten laguntzarik gabe eta tarifa-sistema bateratuko txartel pertsonalizatua (MUGI txartela) eramaten badute, gurasoek edo tutoreek baimendutako adingabetzat hartuko dira ondorio guztietarako, eta, hortaz, euren erantzukizunpean bidaiatuko dute.<br><br>3. Talde antolatuan 5 eta 10 urte bitarteko 5 adingabek baino gehiagok bidaiatzen badute (udalekuak, kanpamenduak, etab.), derrigorrezkoa izango da gutxienez bigarren laguntzaile heldu bat egotea adin horretako 10 lagun arte, eta beste laguntzaile bat gehiago lehenengoak gainditzen dituzten 15 laguneko, ezargarria den indarreko legerian xedatutakoari jarraituz. | 2. Las personas viajeras con una edad comprendida entre los 5 y 18 años que accedan al vehículo sin la compañía de una persona mayor que se responsabilice de su seguridad y sean portadores de la tarjeta del sistema de integración tarifaria personalizada (tarjeta MUGI), serán consideradas menores de edad autorizados por sus progenitores o tutores a todos los efectos y, por lo tanto, viajarán bajo su responsabilidad.<br><br>3. Cuando viajen más de 5 personas con edad comprendida entre los 5 y 10 años en grupo organizado (colonias, campamentos etc.) será obligatorio un mínimo de 2 acompañantes adultos hasta 10 de las personas de tales edades y otro acompañante más por cada 15 personas que sobrepasen los primeros, de conformidad con lo establecido en la legislación vigente de aplicación. |
| 18. artikulua. *Fardelak eta ekipajea*<br><br>1. Bidaiariek, lekualdatzen direnean, pakete edo objektu txikiak edo gainerako eskuko fardelak eramateko eskubidea izango dute, betiere gainerako bidaiariei eragozpenik edo arriskurik sortzen ez badiete eta ibilgailuan dauden plazak murrizten ez badituzte.<br>Oro har, ez da onartuko bidaiariek 100 x 60 x 25 cm-ko neurria gainditzen duten fardel, ekipaje edo bidaia-maletarik eramatea.<br><br>Zutik doazen bidaiariak onartzen diren garraiobideetan, fardel edo ekipaje onargarriak izango dira eskuarki erabili eta onartzen direnak, hala nola erosketako orgak, tolestuta dauden bizikleta tolesgarriak, haur-kotxe eta -aulki tolestuak edo antzekoak, aurreko paragrafoan adierazitako neurriez bestelakoak izan ditzaketenak, dituzten ezaugarrien arabera. | Artículo 18. *Bultos y equipaje*<br><br>1. Las personas viajeras tendrán derecho a portar, en sus desplazamientos, pequeños paquetes u objetos y demás bultos de mano, que no supongan molestias o peligro para otras personas viajeras ni tampoco una disminución de las plazas existentes en el vehículo.<br>Como norma general, no se admitirá que las personas viajeras porten bultos, equipajes o maletas de viaje que tengan una medida superior a 100 x 60 x 25 cm.<br>En los transportes en los que se admitan personas viajeras de pie, se aceptarán como bultos o equipajes los que son comúnmente utilizados y aceptados como pueden ser carros de mano de compra, bicicletas plegables plegadas, coches y sillas de niño plegadas u otros similares, que por sus características podrán tener unas medidas diferentes a las indicadas en |

| | |
|---|---|
| | el párrafo anterior. |
| Nolanahi ere, bidaiariak behar bezala heldu beharko die sartzen dituen fardelei eta ekipajeari, ibilgailura igotzen den unetik hasi eta bertatik irten den arte. | En todo caso, los bultos y equipaje deberán ir debidamente sujetos por la persona viajera que los embarque, desde que esta acceda al vehículo y hasta el momento en el que lo abandone. |
| Ibilgailuko sarrera eta irteeretan, ibiltzeko zonetan, erreserbatutako espazioetan edo gelditzeko orduan eragozpenak sortzen dituzten objektu edo fardelak ezingo dira inolaz ere lurrean utzi. | En ningún caso se podrán depositar en el suelo objetos o bultos que obstaculicen las entradas y salidas del vehículo, las zonas de tránsito, los espacios reservados o la parada. |
| Maletategia duten ibilgailuetan, nahitaezkoa izango da toki hori erabiltzea ibilgailuaren barruan fardelak uzteko erreserbatutako espazioarenak (barruko erretiluak) baino neurri handiagoak dituzten fardelak uzteko, eta doakoa izango da garraio-titulua duen bidaiari bakoitzeko 15 kilo gainditzen ez dituzten ekipajeak garraiatzea. | En los vehículos con bodega será obligatoria su utilización para todo bulto cuyas dimensiones sean superiores al espacio reservado a almacenamiento en el interior del vehículo (bandejas interiores), siendo gratuito el transporte de equipajes que no superen los 15 kilogramos por persona viajera con título de transporte. |
| Fardela edo ekipajea behar bezala paketatuta egongo da ibilgailuko maletategian gordetzeko, hau da, bidaia egitean ekipajearen edukia maletategian barreiatzea edo gainerako fardelak kaltetzea saihesteko moduan. | Para la admisión del bulto o equipaje en la bodega del vehículo, el mismo deberá ser entregado en condiciones de empaquetado que eviten que su contenido pueda esparcirse en el interior de la bodega durante el viaje o pueda dañar el resto de bultos durante el mismo. |
| Istripuen edo bestelako kausen ondorioz ekipajeek kalteak edo galerak pairatzen dituztenean, zerbitzu publikoa ematen duten enpresa eragileen erantzukizuna bidaiarien eskubideei buruz indarrean dagoen legerian ezarritakora mugatuko da, betiere bidaiarientzat berariaz zenbateko handiagoak edo baldintza hobeak adosten ez badira. | La responsabilidad de las empresas operadoras del servicio público por los daños o pérdidas que sufran los equipajes como consecuencia de accidentes u otras causas, salvo que expresamente se pacten unas cuantías o condiciones más favorables para la persona viajera, estará limitada a lo establecido en la legislación vigente sobre los derechos de las personas viajeras. |
| Eskuko fardelak daramatzan bidaiariari egokituko zaio ekipaje hori zaintzea, eta, ondorioz, bidaiari horren kontura izango dira ibilgailuaren barruan egon bitartean ekipajeak paira edo sor ditzakeen kalteak, betiere garraio-enpresa eragilearen erantzukizuna frogatzen ez bada. Frogatuz gero, ezargarriak izango dira indarrean dagoen legeriak ekipajeei dagokienez xedatzen dituen mugak. | La vigilancia de los bultos de mano corresponderá a la persona viajera que los porte y en consecuencia serán de su cuenta los daños que estos puedan sufrir u ocasionar mientras se encuentren a bordo del vehículo, salvo que se pruebe la responsabilidad de la empresa operadora de transportes, en cuyo caso serán de aplicación las limitaciones que la legislación vigente establezca respecto de los equipajes. |
| 2. Zutik bidaiatzea dagoen ibilgailuetan, bidaiariek eskubidea izango dute kirola egin | 2. En los vehículos en los que se pueda viajar de pie, siempre y cuando haya espacio |

| | |
|---|---|
| eta aisialdian erabiltzen diren objektu edo fardelak edo horien antzekoak direnak eta bigarren paragrafoan aurreikusitako neurriak gainditzen dituztenak eramateko (adibidez, surfeko oholak, eskiak, musika-tresnak edota antzekoak), betiere horretarako nahiko espazioa badago, aulki gurpildunak edo kotxe edo haur-aulkiak uzteko erreserbatutako espaziora iristea eragozten ez badute, eta igarotzeko eta sartu-irteteko lekuetan trabarik egiten ez badute, eta halaber, pertsona bakar batek garraiatzeko modukoak badira, bi metroko garaiera gainditzen ez badute, eta dagokien zorroak babestuta badaude. Espazio nahikoaren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da. | suficiente para ello y no limiten el acceso o espacio reservado a las sillas de ruedas y coches y sillas de niños, y no obstaculicen los lugares de tránsito y / o acceso, las personas viajeras tendrán derecho a portar objetos o bultos destinados a la práctica de deporte, ocio o asimilables, de dimensiones superiores a las previstas en el párrafo segundo (vg. tablas de surf, esquís, instrumentos musicales, y/o similares) siempre que puedan ser transportados por una sola persona, no superen los dos metros de altura y vayan protegidos en su correspondiente funda. En caso de controversia sobre la disponibilidad de espacio, prevalecerá el criterio del personal de conducción. |
| Fardela daraman bidaiariak bertikalean mantenduko du, gainerako bidaiariei eragozpenik sortu gabe edota bidaiarien zirkulazioan trabarik egin gabe, bai sartu eta irtetean, bai ibilgailuaren barruan. | La persona viajera que porte el bulto lo mantendrá en posición vertical, sin molestar al resto de personas viajeras y/o impedir la circulación de las mismas, tanto en el embarque y desembarque como en el interior del vehículo. |
| Maletategia duten ibilgailuetan, objektu horiek bertan utziko dira, zorroan behar bezala sartuta. | En los vehículos provistos de bodega, los referidos objetos deberán ir en ella debidamente enfundados. |
| Fardelak eramaten dituen pertsona izango da adierazitako objektuek pertsonei edo ondasunei sor diezazkieketen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-enpresa eragileak erantzukizunik ez duela frogatzen bada. | La persona portadora será responsable de cualquier daño ocasionado por los objetos referidos a personas o bienes, salvo que se pruebe la responsabilidad de la empresa operadora del servicio en el daño ocasionado. |
| **19. artikulua.** *Haur-kotxe eta -aulkiak eramatea* | **Artículo 19.** *Acceso de coches y sillas de niños* |
| Haur-kotxe eta -aulki irekiak onartuak izango dira ibilgailuetan, ibilgailuen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean. | Los coches y las sillas de niños abiertos serán admitidos en todos los vehículos que por sus características así lo posibiliten. |
| Kotxea edo aulkia plataforman utziko da, eta gainerako bidaiariei igarotzea oztopatu gabe kokatuko da. Kotxe edo aulki irekiak lotu beharko dira eta balazta ipinita edukiko dute; adingabea ibilgailua doan martxaren kontrako noranzkora begira egongo da. Kotxea edo aulkia daraman pertsonaren ardura izango da behar bezala kokatzea eta lotzea, adingabearen eta gainerako bidaiarien segurtasuna bermatzeko moduan. Nolanahi ere, kotxea edo aulkia daraman pertsona kotxearen edo aulkiaren ondoan egon | El coche o silla se ubicará en la plataforma y se situará sin dificultar el tránsito del resto de personas. Los coches o sillas abiertos deberán ir sujetos y con el freno accionado, con el menor en sentido contrario al de la marcha del vehículo. Será responsabilidad de la persona que los lleva el situarlos debidamente y asegurarlos, de forma que quede garantizada la seguridad del menor y del resto de personas viajeras. En todo caso, la persona que lo lleva deberá acompañar al coche o silla, sujetándolo en todo momento. |

| | |
|---|---|
| beharko da, eta une oro helduko dio. | |
| Kotxeak eta aulkiak zenbatzeko xedez, haur-kotxe edo aulki bikoitzak edo handiagoak (bikientzat, edo hirukientzat) bi balira bezala zenbatu ahal izango dira, ibilgailuan dagoen espazioaren arabera. | A efectos de cómputo de sillas, los coches y sillas de niños dobles o superiores (gemelares o triples) podrán ser considerados como dos, dependiendo de la disponibilidad de espacio del vehículo. |
| Gehienez ere bi kotxe edota aulki ireki eraman ahal izango dira 18 metro arteko ibilgailuetan, eta bakar bat ibilgailu txiki edo mikrobusetan, betiere aulki gurpildunean lekualdatzen den pertsonarik ez badago ibilgailuan. | El número máximo de coches y/o sillas abiertos será de dos en los vehículos de hasta 18 metros y uno solo en los vehículos reducidos o microbuses, siempre que en el vehículo no viaje ninguna persona que se desplace en silla de ruedas. |
| Ahal dela, haur-kotxe eta -aulki irekiak ibilgailuan sartuko dira horretarako gaituta dagoen atetik, aulki gurpildunak igotzeko arrapalari eragin gabe, baina bai ibilgailua inklinatzeko sistemari. | Los coches y sillas de niños abiertos se introducirán en el vehículo preferiblemente por la puerta habilitada para ello, sin que se accione la rampa para sillas de ruedas pero sí el sistema de inclinación (arrodillamiento) del vehículo. |
| Ibilgailuan haur-kotxe edo -aulkia daramatela sartzen diren bidaiariek, edonola ere, errespetatu beharko dute aulki gurpildunetan lekualdatzen diren erabiltzaileek ibilgailuan sartzeko eta plataforman haientzat dagoen espazioa okupatzeko duten lehentasuna. Haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute, bakar-bakarrik, jadanik ibilgailuaren barruan badaude. | Las personas viajeras que accedan al vehículo con coches o sillas de niños deberán respetar, en todo caso, la preferencia para acceder al vehículo y ocupar el espacio reservado en la plataforma de las personas usuarias que se desplazan en sillas de ruedas. Los coches y sillas de niños sólo tendrán preferencia si ya se encuentran dentro del vehículo. |
| Adingabea garraiatzen ez duten haur-kotxe edo -aulkiak tolestuta eraman beharko dira. Ez da onartuko kotxe do aulki irekirik sartzea, adingabea garraiatzen ez dutenean. Ahal dela, aurreko atetik sartuko dira kotxe edo aulki tolestua daramaten bidaiariak. | Los coches o sillas de niños que no transporten un menor deberán ir plegados. No se permitirá el acceso de coches o sillas abiertos que no porten un menor. El acceso con coches o sillas plegados se realizará preferiblemente por la puerta delantera. |
| Maletategia duten ibilgailuetan, haur-kotxe edo -aulkiak nahitaez sartu beharko dira bertan. | En los vehículos que dispongan de bodega, los coches o sillas de niños deberán ir obligatoriamente en la misma. |
| Ez da errekargurik ordainduko haur-kotxe edo -aulkia eramateagatik, erregelamendu honetako 13.9. artikuluan jasotakoaren arabera. | No se abonará recargo alguno por portar coches o sillas de niños, tal y como se recoge en el artículo 13.9 del presente Reglamento. |
| **20. artikulua.** *Bizikletak eramatea* | **Artículo 20.** *Acceso de bicicletas* |
| 1. Bizikletak onartuko dira, bakar-bakarrik, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, Administrazio bakoitzak bere eskuduntza | 1. Las bicicletas serán admitidas únicamente en los vehículos que por sus características así lo posibiliten y en las líneas, paradas y horarios que previamente determine cada |

| | |
|---|---|
| pean dauden zerbitzuetarako aurrez zehazten dituen linea, geltoki eta ordutegietan. | Administración respecto a los servicios de su competencia. |
| Behar bezala adieraziko da zer geltoki eta lineatan baimenduta dagoen bizikletak daramatzaten pertsonak ibilgailuetan sartzea, eta baita horretarako dauden geldialdi-ordutegiak ere, egokia bada. | Se señalizarán convenientemente las paradas y las líneas donde esté permitido el acceso de personas portando bicicletas a los vehículos, así como las franjas horarias habilitadas para ello, en su caso. |
| Maletategia duten autobusetan, bizikletak bertan utziko dira, dagokien zorroak babestuta. | En los autobuses que dispongan de bodega, las bicicletas deberán ir obligatoriamente en la misma y protegidas por la correspondiente funda. |
| Pertsona bakoitzeko bizikleta bat bakarrik onartuko da. Ibilgailuan, gehienez ere bi bizikleta eraman ahal izango dira aldi berean. Nolanahi ere, aulki gurpildunean lekualdatzen diren pertsonek eta haur-kotxe eta -aulkiek lehentasuna izango dute ibilgailuan sartzeko orduan, bizikleten aurretik, eta ibilgailuak aulki gurpildunean edo haur-kotxe edo -aulkian doan pertsonaren bat garraiatzen duenean ezin izango da bizikletarik sartu. Aitzitik, ibilgailuak bizikleta bat bakarrik garraiatzen badu, aulki gurpildun edo haur-kotxe edo -aulki bat sartu ahal izango da. | Solo se admitirá una única bicicleta por persona. El número máximo de bicicletas que podrán viajar en el vehículo de forma simultánea es de dos. No obstante lo anterior, las personas que se desplacen en silla de ruedas y los coches y sillas de niños tendrán prioridad en el acceso al vehículo respecto de las bicicletas, no pudiendo acceder ninguna bicicleta al vehículo cuando transporte alguna persona en silla de ruedas o de niños. En cambio, una silla de ruedas o coche de niños podrá acceder al vehículo si solo transporta una bicicleta. |
| Edonola ere, bizikletak erdiko atetik sartuko dira, eta plataforman kokatuko dira; bizikleta daraman pertsonak egoki helduko dio, eta beti geratuko da bizikletaren ondoan. | En cualquier caso, las bicicletas accederán por la puerta central y se situarán en la plataforma, sujetadas adecuadamente por las personas responsables de las mismas, que siempre deben permanecer al lado de ellas. |
| 2. Bizikleta tolestuak ibilgailu guztien barruan onartuko dira, ekipajea balira bezala, erregelamendu honetako 18. artikuluan jasotakoari jarraituz. | 2. Las bicicletas plegadas serán admitidas en el interior de todos los vehículos como si de equipaje se tratara, tal y como se recoge en el artículo 18 del presente Reglamento. |
| Bizikleta mota hori guztiz tolestuta egon beharko da erabiltzailea ibilgailuan sartzen den unean. | Este tipo de bicicletas tendrán que estar completamente plegadas en el momento en el que la persona usuaria acceda al vehículo. |
| 3. Ez da errekargurik ordainduko bizikleta eramateagatik, ez kabinan, ez maletategian, erregelamendu honetako 13.10. artikuluan jasotakoaren arabera. | 3. No se abonará recargo alguno por portar bicicletas, ni en cabina ni en bodega, tal y como se recoge en el artículo 13.10 del presente Reglamento. |
| 4. Bizikleta eramaten duen pertsona izango da adierazitako objektuak pertsonei edo ondasunei sor diezazkiekeen kalteen erantzule, betiere egindako kaltean garraio-enpresa eragileak erantzukizunik ez duela | 4. La persona portadora será responsable de cualquier daño ocasionado por el objeto referido a personas o bienes, salvo que se pruebe la responsabilidad de la empresa operadora del servicio en el daño ocasionado. |

| | |
|---|---|
| frogatzen bada. | |
| **21. artikulua.** *Etxeko animaliak eramatea* | **Artículo 21.** *Acceso de animales de compañía* |
| Baimendutako etxeko animaliak onartuko dira ibilgailuen barruan, bakar-bakarrik, autobusen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean, eta erregelamendu honetako eranskinean zehazten diren linea, geltoki eta ordutegietan. | Los animales de compañía autorizados serán admitidos únicamente en el interior de los vehículos que por sus características así lo posibiliten, y en las líneas, paradas y horarios, en su caso, que previamente se determinen en el Anexo al presente Reglamento. |
| Baimendutako animaliak garraiatzeko baldintzak, eta animalia-espezieak eta beren ezaugarriak aipatutako eranskinean adierazitakoak izango dira. | Las condiciones de transporte, especies, y características de los animales autorizados serán los señalados en el referido Anexo. |
| Etxeko animaliek lagunduta bidaiatzea baimenduta dagoen zerbitzuetan, nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dira: | En aquellos servicios en que se autorice viajar con animales de compañía se deberán respetar, en todo caso, las siguientes condiciones: |
| a. Animaliek bidaiatu beharko dute beren ekintzen erantzulea den pertsona batek lagunduta. | a. Los animales deberán viajar acompañados por una persona responsable que responda de sus actos. |
| b. Animaliak, ahal dela, kaiola edo homologatuta dagoen ontzi itxi batean eraman beharko dira, zaintzailearen ondoko eserlekurik okupatu gabe, eta animaliaren usainak edo egiten duen zaratak eragozpenik sortu gabe, edo, oro har, gainerako bidaiarien erosotasuna murriztu gabe. Horren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da. | b. Los animales serán portados preferiblemente dentro de una jaula, receptáculo u otro contenedor homologado cerrado, sin ocupar asiento adicional a su cuidador y sin que produzcan molestias por su olor o ruido, o disminuyan, en general, el confort del resto de las personas viajeras. En caso de controversia al respecto, prevalecerá el criterio del personal de conducción. |
| c. Maletategia duten ibilgailuetan, animaliak derrigorrez garraiatu beharko dira bertan, kaiola edo homologatuta dagoen eta gorotza gorde eta ateratzea ahalbidetzen duen gailua duen ontzi itxi baten barruan. | c. En los vehículos que dispongan de bodega, los animales deberán ir obligatoriamente en la misma, dentro de una jaula, elemento receptáculo u otro contenedor homologado cerrado con dispositivo que permita contener y retirar los excrementos. |
| d. Ontzietan garraiatzen ez diren zakurrek ibilgailuaren plataforman bidaiatu ahal izango dute, betiere baldintza hauek betetzen badira: animalien ezaugarriei egokitutako uhal batez lotuta | d. Los perros que no sean transportados en receptáculos podrán viajar en la plataforma del vehículo siempre que vayan sujetos mediante una correa adecuada a las características |

| | |
|---|---|
| egon behar dira, une oro zaintzailearekin ukipen fisikoa mantendu behar dute, muturrekoa jarrita eraman behar dute, baimendutako albaitari batek emandako osasun-txartela eta erantzukizun zibileko aseguru bat eraman behar dira, eta indarrean dagoen legerian aurreikusitako higiene- eta osasun-egoeran zein segurtasun-baldintzetan egon behar dira. Gidariak animaliaren osasun-txartela eskatu ahal izango du, gutxieneko higiene- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituela sumatzen duenean edo animaliarekin zerikusia duen edozein eztabaida gertatzen denean.<br>Nolanahi ere, adierazitako osasun-txartela eta aseguru-poliza erakustea eskatu ahal izango da, pertsonei edo ondasunei kalte eragiten dien arazoren bat gertatuz gero. | del animal, que lo mantenga en todo momento en contacto físico con su cuidador, provistos de bozal, de la tarjeta sanitaria expedida por un centro veterinario autorizado y de un seguro de responsabilidad civil, en las condiciones higiénico-sanitarias y de seguridad previstas en la legislación vigente. El personal de conducción podrá exigir la cartilla sanitaria del animal cuando existan indicios de que el mismo no cumple las condiciones higiénico-sanitarias mínimas o cuando se suscite cualquier tipo de controversia relacionada con él.<br>En todo caso, será exigible la exhibición de la cartilla sanitaria y de la póliza de seguro precitadas, en caso de incidente que cause daño a las personas o bienes. |
| e. Animaliek ezin izango dute inolaz ere gaueko zerbitzuetan bidaiatu, eta autobusean bustita edo araldian daudenean sartu. | e. En ningún caso podrán viajar animales en servicios nocturnos, acceder mojados ni en periodo de celo. |
| f. Pertsona bakoitzeko animalia bat bakarrik onartuko da. | f. Solo se admitirá un único animal por persona. |
| g. Ibilgailuan, gehienez ere bi animalia eraman ahal izango dira aldi berean. | g. El número máximo de animales que podrá viajar de forma simultánea en un vehículo es de dos. |
| h. Animalia eramaten duena erantzulea izango da animaliak sor ditzakeen kalteen aurrean, betiere hirugarren baten edo garraio-enpresa eragilearen erantzukizuna egiaztatzen ez bada. | h. Serán responsabilidad del portador los daños que el animal pueda ocasionar, salvo responsabilidad acreditada de cualquier tercero o de la empresa operadora de transportes. |
| i. Bidaiariren batek animalia dela-eta eragozpenak jartzen dituen unean (adibidez, erreakzio alergikoak dituelako, edo usain edo zaratagatik), eta animalia horren zaintzailea baino lehen igo bada, animalia eta zaintzailea ibilgailuaren beste leku batera aldatzeko | i. En el momento en el que alguna persona viajera refiera sentirse molestada (vg. reacciones alérgicas, olores o ruidos) por las condiciones de un animal y hubiera embarcado antes que el cuidador de dicho animal, éstos últimos tendrán la obligación de trasladarse a otra |

| | |
|---|---|
| betebeharra izango dute. | zona del vehículo. |
| Artikulu honetan adierazitakotik salbuetsita daude itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak, baldin eta eginkizun horiek betetzeko zentro homologatuek egiaztatuta badaude; hala bada, une oro bidaiatu ahal izango dute laguntzen dioten pertsonaren ondoan, eta ezargarria den araudian ezarritako baldintzetan. | Se exceptúan de todo lo señalado en el presente artículo los perros guías y de asistencia que acrediten estar autorizados para estas funciones por centros homologados, que podrán viajar, en todo momento, junto a la persona que asisten y en las condiciones que se establezcan en la normativa de aplicación. |
| **22. artikulua**. *Ibilbideak etetea eta aldatzea* | **Artículo 22.** *Suspensión y modificación de recorridos* |
| Oro har, obrak, jaiak, ekitaldi bereziak eta abar direla kausa ibilbidea aldatu edo zerbitzua aldi baterako eteten bada, jendearen jakinaren gainean jarri beharko da behar adinako aurrerapenaz, eta horretarako garraio-enpresa eragileen informazio-zutoinak, markesinak eta web orrialdeak erabiliko dira, edo ibilgailuak berak. Informazio hori gorabehera bakoitzaren garrantziaren arabera antolatuko da, eta ahal dela eragindako pertsona gehienei emango zaie horren berri, informazioa eragindako geltoki eta lineetan jarrita. | Con carácter general, las modificaciones de recorrido o suspensiones temporales del servicio por motivo de obras, festejos, eventos especiales, etc., deberán ser puestas en conocimiento público con la máxima antelación posible, utilizando para ello los postes informativos, las marquesinas, las páginas web de las empresas operadoras de transportes o los propios vehículos. Dicha información se articulará en función de la importancia de cada incidencia y se procurará su conocimiento por parte de la generalidad de personas afectadas, dando conocimiento de la misma, en las paradas y líneas afectadas. |
| Tiketaren zenbatekoa itzuliko da, bakar-bakarrik, zerbitzu bat hasi baino lehen eteten bada. Ez da ulertuko zerbitzua eten dela edozein linea ohiko ibilbidetik desbideratzea, edo zerbitzua hasi eta gero gelditzea, garraio-enpresa eragilearenaren borondatezkoak ez diren ezinbesteko arrazoiengatik. | Únicamente procederá la devolución del importe del billete cuando se suspenda un servicio antes de su inicio. No se entenderá como suspensión del servicio la desviación de cualquier línea de su trayecto habitual o la interrupción del mismo una vez iniciado, por causas ajenas a la voluntad de la empresa operadora de transportes. |
| Ibilgailua matxuratu delako zerbitzua eteten bada, zerbitzua ematen duen enpresak prestatu duen eta irisgarritasun-baldintza egokiak dituen beste ibilgailu bat erabili ahal izango dute bertan doazen pertsonek, garraio-titulu bera erabilita eta gidariaren jarraibideen arabera. | Si se suspende el servicio por avería del vehículo, las personas que viajan en él podrán utilizar, con el mismo título de transporte, y siguiendo las instrucciones del personal de conducción, otro vehículo habilitado por la empresa prestataria que reúna condiciones de accesibilidad satisfactorias. |
| Bidaia osatzeko, garraio-enpresa eragilea behartuta egongo da ahalik eta azkarren ibilgailu bat jartzera, eta, egokia bada, matxuratutako ibilgailua dagoen lekutik hurbilen kokatutako basetik ekarriko du berehala, betiere hurrengo zerbitzua ordezko ibilgailua baino lehenago iristeko moduan | La empresa operadora de transportes estará obligada a facilitar a la mayor brevedad posible un vehículo para completar el viaje, incorporándolo en su caso, de forma inmediata desde la base más cercana al lugar donde se encuentra el vehículo averiado, salvo que el posterior servicio esté en |

| | |
|---|---|
| badago eta bete gabeko plazak baditu. Hori dena irisgarritasun-baldintza egokietan egingo da. | condiciones de llegar antes que el vehículo de sustitución y tenga plazas disponibles. Todo ello en condiciones de accesibilidad satisfactorias. |
| Bidaiariek tiketaren zenbatekoa itzultzeko eskubidea erabiltzeko, baliozko garraio-titulua aurkeztu beharko dute, behar bezala balidatua, hala badagokio. | Para hacer uso del derecho a la devolución del importe del billete, las personas viajeras deberán aportar el título de transporte válido y en su caso, debidamente validado. |
| **23. artikulua.** *Atzerakoak ematea* | **Artículo 23.** *Cambio de moneda* |
| Tiketa ibilgailuaren barruan erosten bada, bidaiariek atzerakoak, diru xehean edo diru-paperean, jasotzeko eskubidea izango dute, 20 euro arte, erregelamendu honetako 45. artikuluan xedatutakoari utzi gabe. | En el caso de adquisición de billete a bordo del vehículo, las personas viajeras tienen derecho a que se les proporcione cambio de moneda o billetes hasta la cantidad de 20 euros, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 45 del presente Reglamento. |
| Erabiltzaileak diru xeherik ez duelako bidaia ordaindu ezin badu eta ibilgailua martxan jarri bada, hurrengo geltokian jaitsi beharko da ibilgailutik. | Si la persona usuaria no pudiera abonar el viaje por carecer de cambios y el vehículo hubiera iniciado la marcha, esta deberá abandonar el vehículo en la siguiente parada. |
| **II. KAPITULUA. Bidaiariek bete beharreko baldintza orokorrak** | **CAPÍTULO II. De las condiciones generales que habrán de cumplir las personas viajeras** |
| **24. artikulua.** *Bidaiarien betebeharrak* | **Artículo 24.** *Obligaciones de las personas viajeras* |
| Bidaiariek betebehar hauek izango dituzte beti: | Las personas viajeras deberán, en cualquier caso: |
| a. Baliozko garraio-titulua eramatea, eta, tarifa-sistema bateratuari dagokionez, behar bezala balidatua, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera; bidaiariak garraio-titulua gorde beharko du ibilbide osoan, eta zerbitzua ematen duen enpresako langileen eskura zein zerbitzuaren titularra den administrazioko ikuskatzaileen eskura.<br>b. Garraio-enpresa eragileetako langileen jarraibideak betetzea, zerbitzuari eta horren gorabeherei lotutako gaietan.<br>c. Instalazio eta ibilgailuetan agerian jarritako horma-irudi | a. Portar título de transporte válido y, en el caso del sistema de integración tarifaria, debidamente validado, en los términos establecidos en el presente Reglamento, debiendo conservarlo en su poder durante todo el trayecto y a disposición del personal de la empresa prestataria y personal de inspección de la Administración titular del servicio.<br>b. Seguir las indicaciones del personal de las empresas operadoras de transportes en aquellos temas relacionados con el servicio y sus incidencias.<br>c. Respetar lo dispuesto en los carteles o recomendaciones |

| | |
|---|---|
| edo gomendioetan jasotakoa errespetatzea, eta ez egitea gainerako bidaiarientzat edo garraio-enpresako langileentzat eragozpena den edozein ekintza. | colocados a la vista en instalaciones y vehículos, así como abstenerse de realizar cualquier acción que suponga una molestia para las demás personas viajeras o personal de la empresa prestataria del servicio. |
| d. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat erreserbatutako eserlekuak eta espazioak errespetatzea. | d. Respetar las reservas de asiento y espacio para personas con movilidad reducida. |
| e. Ibilgailuetan sartzea horretarako dauden ateetatik, eta ibilgailuen barruan gainerako bidaiarien zirkulazioa erraztea. Halaber, tiketa erosi edo garraio-txartela balidatu eta gero, irteteko ateetatik hurbil kokatuko dira ahal dela, ibilgailuan sartu nahi duten pertsonei sarbidea utzita. | e. Acceder a los vehículos por las puertas destinadas al efecto, facilitando la circulación de las demás personas viajeras en el interior de los mismos. Procurarán además, tras adquirir el billete o validar el título de transporte, situarse en las proximidades de las puertas de salida, facilitando el acceso de las personas que quieran embarcar en el vehículo. |
| f. Ibilgailura igotzea geltokian geldirik dagoenean, bakoitzari dagokion txanda errespetatuz, geltokira iritsi diren ordenaren arabera. | f. Subir al vehículo, cuando este se encuentre detenido en la parada, respetando el turno que le corresponda según el orden de llegada a la misma. |
| g. Ibilgailutik jaistea finkatutako geltokietan, era ordenatuan, eta beti linea-amaierako geltokian. | g. Descender del vehículo, de manera ordenada, en las paradas establecidas y siempre en la de final de línea. |
| h. Ibilgailua gelditzeko eskaera behar adinako aurrerapenaz egitea, bertatik irten edo bertan sartzeko. | h. Solicitar con antelación suficiente la parada del vehículo para ascender o descender del mismo. |
| i. Segurtasun-uhalak nahitaez erabiltzea, uhalez hornituta dauden ibilgailuetan, betiere, bideko segurtasunari buruzko araudiari jarraituz, bidaiariak salbuetsita ez badaude. | i. Utilizar obligatoriamente los cinturones de seguridad, en aquellos vehículos que los porten, salvo que conforme a la normativa de seguridad vial estén exentas de la referida obligación. |
| j. Eserleku osagarriak tolestea hala behar denean, adibidez, pertsonak igaro eta mugitzea zein horien erosotasuna galarazten dituzten jende-pilaketak daudenean. | j. Plegar los asientos auxiliares, en aquellas circunstancias que así lo aconsejen, tales como aglomeraciones que dificulten el tránsito y la movilidad de las personas o limiten su comodidad. |
| k. Higiene- eta osasun-egoera gainerako bidaiariei edo gidariei kutsatu edo eragozpenik | k. Encontrarse en unas condiciones higiénico-sanitarias que eviten cualquier tipo de |

| | |
|---|---|
| sortzeko arriskuan (adibidez, usainengatik) ez jartzeko modukoa izatea. | riesgo de contagio o de incomodidad (vg. por olores) al resto de personas viajeras o personal de conducción. |
| l. Zerbitzuak, ibilgailuak eta geltokiak gaizki erabiltzearen ondorioz edo ondasunak gaizki kokatzearen ondorioz, zerbitzuari atxikitako elementuetan edo gainerako bidaiariei sortutako kalteen aurrean erantzutea. | l. Responder de los daños que una incorrecta utilización de los servicios, de los vehículos y las paradas o la imprudente ubicación de sus bienes ocasionen en los elementos afectos al servicio o al resto de personas viajeras. |
| m. Bidaiarien artean, zerbitzuarekin zerikusia duten arrazoiengatik eztabaida sortuz gero (leihoak ireki eta ixtea, aire girotuko gailuen funtzionamendua, etxeko animaliak sartzea, etab.), gidarien irizpideak lehentasuna duela onartzea. | m. Aceptar que prevalezca el criterio del personal de conducción, en caso de que se produzcan discrepancias entre las personas viajeras por cuestiones relativas al servicio (apertura y cierre de ventanas, funcionamiento de dispositivos de aire acondicionado, acceso de animales de compañía, etcétera). |
| 25. artikulua. *Debekuak erabiltzaileentzat* | Artículo 25. *Prohibiciones para las personas usuarias* |
| a. Ibilgailura igotzea, gidariak ohartarazi duenean ibilgailua guztiz okupatuta dagoela. | a. Acceder al vehículo cuando el personal de conducción les haya advertido de que se ha completado la ocupación del vehículo. |
| b. Bidaiatzeko prestatuta ez dauden lekuetan bidaiatzea. | b. Viajar en los sitios no habilitados para ello. |
| c. Erregelamendu honetako 18. artikuluan adierazitakoez bestelako fardelak eramatea. | c. Portar bultos diferentes de los señalados en el artículo 18 del presente Reglamento. |
| d. Hainbat objektu eramatea, adibidez, beren izaera dela kausa, bidaiariei zuzenean edo zeharka, edo kanpoko alderdiekin batera, eragozpenak sor diezazkieketen objektuak, eta pertsonen osotasun fisikoa edo osasuna arriskuan jarri nahiz ibilgailuan edo garraio-zerbitzuan kalteak sor ditzaketenak.<br>Bereziki debekatuta dago materia leherkorrak, sukoiak, korrosiboak, erradioaktiboak, pozoitsuak, toxikoak, kutsagarriak edo antzekoak | d. Portar objetos que por su naturaleza, bien sea de modo directo, indirecto o en combinación con factores externos, puedan generar molestias a las personas viajeras, poner en peligro la integridad física o la salud de las personas, y/o generar daños al vehículo o al servicio de transporte.<br>Especialmente se prohíbe el acceso y/o transportar materias explosivas, inflamables, corrosivas, radioactivas, venenosas, tóxicas, |

| | |
|---|---|
| sartzea edota garraiatzea.<br>e. Ibilgailuan arriskutsuak izan daitezkeen animaliekin sartzea.<br>f. Ibilgailuan patinak ipinita sartzea.<br>g. Ibilgailuen barrualde edo kanpoaldean edo geltokietan idatzi, margotu, zikindu edo hondatzea edozein modutan.<br>h. Paskinak, liburuxkak eta edozein propaganda edo publizitate mota banatzea ibilgailuen barruan.<br>i. Ibilgailuen barruan eskean aritzea.<br>j. Irratiak, soinua erreproduzitzeko edo komunikatzeko gailuak, gailu elektronikoak edo antzekoak erabiltzea beste bidaiariek edo gidariak entzuteko modukoa den eta gogaikarria izan daitekeen bolumena dutenean. Horren inguruko eztabaida sortzen bada, gidariaren irizpidea nagusituko da.<br>k. Nabarmen hordituta edo estupefazienteen eraginpean sartzea, zerbitzuaren ohiko funtzionamendua galarazteko moduan.<br>l. Ibilgailuen barruan erretzea eta droga toxikoak, estupefazienteak edo edari alkoholdunak kontsumitzea.<br>m. Ibilgailuaren barruan edozein elikagai edo edari jan eta edatea, lekuan ohikoak direnak izan ezik, ibilgailuetako segurtasun- edo garbitasun-egoeraren aldaketa edo gainerako erabiltzaileentzat eragozpenak sor ditzaketenean.<br>n. Ibilgailuko leihatiletatik objektuak jaurtitzea edo gorputz-atalak ateratzea.<br>o. Gidariekin hitz egitea, zerbitzuarekin zerikusia duten beharrengatik ez bada; edo, justifikatutako kausarik gabe, ibilgailua martxan dagoela | contaminantes o similares.<br>e. Acceder al vehículo con animales potencialmente peligrosos.<br>f. Acceder al vehículo calzado con patines.<br>g. Escribir, pintar, ensuciar o deteriorar en cualquier forma el interior o exterior de los vehículos o las paradas.<br>h. Distribuir pasquines, folletos y cualquier clase de propaganda o publicidad, dentro de los vehículos.<br>i. Practicar la mendicidad dentro de los vehículos.<br>j. Utilizar radios, aparatos de reproducción de sonido o de comunicación, dispositivos electrónicos o similares con un volumen audible para otras personas viajeras o el personal de conducción y que pueda resultar molesto. En caso de discrepancia se impondrá el criterio del personal de conducción.<br>k. Acceder en estado manifiesto de embriaguez o bajo los efectos de estupefacientes que pueda alterar el normal funcionamiento del servicio.<br>l. Fumar, consumir drogas tóxicas, estupefacientes o bebidas alcohólicas, dentro de los vehículos.<br>m. Comer y beber dentro de los vehículos cualquier alimento o bebida, salvo los que sean habituales por costumbre del lugar, que puedan suponer una alteración de las condiciones de seguridad o limpieza de los mismos o pueda generar molestias al resto de personas usuarias.<br>n. Arrojar o asomar objetos o partes del cuerpo por las ventanillas del vehículo.<br>o. Hablar al personal de conducción, salvo por razones de necesidad relacionadas con el servicio, o realizar sin causa justificada cualquier acto que |

| | |
|---|---|
| gidatzean arreta galarazi edo eragozpenak sortzen dituen edozein ekintza burutzea. | distraiga o entorpezca la conducción mientras el vehículo esté en marcha. |
| p. Ibilgailutik jaistea edo bertara igotzea finkatutako geltokietatik kanpo edo ibilgailua mugitzen ari dela, justifikatutako kausarik gabe. | p. Abandonar o acceder al vehículo fuera de las paradas establecidas o mientras este se encuentra en movimiento, sin causa justificada. |
| q. Zutik bidaiatzea horretarako berariaz jarrita dauden segurtasun-gailuei behar bezala helduta edo lotuta egon gabe. | q. Ir de pie sin estar convenientemente asido y sujeto a los dispositivos de seguridad a tal efecto dispuestos. |
| r. Ibilgailuaren barruan, ibilgailua zirkulatzen ari dela barra edo heldulekuei behar bezala heldu gabe ibiltzea, balaztatu behar denean edo trafikoaren ondorioz edozein gorabehera gertatzen denean norberaren edo gainerako erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan jarriz. | r. Deambular por el interior del vehículo estando este en circulación sin asirse adecuadamente a las barras o asideros, poniendo en peligro su integridad física o la del resto de personas usuarias en caso de frenada o cualquier incidencia derivada del tráfico. |
| s. Ibilgailuan dagoen edozein segurtasun- edo laguntza-mekanismo justifikatutako kausarik gabe erabiltzea. | s. Hacer uso sin causa justificada de cualquiera de los mecanismos de seguridad o socorro que disponga el vehículo. |
| t. Ateak ireki eta ixteko mekanismoak manipulatzea edo indarrez erabiltzea. | t. Manipular o forzar los mecanismos de apertura y cierre de puertas. |
| Goian jasotako xedapenak urratzen dituen edonori ibilgailuan sartzea debekatuko zaio, edo, bidezkoa bada, ibilgailutik irteteko aginduko zaio, tiketaren zenbatekoa itzultzeko eskubiderik gabe. | No se permitirá la entrada o, en su caso, se ordenará la salida del vehículo, sin derecho a la devolución del importe del billete, a toda persona que infrinja las disposiciones precitadas. |
| Gidariak ibilgailuan sartu nahi duten eta erregelamendu honetan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez duten pertsonei jakinaraziko die bertan sartzea debekatua dutela, eta baldintzak bete ala bidaiatzeko asmoa alde batera uzteko eskatuko die. Berdin jokatuko du gorabehera gertatzen bada pertsona ibilgailuaren barruan dagoela; horrelakoetan, erregelamenduan ezarritakoa betetzeko eskatuko dio, edo, hala egiten ez badu, hurrengo geltokian ibilgailutik jaisteko. | El personal de conducción comunicará la prohibición de acceso al vehículo a todas aquellas personas que pretendan acceder al mismo incumpliendo alguna de las condiciones establecidas en el presente Reglamento, requiriéndoles para que cumplan las mismas o cesen en su pretensión de viajar. Del mismo modo actuará, si el incidente se produjera una vez la persona usuaria se encuentre dentro del vehículo, requiriéndole en este caso, para que cumpla con lo establecido en el Reglamento o, en caso contrario, descienda del vehículo en la siguiente parada. |
| Erabiltzaileak bere jokaera mantentzen badu eta gidariaren eskaerari jaramonik egiten ez | De persistir la persona usuaria en su proceder, desatendiendo las indicaciones del personal |

| | |
|---|---|
| badio, gidariak berehala emango die horren berri ikuskapen-zerbitzuei edo agintaritza-agenteei, garraio-enpresa eragilearen langilearen oharpenei kasurik ez egiteagatik salaketa jar dezaten, edota, bestela, aurpegiratutako egintzagatik egokia den salaketa jar dezaten. | de conducción, este lo notificará inmediatamente a los servicios de inspección o a los agentes de la autoridad, al objeto de que formulen la correspondiente denuncia por desatender las indicaciones del personal de la empresa operadora de transportes y/o, en su caso, la que corresponda por el hecho recriminado. |
| III. TITULUA. GARRAIO-ENPRESA ERAGILEEN BETEBEHARRAK | TITULO III. OBLIGACIONES DE LAS EMPRESAS OPERADORAS DE TRANSPORTE |
| **26. artikulua.** *Informazioa* | **Artículo 26**. *Información* |
| Garraio-enpresa eragilea arduratuko da garraio-zerbitzua emateak dituen ezaugarriei eta zerbitzuaren garapenean eragina duten gorabeherei buruzko informazioa emateaz. Informazio hori pertsona guztiek eskuratzeko moduan eskaini beharko da. | La empresa operadora de transportes se ocupará de informar sobre las características de la prestación del servicio de transporte, así como de las incidencias que afecten a su desarrollo. Esta información se deberá proporcionar de manera accesible para todas las personas. |
| Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak eta zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazioak, bakoitzaren eskumenen eremuan, zaindu egingo dute betebehar hori pixkanaka gara dadin. | La Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa y la Administración titular de cada servicio, en el ámbito de sus respectivas competencias, velarán para asegurar el progresivo desarrollo de esta obligación. |
| Ibilgailuetan, une oro indarrean dauden tarifak ikusgai egongo dira, eta, era berean, erregelamendu honetan baliozko garraio-titulurik ez duen edo behar bezala balidatuta ez daukaten bidaiarientzat aurreikusita dagoen tarifaren aparteko errekargua adieraziko da. | En los vehículos figurarán expuestas las tarifas vigentes en cada momento, así como el importe del Recargo Extraordinario de carácter tarifario previsto en el presente Reglamento para las personas viajeras que carezcan de título de transporte válido y en su caso, debidamente validado. |
| Halaber, erregelamendu honetako xedapenen laburpen bat jarriko da ibilgailuetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko Baldintza Orokorren laburpenarekin batera. | Además, en los vehículos se expondrá un extracto de las disposiciones del presente Reglamento y de las Condiciones Generales de Contratación y Utilización del sistema de integración tarifaria en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. |
| Horrez gain, garraio-enpresa eragileek erabiltzaileari jakinaraziko diete erreklamazio-liburua edota erreklamazio-orriak badaudela. | Así mismo, las empresas operadoras de transportes informarán a las personas usuarias de la existencia de Libro y/u Hojas de Reclamaciones. |
| **27. artikulua.** *Geldialdiak* | **Artículo 27.** *Paradas* |

| | |
|---|---|
| Geldialdiak terminalak edo eskatutakoak izan daitezke.<br><br>Lineako geldialdi terminalak, edo ibilbidearen bukaerakoak, derrigorrezkoak izango dira, eta ordutegiak erregularizatzeko baliatuko dira.<br><br>Eskatutako geldialdiak dira ibilgailua bidaiariak sartu eta irteteko beharrezkoa den denboran soilik gelditzen den aldiak, ibilgailuaren barruan txirrina sakatuta geldialdia eskatu delako, edo gidariak geltokitik igarotzean eta martxa moteltzean ikusi duelako bertan bidaiariak badaudela eskua altxatua, ibilgailuan sartu nahi dutela adieraziz horrela.<br><br>Linea, ordutegi eta maiztasunak, behar bezala eguneratuak, bidaiarien eskura egongo dira beti geltokietan –haien ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean–, garraio-enpresa eragileen bulegoetan, eta web orrialdeetan. Informazioaren barruan, nolanahi ere, lehenengo eta azken zerbitzuaren hasierako ordutegia eta bidaien maiztasunak egongo dira. Maiztasuna 20 minutukoa edo hortik gorako tartekoa bada, abiaburuko irteera-ordutegi zehatzak adierazi ahal izango dira.<br><br>Garraio-enpresa eragileak informazio hori etengabe zabalduko du, linea bakoitzaren ezaugarrien arabera, sarearen planoak edo beste edozein informazio osagarri emanda, eta horretarako, zerbitzuaren titularra den administrazioaren edo Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren lankidetza eskatuko du, erakunde horien eskumenak kontuan hartuta.<br><br>Garraio-enpresa eragileak behartuta daude ezarritako irteera-ordutegiak eta maiztasunak betetzera. Eskatutako geldialdietarako adierazitako maiztasun eta ordutegiak orientaziokoak dira, eta, besteak beste, trafikoaren edo klimatologiaren inguruabar txarrek eraginda suerta daitezke. Enpresaren kalitate-irizpideen barruan, finkatutako maiztasunak betetzeko baliabideak ezarri beharko dira, edo, egokia bada, ibilgailuak ibilbideko geltoki batetik ez igarotzeko iragarritako ordua baino lehen. | Las paradas podrán ser terminales o discrecionales.<br><br>Las paradas terminales de línea o de final de trayecto serán obligatorias y servirán para la regularización de horarios.<br><br>Las paradas discrecionales son aquellas en las que el vehículo parará solo el tiempo necesario para el acceso y bajada de personas viajeras, cuando desde el interior del vehículo se haya solicitado la parada pulsando el timbre de llamada o el personal de conducción observe, al pasar por la parada y aminorar la marcha, que hay personas situadas en la misma solicitando subir al vehículo alzando la mano.<br><br>Las líneas, horarios y frecuencias, debidamente actualizados, estarán siempre a disposición de las personas en las paradas en que por sus características sea posible, en las oficinas de las empresas operadoras de transportes así como en sus páginas web. La información comprenderá, en todo caso, el horario de inicio del primer y último servicio y las frecuencias de prestación. Si esta frecuencia fuera a intervalos iguales o mayores de 20 minutos se podrán indicar los horarios concretos de salida de cabecera.<br><br>En función de las características de cada línea, la empresa operadora de transportes ampliará progresivamente esta información con planos de la red o con cualquier otro tipo de información adicional, recabando la colaboración de la Administración titular del servicio o de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, en el ámbito de sus competencias.<br><br>Las empresas operadoras de transportes están obligadas a respetar los horarios de salida y frecuencias establecidos. Las frecuencias y horarios señalados para las paradas discrecionales son orientativos y pueden resultar afectados, entre otras causas, por las circunstancias adversas del tráfico o climatología. Dentro de los criterios de calidad de la empresa deberán establecerse los medios para respetar las frecuencias establecidas o, en su caso, que ningún vehículo pase por una parada discrecional |

| | |
|---|---|
| | antes de la hora anunciada. |
| Zerbitzuen ordutegia eta maiztasuna zehazteko xedez, ibilgailuen barruan sartu diren ekipo eta informazio-panel guztiak sinkronizatuta egongo dira doitasun handiko denbora errealeko erloju baten bidez; erloju hori, halaber, sistemarekin sinkronizatuta egongo da, GPSko NMEA protokoloko bilbeen bitartez. Erloju hori izango da ordutegiak era ofizialean markatuko dituena. | A efectos de determinación de la hora y frecuencia de los servicios, todos los equipos embarcados en los vehículos y los paneles informativos estarán sincronizados mediante un reloj de tiempo real de alta precisión que se encontrará, a su vez, sincronizado con el resto del sistema a través de las tramas de protocolo NMEA de GPS. El referido reloj será el que de forma oficial marcará los horarios. |
| 28. artikulua. *Ibilgailuak geltokietan aparkatzea* | Artículo 28. *Estacionamiento de vehículos en las paradas* |
| Hainbat lineak partekatzen dituzten geltokietan, bi ibilgailu edo gehiago elkartzen direnean, ulertuko da geltokira iritsi den bigarren ibilgailua, lehenengoaz gain, bidaiariak sartu eta irtetea onartzeko arauzko lekuan dagoela. | En las paradas comunes a varias líneas, cuando coincidan dos o más vehículos, se entenderá que el segundo vehículo en llegar a la parada, además del primero, se halla en posición reglamentaria de admitir la subida y bajada de personas. |
| Hirugarren edo laugarren dauden ibilgailuetako gidariek ez dituzte ateak irekiko, harik eta lehenengo lekura (geltoki-seinalearen parean) edo bigarrenera (atzetik datozen autobusetakoren batek bertan jarraitzen badu) iritsi arte. Ibilgailua bigarren lekuan gelditzen denean, gidariak egiaztatu beharko du geltokian ibilgailura igo gabe geratu den inor ez dagoela. | Quienes conduzcan los vehículos situados en tercera o cuarta posición no deberán abrir las puertas hasta alcanzar la primera posición a la altura de la señal de parada o la segunda si permanece uno de los autobuses que le preceden. En los casos en los que el vehículo realice la parada en segundo lugar, el personal de conducción deberá cerciorarse de que no quedan personas en la parada sin poder subir al vehículo. |
| Ibilbideko geltokietan egiten den geldialdia bidaiariak sartu-irteteko beharrezkoa dena soilik izango da. | La detención en las paradas discrecionales será la estrictamente necesaria para permitir la subida y bajada de personas. |
| Geltoki terminaletan aparkatzen denean (gidariek atsedena hartzeko arauzko denboran eta ibilgailua iristen denetik ezarritako ordutegiaren arabera irten den arteko tartean salbu), sartzeko ateak irekita egongo dira, bidaiariak sartu ahal izateko. | Durante el estacionamiento en las paradas terminales, salvo el periodo reglamentario de descanso del personal de conducción, y en el plazo de tiempo que transcurre entre la llegada del vehículo y la salida del mismo conforme al horario estipulado, las puertas de acceso permanecerán abiertas para permitir la entrada de personas. |
| Adierazitako geltokietan, aparkaldia lau minututik gorakoa izango dela aurreikusten bada, gidariak ibilgailuaren motorra geldituko du, eta martxan jarriko du irten baino minutu bat lehenago. Geltokian motorra gelditzeko beharra betetzeko adierazitako lau minutuko denbora erreferentzia-esparrua da; motorra | En las referidas paradas, si se prevé que el estacionamiento sea superior a los cuatro minutos, quien conduzca parará el motor del vehículo, poniéndolo en marcha un minuto antes de la salida. El tiempo indicado de cuatro minutos como obligación de detener el motor en una parada es un marco de |

| | |
|---|---|
| geldialdi luzeetan gelditzeko betebehar moduan ulertu behar da, bidaiari-lekua girotzeko beharrezkoa den aldia alde batera utzita. | referencia y deberá entenderse como la obligatoriedad de parar el motor en las paradas prolongadas, salvo el periodo necesario para la climatización del habitáculo de personas viajeras. |
| Segurtasun-arrazoiak direla medio, debekatuta dago bidaiariak geltokitik kanpo sartu edo irtetea, ezinbesteko kasuetan izan ezik, baldin eta egokiak diren baldintzak badaude eta ibilgailuaren barruan zein hortik kanpo dauden erabiltzaileentzat arriskurik sortzen ez bada. Paragrafo honetan araututakoa ez zaio ezarriko ekitaldi berezietan baimendutako geltokien araubideari. | Por motivos de seguridad, se prohíbe el acceso o salida de personas viajeras fuera de parada, salvo casos de fuerza mayor, siempre que se den las condiciones adecuadas y ello no implique riesgo para las personas usuarias que se encuentren tanto en el interior como en el exterior del vehículo. Lo regulado en el presente párrafo no es aplicable al régimen de las paradas autorizadas para eventos especiales. |
| 29. artikulua. *Ibilgailuak* | Artículo 29. *Vehículos* |
| Garraio publikoko zerbitzuari atxikitako ibilgailuak identifikatuta egongo dira zerbitzuaren titularra den administrazioaren irudi korporatiboaren bidez, betiere horren aurka behar bezala arrazoitutako kausarik ez badago. | Los vehículos adscritos al servicio de transporte público deberán estar identificados mediante la imagen corporativa de la Administración titular del servicio, salvo causas debidamente justificadas. |
| Horrez gain, ibilgailuek emakida-tituluan edo zerbitzuaren baldintzak arautzen dituen agirian ezarritako identifikazio-elementuak izango dituzte, bai kanpoan, bai barruan. | Adicionalmente, los vehículos portarán, tanto en su exterior como en su interior, los elementos de identificación que estén establecidos en el Título concesional o documento que regula las condiciones del servicio. |
| 30. artikulua. *Tarifak eta garraio-tituluak erabiltzeko baldintzak aldatzea* | Artículo 30. *Cambio de tarifas y de las condiciones de utilización de los títulos de transporte* |
| Tarifak, titulu motak edo horiek erabiltzeko baldintzak aldatzea baimentzen denean, horren berri emango zaie bidaiariei bere garaian. | Cuando se autorice un cambio de tarifas, de los tipos de títulos o de sus condiciones de utilización, se anunciará oportunamente a las personas viajeras. |
| Txartelen balioaren muga-eguna iritsi baino lehen agortu ez diren baliozko txartelak aldatzea baimentzen bada, ibilgailu guztietan jarriko da horri buruzko informazioa. | En el caso de que se autorice el canje de los títulos válidos que no hayan sido agotados antes de la fecha límite de su validez, se informará en todos los vehículos de dicha circunstancia<br>. |
| 31. artikulua. *Publizitatea ibilgailuetan* | Artículo 31. *Publicidad en los vehículos* |
| Zerbitzuaren titularra den administrazioak ibilgailuen barrualdean zein kanpoaldean publizitatea onartzeko edo debekatzeko | La Administración titular del servicio podrá establecer la posibilidad de admitir o prohibir la publicidad en los vehículos, tanto interior |

| | |
|---|---|
| aukera ezarri ahal izango du, eta, nolanahi ere, egokia den irudi korporatiboa errespetatuko da.<br><br>Publizitatea ez da trabarik izango ibilgailuak garraio publikoko ibilgailu moduan identifikatzeko. Ez du eraginik izango gidariek ikus-espazioetan, eta ez da baimenduko, inolaz ere, publizitatea ibilgailuaren aurrealdean jartzea.<br><br>Publizitatearen edukiek Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen legeria beteko dute, eta bereziki emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari zein droga-mendekotasunaren prebentzioari buruzkoa.<br><br>32. artikulua. *Higiene- eta erosotasun-baldintzak*<br><br>Bai ibilgailuak, bai zerbitzua emateko garraio-enpresa eragileek erabiltzaileei arreta emateko erabilitako instalazio finkoak egoera onean mantenduko dira, bidaiariek osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokietan erabili ahal izateko moduan.<br><br>Gidariek komunikaziorako eta soinua erreproduzitzeko gailuak zein irratiak erabiltzen dituztenean, erabiltzaileak ez gogaitzeko moduko bolumenean jarriko dituzte. Nolanahi ere, gogaikarritzat hartuko da 55 LAeq (dB)-tik gorako muga-balioa, ibilgailuko kabinaren barruan neurtuta, ateak eta leihoak itxita daudela.<br><br>33. artikulua. *Ibilgailuen garbiketa eta mantentzea*<br><br>Ibilgailuei, zerbitzuan hasi baino lehen, aurreko artikuluan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren aldizkako garbiketak egingo zaizkie; era berean, ibilgailuak desinfektatu eta bertako intsektuak hilko dira, ezargarria den araudian xedatutako epeetan.<br><br>Halaber, egunero, ibilgailua zerbitzuan jarri baino lehen, garraio-enpresa eragileak egiaztatuko du inklinatzeko sistemek, | como exterior, respetando en todo caso la imagen corporativa que corresponda.<br><br>La publicidad no dificultará la identificación de los vehículos como vehículos de transporte público. No deberá afectar a los espacios de visión del personal de conducción, no permitiéndose, en ningún caso, la publicidad en la parte frontal de los vehículos.<br><br>Los contenidos de la publicidad respetarán la legislación vigente en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en particular, en lo relativo a Igualdad entre mujeres y hombres y Prevención de Drogodependencias.<br><br>Artículo 32. *Condiciones de higiene y confort*<br><br>Tanto los vehículos como las instalaciones fijas de atención a las personas usuarias utilizados por las empresas operadoras de transportes para prestar el servicio deberán mantenerse en buen estado, de tal forma que su utilización por las personas viajeras se produzca en las debidas condiciones de salubridad e higiene.<br><br>El personal de conducción, cuando utilice aparatos de comunicación, de reproducción de sonido y radios deberá mantenerlos a un volumen que no resulte molesto a las personas usuarias. En cualquier caso se considerará molesto, medido en el interior de la cabina del vehículo con las puertas y ventanas cerradas, un valor límite superior a 55 LAeq (dB).<br><br>Artículo 33. *Limpieza y mantenimiento de los vehículos*<br><br>Los vehículos, antes de su entrada en servicio, serán objeto de las limpiezas periódicas necesarias para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo anterior; de igual modo, se realizará su desinfección y desinsectación en los plazos establecidos por la normativa de aplicación.<br><br>Así mismo, diariamente, antes de la puesta en servicio del vehículo de referencia, la empresa operadora de transportes comprobará el buen |

| | |
|---|---|
| arrapalek eta plataforma jasotzaileek, txirrinek eta sakagailuek zein ikusizko eta soinu bidezko ohar-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela. | funcionamiento de los sistemas de inclinación, las rampas y plataformas elevadoras, los timbres y pulsadores de llamada y los sistemas de aviso visual y sonoro. |
| Orobat, ibilgailuak zerbitzuan hasi baino lehen, egiaztatu egingo da ateak ireki eta ixteko sistemak, tiket-makinek eta balidatzaileek zein kokapen- eta komunikazio-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela, eta segurtasun-osagai guztiak eskuragarri daudela eta erabiltzeko egoeran (mailuak, kristal-apurtzaileak, su-itzalgailuak, derrigorrezko segurtasun-uhalak, etab.); baita ere, erregai- eta olio-maila, pneumatikoen egoera eta gainerakoak egokiak direla zerbitzua emateko. | Igualmente, antes de la entrada en servicio de los vehículos, se comprobará el buen funcionamiento de la apertura y cierre de puertas, expendedoras y validadoras, sistemas de localización y comunicación, y que todos los componentes de seguridad estén disponibles y en condiciones de uso (martillos, rompe cristales, extintores, cinturones de seguridad obligatorios, etc.), así como que los niveles de combustible, aceite, estado de los neumáticos y demás sean los adecuados para el servicio. |
| Sartu-irteteko arrapala, plataforma jasotzaile, tiket-makina eta balidatzaile, komunikazio- eta klimatizazio-sistemen edo segurtasunean eraginik ez duen ibilgailuko beste edozein elementuren funtzionamenduan gertatzen den edozein irregulartasun berehala konpondu beharko da urgentziaz. Ibilgailua egoera horretan erabiltzeko baldintza izango da aurkitutako arazoa eta ibilgailuaren ordez beste bat jartzeko ezintasunaren arrazoiak zerbitzuaren titularra den administrazioari jakinaraztea, aurkitutako arazoa konpontzeko aurreikusten den epea adierazita. | Cualquier anomalía en el funcionamiento de las rampas de acceso y plataformas elevadoras, expendedoras y validadoras, sistemas de comunicación, climatización o de cualquier otro elemento del vehículo que no afecte a la seguridad, deberá ser reparada con carácter urgente. La utilización del vehículo en esas condiciones estará condicionada a que se notifique la deficiencia detectada de forma inmediata a la Administración titular del servicio y las razones por las que no se ha podido sustituir el vehículo, señalando el plazo en el que se prevé esté subsanada la anomalía detectada. |
| **34. artikulua**. *Ibilgailuen segurtasuna* | **Artículo 34**. *Seguridad de los vehículos* |
| Garraio publikoko zerbitzuaren ustiapenari atxikitako ibilgailuak, behar bezala homologatutako modeloak izango direnak, funtzionamendu-egoera onean egongo dira, beren ezaugarri teknikoak indarrean dagoen Ibilgailuen Erregelamenduan ezarritakoaren araberakoak izango dira, eta ibilgailuen azterketa teknikoak (IAT) zein emakida-baldintzak bete eta egunean eduki beharko dituzte. | Los vehículos adscritos a la explotación del servicio de transporte público, que serán modelos debidamente homologados, habrán de encontrarse en buen estado de funcionamiento, sus condiciones técnicas se ajustarán a lo establecido en el Reglamento de Vehículos vigente y deberán estar al corriente en el cumplimiento de las Inspecciones Técnicas de Vehículos (ITV) y, en su caso, de las condiciones concesionales. |
| Inolaz ere ez da zerbitzurik egingo segurtasun-baldintzak betetzen ez dituzten ibilgailuak erabilita. | En ningún caso se podrá realizar servicio alguno con vehículos que incumplan las condiciones de seguridad. |
| **35. artikulua.** *Ibilgailuak gidatzea* | **Artículo 35**. *Conducción de los vehículos* |
| Gidariek ibilgailuak gidatzeko orduan, | El personal de conducción deberá manejar los |

| | |
|---|---|
| Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea zehatz-mehatz bete beharko dute, eta baita legea garatzen duten araubideak ere. | vehículos con exacta observancia de la Ley de Tráfico, Circulación de vehículos a Motor y Seguridad Vial y de los Reglamentos que la desarrollan. |
| Gidariak ibilgailua emeki gidatu eta gelditu beharko du, eta geldialdiak zein abiadak astinaldi edo mugimendu zakarrik gabe egingo ditu, bidaiarien eta oinezkoen zein zirkulazioaren segurtasunari bereziki adi. | El personal de conducción deberá conducir y detener el vehículo con suavidad y efectuar las paradas y arrancadas sin sacudidas ni movimientos bruscos, prestando especial atención a la seguridad de las personas viajeras y de los peatones y al resto de la circulación. |
| Oro har, geldialdiak egingo dira ibilgailua espaloiarekiko paraleloan jarrita, eta gainerako ibilgailuen nahiz oinezkoen trafikoari ahalik eta eragozpenik txikiena eginez, bide publikoan ezarritako trafikoaren antolamenduak, garraio publikoaren sustapena dela-eta, autobusei lehentasuna ematen dienean salbu. | Con carácter general, las paradas se efectuarán situando el vehículo paralelamente a la acera, del modo que menos perjudique al resto del tráfico rodado y peatonal, salvo que por motivos de promoción del transporte público, la ordenación del tráfico establecida en la vía pública señale una prioridad a favor de los autobuses. |
| **36. artikulua.** *Istripua gertatzea* | **Artículo 36.** *Supuesto de accidente* |
| Istripua gertatzen bada, gidariak formalizatuko du partea, gertatutako egintzei buruz ahalik eta informaziorik zabalena emanez, eta bidaiariei adieraziko die zein den gorabehera izapidetzeko bide egokia. | En caso de accidente, el parte será formalizado por el personal de conducción facilitando la máxima información sobre los hechos ocurridos e informando a las personas viajeras del canal adecuado para tramitar la incidencia. |
| Garraio-zerbitzua erabiltzean kaltetuta suertatzen diren erabiltzaileek gidariari eman beharko diote gertatutako egintzen berri, gidaria egintza horiez ohartu ez bada. Ez zerbitzuaren titularra den administrazioa, ez zerbitzua ematen duen enpresa eragilea ez dira erantzule izango erabiltzaileek gertatutakoaren parterik ematen ez badute gerta daitezkeen ondorio negatiboen aurrean, betiere ezinbesteko inguruabarrek gertatutakoaren berri adierazitako moduan ematea galarazten badute. | Las personas usuarias del servicio de transporte que sufran daños durante el uso del mismo, deberán comunicar al personal de conducción los hechos ocurridos si este no se hubiera percatado de los mismos. Ni la Administración titular del servicio ni la empresa operadora prestataria del mismo se responsabilizarán de los efectos negativos que pudieran desprenderse para las personas usuarias de no dar parte, salvo que circunstancias de fuerza mayor no permitan comunicar los hechos ocurridos, en los términos indicados. |
| Halaber, erabiltzaileei gogoraraziko zaie erreferentziako garraio-tiketaren egiaztagiria gorde behar dutela. | Así mismo, se recordará a las personas usuarias la necesidad de conservar el justificante del título de transporte de referencia. |
| **37. artikulua**. *Bidaiariei edota hirugarrenei kalte egitea, istripu baten ondorioz* | **Artículo 37.** *Daños a las personas viajeras y/o a terceros como consecuencia de un accidente* |

| | |
|---|---|
| Zerbitzua ematen duen enpresak hitzartuak izango ditu indarrean dagoen legeriaren arabera derrigorrezkoak diren aseguruak, istripu baten ondorioz bidaiariei edo hirugarrenei sortzen zaizkien kalte pertsonal edo materialak egoki ordaintzeko. | La empresa prestataria del servicio tendrá concertados los seguros a los que esté obligada por la legislación vigente, con el fin de indemnizar debidamente los daños personales o materiales que se produzcan a las personas viajeras o a terceros como consecuencia de un accidente. |
| **38. artikulua.** *Ibilgailuen edukiera* | **Artículo 38.** *Capacidad de los vehículos* |
| Ibilgailuan sartzen den bidaiari-kopurua ez da zirkulazio-baimenean zehaztutakoa baino handiagoa izango. Ibilgailuaren edukiera beteta dagoenean, ez da irekiko igotzeko atea, eta gidariak gorabehera horren berri emango du bere trafiko-zentroan. | El número de personas que acceda al vehículo no podrá exceder del establecido en el permiso de circulación. Cuando el vehículo se encuentre con su capacidad de ocupación al completo no se abrirá la puerta de subida, avisando el personal de conducción de dicha incidencia a su centro de tráfico. |
| Ibilgailuaren barruan, erraz ikusten den lekuan, adierazita egongo dira eserleku-kopurua, zutik joan daitezkeen bidaiarien kopurua, eta, hala badagokio, aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonentzat eta mugikortasun murriztua duten gainerako bidaiarientzat erreserbatuta dauden plaza- eta espazio-kopurua. | En un lugar visible del interior del vehículo se hará constar el número de plazas sentadas, el número máximo de personas de pie y en su caso, las plazas y espacios reservados para personas que se desplazan en sillas de ruedas y restantes personas viajeras con movilidad reducida. |
| Zutik doazen bidaiariak garraiatu ahal izango dira, bakar-bakarrik, hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, dituzten homologazio-ezaugarri teknikoen arabera, eta berariazko arrazoiengatik baimenduta dauden zerbitzuetan. | Solo se podrán transportar personas de pie en aquellos vehículos que por sus características técnicas de homologación lo permitan y en aquellos servicios que por sus circunstancias especificas lo tengan autorizado. |
| Debekatuta dago bidaiariak garraiatzea horretarako erabiltzen ez diren eta egokituta ez dauden lekuetan. | Se prohíbe transportar personas en emplazamientos distintos a los destinados y acondicionados para ello. |
| **39. artikulua.** *Garraio-enpresa eragileetako langileen betebeharrak* | **Artículo 39.** *Obligaciones del personal de las empresas operadoras de transportes* |
| Garraio-enpresa eragileetako langileek betebehar hauek bete beharko dituzte: | El personal de las empresas operadoras de transportes deberá cumplir las siguientes obligaciones: |
| 1. Erregelamendu honetan eta derrigorrez bete beharrekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa zehaztasun osoz betetzea. | 1. Prestar exacta atención al cumplimiento de lo dispuesto en el presente Reglamento así como en el resto de normas de obligado cumplimiento. |
| 2. Erabiltzaileekin une oro tratu zuzena mantentzea, egiten ari diren zerbitzuari lotuta dauden laguntzeko eta informatzeko eskaerei | 2. Mantener, en todo momento, un trato correcto con las personas usuarias, atendiendo las peticiones de ayuda e |

| | |
|---|---|
| erantzunez. | información relacionadas con el servicio que esté realizando. |
| 3. Enpresaren irudi korporatiboa mantentzea eta gutxieneko higiene-baldintzak betetzea, bereziki bidaiariekin aurrez aurreko harreman zuzena duten langileek. | 3. Mantener la imagen corporativa de la empresa y reunir las condiciones mínimas de higiene, en particular aquel personal que tenga relación presencial directa con las personas viajeras. |
| Garraio-enpresa eragilearen betekizuna izango da adierazitako betebeharrak nahiz araudi orokorraren ondorioz bidaiariei dagozkien guztiak bertako langileei betearaztea. | Será obligación de la empresa operadora de transportes hacer cumplir a su personal las prescripciones referidas, así como cuantas otras obligaciones respecto a las personas viajeras resulten de la normativa general. |
| **40. artikulua.** *Tiketa emateko betebeharra* | **Artículo 40.** *Obligación de emitir billete* |
| Garraio-enpresa eragileak behartuta daude zerbitzua eskudirutan ordaintzen duten erabiltzaileei egokia den paperezko tiketa ematera, plazak zenbatzearren eta derrigorrezko aseguruen estaldura izatearren. | Las empresas operadoras de transportes están obligadas a la emisión del correspondiente billete en papel a las personas usuarias que abonen el servicio en efectivo, a efectos de cómputo de plaza y de la cobertura de los seguros obligatorios. |
| **41. artikulua.** *Tiketaren zenbatekoa itzultzea* | **Artículo 41.** *Devolución del importe del billete.* |
| Tiketaren zenbatekoa itzultzea egokia izango da egoera hauetan: | La devolución del importe del billete procederá cuando: |
| 1. Zerbitzua hasi baino lehen eten egiten bada, erregelamendu honetako 22. artikuluan ezarritakoaren arabera. | 1. Se suspenda un servicio antes de su inicio de acuerdo con lo establecido en el artículo 22 del presente Reglamento. |
| 2. Tiketa aldez aurretik erosi eta gero erabiltzailea leihatilan aurkezten bada, ibilgailua irten baino gutxienez hamar minutu lehenago. Ez da itzulketarik egingo ibilgailua jadanik irten denean. | 2. Adquirido un billete con antelación, la persona usuaria se presente en taquilla al menos diez minutos antes de la salida. No procederá devolución alguna cuando el vehículo de referencia haya efectuado su salida. |
| Ibilbidea tarifa-sistema bateratuko txartelen bidez ordaintzen bada, txartelaren zenbatekoa itzuliko da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak horretarako ezarritako prozeduren arabera. | En el caso de que se abone el trayecto con las tarjetas del sistema de integración tarifaria, la devolución del importe del billete se realizará conforme a los procedimientos establecidos a tal efecto por la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. |
| **42. artikulua.** *Erreklamazio-liburua edota -orriak* | **Artículo 42.** *Libro y/u Hojas de Reclamaciones* |
| Garraio-enpresa eragileek erreklamazio-liburuak edota -orriak jarriko dituzte | Las empresas operadoras de transportes pondrán a disposición de las personas usuarias Libros y/u Hojas de Reclamaciones |

| | |
|---|---|
| erabiltzaileen eskura, bidaiariek kexak eta erreklamazioak egin eta zerbitzuaren titularra den administrazioak horien berri izan dezan. | en los que podrán formular sus quejas y reclamaciones, de tal forma que estas puedan ser conocidas por la Administración titular del servicio. |
| Liburuaren ale bat edo erreklamazio-orrien kopuru nahikoa egongo dira erabiltzaileen eskura leku hauetan: | Un ejemplar del libro o un número suficiente de hojas de reclamaciones deberán encontrarse a disposición de las personas usuarias en los siguientes lugares: |
| 1. Tiketak emateko baimendutako instalazio finkoetan. | 1. En las instalaciones fijas autorizadas para expender billetes. |
| 2. Tiketak emateko baimendutako instalazio finkorik ez dagoen lekuetan geldialdiak egiten dituzten zerbitzuetako ibilgailu guztietan.<br>3. | 2. En todos los vehículos que realicen servicios que tengan paradas en lugares en los que no haya instalaciones fijas autorizadas para expender billetes. |
| Erreklamazioak egingo dira zerbitzua ohi bezala emateari eraginik ez sortzeko moduan, eta zerbitzua, ahal dela, ez da geldituko. Nolanahi ere, gidariek arreta emango diete adierazten zaizkien erreklamazioei, zerbitzua ohi bezala ematea ez aldatu, ez kaltetzeko moduan eta gainerako bidaiariei eragozpenik ez sortzeko moduan; hori gertatzen bada, erreklamazioa garraio-enpresa eragileen instalazio finkoetan aurkeztuko da, edo ezarritako baliabide elektronikoen bitartez. | Las reclamaciones se realizarán de forma que no afecten a la normal prestación del servicio de referencia, evitando sus interrupciones. En todo caso, la atención del personal de conducción a las reclamaciones que se le formulen se hará de forma que no altere ni menoscabe la normalidad de la prestación del servicio, ni perjudique al resto de las personas viajeras; si concurren las referidas circunstancias, la reclamación se presentará en las instalaciones fijas de las empresas operadoras de transportes, o a través de los medios electrónicos establecidos. |
| Bidaiariak erreklamazioa egin eta garraio-enpresa eragileak erreklamazioa jaso eta gero, garraio-enpresak zerbitzuaren titularra den administrazioari helaraziko dio aipatutako erreklamazioa hogeita hamar egun baliodunko epean, egokitzat jotzen dituen alegazioekin batera, eta erreklamazio-jartzailearen nahia onartzen duen ala ez adierazita. | Formulada la reclamación por la persona viajera y recibida la misma por la empresa operadora de transportes, esta la remitirá a la Administración titular del servicio en el plazo de treinta días hábiles, junto con las alegaciones que estime pertinentes y concluyendo con la indicación de si acepta o no la pretensión de la persona reclamante. |
| Zerbitzuaren titularra den administrazioak egokiak diren neurriak hartuko ditu, garraio-eragile guztiek, pixkanaka, erreklamazioak interneten bidez egiteko aukera eskain dezaten. | La Administración titular del servicio adoptará las medidas oportunas para que de forma progresiva todos los operadores de transportes ofrezcan la posibilidad de formular las reclamaciones por internet. |
| **IV. TITULUA. V. TITULUA. GARRAIO-TITULUA** | **TITULO IV. EL TÍTULO DE TRANSPORTE** |
| **I. KAPITULUA. Garraio-titulua** | **CAPÍTULO I. Del Título de transporte** |

| | |
|---|---|
| **43. artikulua.** *Garraio-titulua* | **Artículo 43**. *Título de transporte* |
| Garraio-titulua, behar bezala balidatua, hala badagokio, ibilbide jakin batean bidaiatzeko baimena ematen duen agiria da. | El título de transporte, en su caso, debidamente validado, es el documento que autoriza a viajar en un determinado trayecto. |
| Baliozko garraio-tituluak dira aldian behingo tiketa, tarifa-sistema bateratuko txartelak, behar bezala balidatuak, doaneko tiket izenekoa, aparteko errekargua ordaindu dela egiaztatzen duen ordainagiria eta une oro zerbitzuaren titularra den administrazioak edo, egokia denean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak baimendu dituztenak. | Son títulos de transporte válidos el billete ocasional, las tarjetas del sistema de integración tarifaria debidamente validadas, el denominado billete gratuito, el recibo justificativo del pago del recargo extraordinario y los que en cada momento hayan sido aprobados por la Administración titular del servicio o, en su caso, por la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. |
| Zerbitzuaren titularra den administrazioak, berez edo Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bidez, garraio-tituluak sortu ahal izango ditu, eta baita horiek eskuratzeko eta erabiltzeko baldintzak ere. | La Administración titular del servicio por sí o a través de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa podrá crear títulos de transporte y las condiciones para su obtención y utilización. |
| Garraio-tituluak istripu-kasuetarako egokia den derrigorrezko aseguruaren estaldura darama berekin. Istripua gertatuz gero, aseguru-etxeak garraio-titulua eskatuko du, ibilbidearen zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzeko. | El título de transporte lleva aparejada la cobertura del correspondiente seguro obligatorio para supuestos de accidente. En ese caso, el título de transporte será reclamado por la compañía de seguros para justificar que se ha abonado el importe del trayecto correspondiente. |
| **44. artikulua.** *Baliozko garraio-titulua eramateko betebeharra* | **Artículo 44.** *Obligación de portar el título de transporte válido* |
| Garraio-tituluak, behar bezala balidatuta, zerbitzua erabiltzea ahalbidetzen du. | El título de transporte, en su caso, debidamente validado, posibilita la utilización del servicio. |
| Haurrek, bost urtetik aurrera, baliozko garraio-titulua izan beharko dute bidaiatzeko, behar bezala balidatua, helduen baldintza beretan, erregelamendu honetako 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz. | Las personas a partir de los cinco años de edad deberán viajar con título de transporte válido, y en su caso debidamente validado, en las mismas condiciones que las personas adultas, conforme a lo establecido en el artículo 17 del presente Reglamento. |
| Bidaiari guztiek baliozko garraio-titulu bat eduki beharko dute ibilgailuan sartzen diren unetik. Tituluaren ezaugarrien arabera, ibilgailuko sarrerako kontrolpean jarri eta gorde egin beharko dute, hondatu gabe, ibilbide osoan eta helmugako geltokian ibilgailutik irten arte, titulua erakusteko eska dezaketen garraio-enpresa eragileetako enplegatuen edo agente ikuskatzaileen eskura. | Toda persona viajera deberá estar provista, desde el embarque, de un título de transporte válido que deberá someter al control de entrada en el vehículo, de acuerdo con sus características, y conservar, sin deteriorarlo, a disposición de los empleados de las empresas operadoras de transportes o de los agentes de inspección que puedan requerir su exhibición, durante todo el trayecto hasta descender del |

| | |
|---|---|
| | vehículo en la parada de destino. |
| Tituluaren ezaugarriek ahalbidetzen badute bidaiari batek baino gehiagok erabiltzea, ibilgailutik irten den azken bidaiariak eduki beharko du beti titulua. Adierazitako tituluek eramailearen tituluaren izaera dute eta, hortaz, edozein pertsonak erabili ahal izango ditu. | En el caso de que las propias características del título permitan su uso plural, este deberá quedar siempre en posesión de la última persona que descienda del vehículo. Los referidos títulos, tienen el carácter de título al portador o portadora, por lo que pueden ser utilizados de forma indistinta por cualquier persona. |
| Doan bidaiatu ahal izango dute, bakar-bakarrik, adingabeek, baimendutako pertsonek –izaera hori egiaztatzen duen agiria aldean dutela–, eta itsuen eta aulki gurpildunean bidaiatzen duten pertsonen laguntzaileek. | Sólo podrán viajar gratuitamente los menores, las personas autorizadas que porten el título acreditativo de esta condición y las personas acompañantes de los invidentes y de las personas que viajan en silla de ruedas. |
| Derrigorrezkoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako pertsonek doaneko tiket izenekoa eramatea, plazak zenbatzearren eta derrigorrezko aseguruen estaldura izatearren. | Será obligatorio portar el denominado billete gratuito por parte de las personas referidas en el párrafo anterior a efectos de cómputo de plazas y de la cobertura de los seguros obligatorios. |
| **45. artikulua.** *Tiketa ibilgailuan bertan erostea* | **Artículo 45**. *Adquisición del billete a bordo del vehículo* |
| Bidaiariak aldi baterako tiketaren zenbateko zehatza ordainduko du, ahal bada; nolanahi ere, gidaria behartuta dago egokiak diren atzerakoak ematera. | La persona viajera procurará abonar el importe exacto del billete ocasional, sin perjuicio de que el personal de conducción esté obligado a facilitar el correspondiente cambio. |
| Ibilgailuek zirkulatu beharko dute eskudirua dutela –xehea edo billeteak– atzerakoak eman ahal izateko, erregelamendu honetako 23. artikuluan ezarritakoaren arabera. | Los vehículos deberán circular provistos de efectivo en monedas o billetes que permitan la devolución de cambios, de conformidad con lo establecido en el artículo 23 del presente Reglamento. |
| Ibilgailuetan txeketegia eraman ahal izango da, eta horren bidez eskudirutan eman ezin diren atzerakoak itzuliko dira. Emandako txekeak diru bihurtu daitezke hurrengo egunetik aurrera, garraio-enpresa eragilearen bulegoetan edo zehaztu daitezkeen beste leku batzuetan. | Los vehículos podrán llevar un talonario, mediante el cual se procederá a la devolución de los abonos que no se puedan satisfacer por carecer de efectivo. Los talones entregados se harán efectivos a partir del día siguiente en las oficinas de la empresa operadora de transportes o en otros lugares que puedan determinarse. |
| **46. artikulua**. *Garraio-titulua egiaztatzea* | **Artículo 46.** *Comprobación del título de transporte* |
| 1. Bidaiariak garraio-titulua erosten duenean, egiaztatu beharko du erositako titulua egokia dela eta, hala badagokio, jasotako atzerakoak | 1. La persona viajera deberá comprobar, en el momento de su adquisición, que el título de transporte adquirido es el adecuado, y en su caso, que el cambio |

| | |
|---|---|
| zuzenak direla. | de moneda recibido es el correcto. |
| 2. Bidaia anitzeko tiketak erabiltzen badira edo tarifa-sistema bateratuko txartelaz ordaintzen bada, erabiltzaileak egiaztatu beharko du balidazioa edo kontrola behar bezala egin dela eta egiten ari den bidaiaren datuekin bat datorrela. | 2. En el supuesto de utilización de títulos multiviaje o abono con tarjeta del sistema de integración tarifaria, la persona usuaria vendrá obligada a comprobar que la validación u operación de control ha sido realizada correctamente y corresponde a los datos del viaje que efectúa. |
| 3. Tiketaren titulartasuna | 3. Titularidad del billete. |
| Tiketa leihatilan edo interneten bidez saltzeko aukera ematen duten ibilbide luzeko zerbitzuetan, tarifa-sistema bateratuko txartelen bidez erositako tiketak izendunak izango dira, eta bertan adieraziko da erreferentziako txartelaren zenbakia.<br><br>Ibilgailuan sartzeko, bidaiariak erositako tiketa erakutsiko dio gidariari txartelarekin batera, bietako datuak bat datozela egiaztatzeko. | En los servicios de largo recorrido que permitan la venta en taquilla o por internet, los billetes adquiridos con tarjetas del sistema de integración tarifaria serán nominativos, señalándose en los mismos, la numeración de la tarjeta de referencia. Para el acceso al vehículo, la persona viajera mostrará al personal de conducción el billete adquirido junto con la tarjeta, verificándose que ambos datos son coincidentes. |
| Datu horiek bat ez badatoz, edo txartela egiaztatu gabe badago, tiketa era automatikoan ezeztatuko da. | La no correspondencia de los precitados datos o la falta de acreditación de tarjeta, supondrá la anulación automática del billete. |
| 47. artikulua. *Aparteko errekargua ordaintzeko betebeharra* | Artículo 47. *Obligación de abonar un recargo extraordinario* |
| 1. Sarreran kontrolatutako edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duten bidaiariak behartuta egongo dira tiketa erostera, 50 euroko tarifa-izaerako aparteko errekargua ordainduta egindako ibilbidearen truke edo egin nahi dutenaren truke. | 1. Las personas viajeras que carezcan de título de transporte, sometido al control de entrada o debidamente validado, estarán obligadas a proveerse del mismo abonando en concepto de recargo extraordinario de carácter tarifario por el trayecto realizado o que se pretendiera realizar, la cantidad de 50 euros. |
| Kopuru hori lau lanegunen barruan ordaindu ahal izango da, edo berehala. Berehala ordainduz gero, aparteko errekarguaren zenbatekoa 20 eurora murriztuko da. | La referida cantidad podrá abonarse en el plazo de cuatro días laborables o al instante, reduciéndose en este último supuesto el importe del recargo extraordinario a la cantidad de 20 euros. |
| Zerbitzuaren titularra den administrazio publikoak eguneratu ahal izango du artikulu honetan arautzen den tarifa-izaerako aparteko errekarguaren kopurua, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumoko prezioen indizearen arabera (KPI). | La cantidad establecida en concepto de recargo extraordinario de carácter tarifario regulada en el presente artículo, podrá ser objeto de actualización por la Administración Pública titular del servicio en función del Índice de Precios al Consumo (IPC) de la Comunidad Autónoma del País Vasco. |

| | |
|---|---|
| 2. Garraio-enpresa eragileetako gidari eta ikuskatzaileak ahaldunduta daude aurreko paragrafoan aurreikusitako aparteko errekargua kobratzeko, erabiltzaileak baliozko edo behar bezala balidatutako garraio-titulurik ez duela egiaztatzen den unean bertan ordaindu nahi badu; hala bada, erabiltzaileari emango zaio egindako ordainketari dagokion ordainagiria. | 2. El personal de conducción y de inspección de las empresas operadoras de transportes está facultado para cobrar el recargo extraordinario previsto en el apartado anterior, si la persona usuaria desea abonarlo en el mismo instante en que se constata la ausencia de título de transporte válido o debidamente validado, en cuyo caso se hará entrega a la persona usuaria de un recibo justificativo del pago realizado. |
| 3. Bidaiariak aparteko errekargua ordaindu nahi ez badu, eta ibilgailua martxan badago, egiten den lehenengo geldialdian jaitsi beharko da ibilgailutik. | 3. En el supuesto de que la persona viajera no deseara abonar el recargo extraordinario y el vehículo estuviera en marcha, esta estará obligada a bajarse del mismo en la primera parada disponible. |
| 4. Bidaiariak aparteko errekargua ordaindu ezin badu baliozko edo behar bezala balidatutako titulurik gabe zerbitzu publikoa erabiltzen ari zela egiaztatzeko unean bertan, eta bidaia jarraitu nahi badu, gidariak edo ikuskatzaileak salaketa-orria beteko du; bertan, bidaiariaren identitatea, eguna, ordua, linea eta gertatutakoa jasoko dira (titulurik gabe edo baliozko txartelik gabe bidaiatzen ari bada, eta azken kasu horretan txartelaren titularra identifikatuko da), artikulu honetako lehenengo paragrafoan aurreikusitako aparteko errekargua ordain dezan. | 4. En el supuesto de que la persona viajera no pudiera abonar el recargo extraordinario en el mismo momento de la constatación de que se encontraba usando el servicio público careciendo de título válido, y en su caso debidamente validado y deseara continuar el viaje, el personal de conducción o de inspección cumplimentará un boletín de denuncia en el que conste la identidad de la persona viajera, la fecha, la hora, la línea y las circunstancias concurrentes (si se viaja sin título o si se viaja sin un título válido, en cuyo caso se identificará al titular del mismo), al objeto de abonar el recargo extraordinario previsto en el párrafo primero del presente artículo. |
| Xede horrekin, bidaiariak behartuta daude beren burua identifikatzera, gidari edo ikuskatzaileari NAN edo agiri baliokidea eta, hala badagokio, oker balidatuta dagoen garraio-txartela erakutsiz. | A tal efecto, las personas viajeras están obligadas a identificarse mostrando al personal de conducción o de inspección su DNI o documento equivalente y, en su caso, el título de transporte indebidamente validado. |
| Bidaiariak ikuskatzeko eginkizunetan laguntzeko betebeharra borondatez betetzen ez badu, zerbitzua ematen duten enpresetako langileek poliziaren laguntza eskatu ahal izango dute. | Si la persona viajera no cumpliera con su obligación de colaborar en las labores de inspección, el personal de las empresas prestatarias del servicio podrá requerir el auxilio de la autoridad policial. |
| 5. Aparteko errekarguaren ordainketa egiten ez bada artikulu honetako lehenengo idatzi-zatiaren bigarren paragrafoan ezarritako epearen barruan, salaketa jarriko da, egokia den zehapen-prozedurari hasiera emateko. | 5. Si el pago del recargo extraordinario no se realizase dentro del plazo establecido en el párrafo segundo del apartado primero de este precepto, se cursará la oportuna denuncia a efectos de la incoación del correspondiente procedimiento sancionador. |

| II. KAPITULUA. Garraio-titulu pertsonalizatua | CAPÍTULO II. Del título personalizado |
|---|---|
| 48. artikulua. *Garraio-titulu pertsonalizatuen baliotasuna eta erabilera* | Artículo 48. *Validez y utilización de los títulos de transporte personalizados* |
| Garraio-titulu, oro har, erabilera pertsonal eta besterenezinekoak izango dira. | Los títulos de transporte serán, con carácter general, de utilización personal e intransferible. |
| Garraio-titulu pertsonalizatua bere izenean erosi duen pertsonak garraio-titulua zaindu eta kontserbatzeko erantzukizuna izango du, garraio-titulua arduraz erabiliko du, eta galtzen badu edo kentzen badiote, ahalik eta azkarren eman beharko du horren berri Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Erabiltzailearen Arretagunean. | La persona a cuyo favor esté expedido el título de transporte personalizado será responsable de su custodia y conservación, debiendo hacer un uso diligente del mismo y estando obligada, en el caso de extravío o sustracción, a notificarlo a la mayor brevedad posible al Centro de Atención al Usuario de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. |
| Garraio-titulu pertsonalizatua galdu dela jakinarazten ez den bitartean, bere izenean erosi duen pertsona izango da txartelaren iruzurrezko erabileraren erantzule. | En tanto no se denuncie el extravío o pérdida de un título de transporte personalizado, la persona a cuyo favor esté expedido será responsable del uso fraudulento del mismo. |
| Garraio-titulu pertsonalizatuaren titularra 14 urtetik beherako adintxikikoa bada, gurasoek edo tutoreek gorde eta zaindu beharko dute. | En el caso de que la persona titular del título de transporte personalizado sea un menor de 14 años, la custodia y conservación de la misma corresponderá a sus progenitores o tutores. |
| 49. artikulua. *Garraio-titulu pertsonalizatuen erabilera okerra edo iruzurrezkoa* | Artículo 49. *Utilización incorrecta o fraudulenta de los títulos de transporte personalizados* |
| Garraio-tituluak aurkeztu egin beharko dira, garraio-titulu pertsonalizatuaren eramaileen identitatea egiaztatzeko agiriren batekin batera, behar bezala identifikatuta dauden ikuskatzaileek edota garraio-enpresa eragileko langileek hala eskatzen dutenean. | Los títulos de transporte deberán presentarse a requerimiento de los Agentes de Inspección y/o personal de la empresa operadora de transportes debidamente identificados, junto con alguno de los documentos que sirvan para acreditar la identidad de las personas portadoras de los títulos personalizados. |
| Egoera irregularra gertatuko da garraio-titulu pertsonala eta besterenezina era okerrean erabiltzen denean. | Se produce una situación irregular cuando se utiliza el título personal e intransferible de manera incorrecta. |
| Garraio-titulu oker erabilita egongo da behean jasotako egoeretan, gerora beste egoera batzuk gehitu badaitezke ere: | Son supuestos de utilización incorrecta del título de transporte, adicionalmente a cualesquiera otros que se determinen en un momento posterior, los que se establecen a continuación: |
| a. Txartel pertsonalizatuaren | a. Utilización de tarjeta |

| | |
|---|---|
| gainean gezurrezko informazioa inprimatuta dagoenean. | personalizada en la que figure información no veraz impresa sobre la misma. |
| b. Txartel pertsonalizatuan jasota dagoen pertsonaren identitatea ez duen beste pertsona batek erabiltzen duenean. | b. Utilización de tarjeta personalizada por persona distinta de aquella cuya identidad figura reflejada en la misma. |
| c. Txartel pertsonalizatu faltsutua denean, edo txartelean jasotako edo inprimatutako informazioa aldatu denean. | c. Utilización de una tarjeta personalizada falsificada o en la que se haya alterado la información contenida o impresa en la misma. |
| d. Jaisteko orduan ez balidatzea, beste zona bateko geldialdian jadanik egin delako, egindako ibilbidearen truke tarifa txikiagoa ordaintzeko helburuaz. | d. Supuesto de no validación en la parada de bajada por haberlo hecho previamente en parada correspondiente a zona distinta, al objeto de abonar una menor tarifa por el trayecto realizado. |
| e. Tarifa-sistema bateratuaren beherapen handiagoak lortzeko helburu bakarra duten ekintzak egiten direnean. | e. Supuesto en el que se lleven a cabo actividades cuyo único fin sea obtener mayores descuentos del sistema de integración tarifaria. |
| f. Txartel pertsonalizatua erabili duen pertsonak uko egitea bere identitatea egiaztatzeko behar den agiria erakusteari, ikuskapen-zerbitzuek edo garraio-enpresa eragileko langileek hala eskatzen dutenean. | f. Utilización de tarjeta personalizada por persona que se niega a mostrar, a requerimiento de los servicios de inspección o del personal de la empresa operadora de transportes, el documento necesario para acreditar su identidad. |
| Txartel pertsonalizatuaren gainean gezurrezko informazioa inprimatuta dagoenean, txartela erosi duen pertsonak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatu beharko dio akatsa konpontzeko. | En los supuestos en los que la tarjeta personalizada contenga información no veraz impresa sobre la misma, la persona a cuyo favor está expedida deberá solicitar a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa la subsanación del error. |
| Ikuskatzaileek eta garraio-enpresa eragileetako langileek txartelak kenduko dituzte oker edo iruzurrez erabiltzen direnean, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko indarrean dauden Baldintza Orokorren arabera. | Los títulos de transporte serán retirados por los Agentes de Inspección y por el personal de las empresas operadoras de transportes cuando sean utilizados de forma incorrecta o fraudulenta, de acuerdo con las Condiciones Generales de Contratación y Utilización del Sistema de Integración Tarifaria en el Territorio Histórico de Gipuzkoa que se encuentren en vigor. |
| 50. artikulua. *Zigorrak garraio-titulu pertsonalizatuak oker erabiltzeagatik* | Artículo 50. *Penalizaciones por uso incorrecto de los títulos personalizados.* |

| | |
|---|---|
| Erabilitako garraio-titulua tarifa-sistema bateratuko txartela denean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza izango da txartelak oker edo iruzurrez erabiltzeagatik zigorrak ezartzen dituena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Tarifa Sistema Bateratua kontratatzeko eta erabiltzeko indarrean dauden Baldintza Orokorren arabera. | Cuando el título de transporte utilizado sea una tarjeta del sistema de integración tarifaria, las penalizaciones por uso incorrecto o fraudulento del mismo serán las establecidas por la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, conforme a lo previsto en las Condiciones Generales de Contratación y Utilización del Sistema de Integración Tarifaria en el Territorio Histórico de Gipuzkoa que se encuentren en vigor. |
| V. TITULUA. ZEHATZEKO ARAUBIDEA | TITULO V. RÉGIMEN SANCIONADOR |
| 51. artikulua. *Zehatzeko araubidea* | Artículo 51. *Régimen sancionador* |
| Erabiltzaileek nahiz garraio-zerbitzua ematen duten enpresa eragileek dituzten betebeharrak ez betetzea arau-hauste administratiboa izango da, eta horren ondorioz, Autonomian indarrean dagoen legerian eta, bereziki, lurreko garraioak eta kontsumitzaile zein erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak arautzen dituen legerian aurreikusitako zehapenak ezarriko dira. | El incumplimiento, tanto por parte de las personas usuarias como de las empresas operadoras que prestan el servicio de transporte, de sus respectivas obligaciones, constituirá infracción administrativa y dará lugar a las sanciones previstas en la legislación autonómica vigente, y en particular, en la que regula los transportes terrestres y los derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias. |
| Erregelamendu honetan jasota dauden eta adierazitako legerian berariaz jasota ez dauden betebeharrak ez betetzea arau-hauste administratiboa izango da, eta erregelamendu honetan adierazitakoaren arabera zigortuko da. | El incumplimiento de las obligaciones señaladas en el presente Reglamento que no estén tipificados expresamente en la normativa señalada será constitutivo de infracción administrativa y se sancionará conforme a lo previsto en el presente Reglamento. |
| 52. artikulua. *Eskumena* | Artículo 52. *Competencia* |
| Erregelamendu honetan ezarritako arau-hausteak egiteagatik zehapen-espedienteak hasi, izapidetu eta ebazteko eskumena izango dute legez edo araubidez eskumen hori esleitua duten organoek. | La competencia para la incoación, instrucción y resolución de los expedientes sancionadores por la comisión de las infracciones establecidas en el presente Reglamento corresponderá a los órganos que legal o reglamentariamente la tengan atribuida. |
| Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-hausteak gertatuz gero, eskumen hori egokituko zaio arau-hausteа eragin duten egintzak gertatu diren zerbitzu publikoaren titularra den administrazio publikoari. | En el supuesto de las infracciones tipificadas en el presente Reglamento, la referida competencia le corresponde a la Administración Pública titular del servicio público en el cual se produzcan los hechos presuntamente constitutivos de la infracción. |
| 53. artikulua. *Erregelamendu hau ez* | Artículo 53. *Definición y clasificación de las* |

| | |
|---|---|
| *betetzearen ondoriozko arau-hausteen definizioa eta sailkapena* | *infracciones propias de este Reglamento* |
| Arau-hauste administratiboak subjektu erantzuleek burututako egintzak edo ez-betetzeak dira, erregelamendu honen arabera tipifikatu eta zigortuta daudenak.<br><br>Arau-hausteak arin, larri edo oso larri moduan sailkatuta daude, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 140.1. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. | Constituyen infracciones administrativas las acciones u omisiones de los distintos sujetos responsables tipificadas y sancionadas de conformidad con el presente Reglamento.<br><br>Las infracciones se encuentran clasificadas como leves, graves o muy graves de conformidad con lo previsto en el artículo 140.1 de la Ley 7/1985, 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local. |
| 1. Hauek dira arau-hauste oso larriak:<br><br>a. Ibilgailuan baimendutako gehieneko okupaziora iritsi denean, bidaiariei sartzen uzteko debekua ez betetzea.<br><br>b. Ibilgailuak dituen sartu-irteteko sistemak ez erabiltzea, mugikortasun murriztuko pertsona bat bertan sartu edo irten behar denean.<br><br>c. Zerbitzuak irauten duen bitartean, erregelamendu honetako 6. artikuluan aurreikusita dauden derrigorrezko irisgarritasun-sistemak aktibatuta ez edukitzea. | 1. Son infracciones muy graves:<br><br>a. Incumplir la prohibición de permitir el acceso de personas viajeras cuando se ha alcanzado la ocupación máxima permitida del vehículo.<br>b. No utilizar los sistemas de acceso de los que esté equipado el vehículo cuando una persona con movilidad reducida vaya a embarcar o desembarcar del mismo.<br>c. No tener activados, durante el servicio, todos los sistemas de accesibilidad obligatorios previstos en el artículo 6 de este Reglamento. |
| 2. Hauek dira arau-hauste larriak:<br><br>a. Mugikortasun murriztuko pertsona bati erreserbatutako eserlekua ez uztea, mugikortasun murriztua ez duen beste pertsona bati hala eskatzen dionean. Era berean, arau-haustea izango da, erregelamendu honetako 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, erreserbatutako eserleku bat okupatzen ari den erabiltzailea enpresa eragileak eserleku hori uztera ez behartzea, eserleku hori erabili behar duen mugikortasun | 2. Son infracciones graves:<br><br>a. No ceder el uso de un asiento reservado a una persona viajera con movilidad reducida cuando la misma lo requiera a una persona viajera sin limitaciones en su movilidad. Del mismo modo, será infracción que la empresa operadora de transportes no obligue a ceder el asiento reservado, tal y como establece el artículo 10 de este Reglamento, a la persona usuaria que mantiene ocupado un asiento reservado cuando existe una persona viajera con |

| | |
|---|---|
| murriztuko pertsona bat dagoenean. | movilidad reducida que precisa utilizarlo. |
| b. Bigarren aulki gurpilduna kokatzeko espazioa erreserbatuta ez edukitzea, mugikortasun murriztuko bidaiariren batek erregelamendu honetako 11. artikuluan aurreikusitako erreserba egin badu. | b. No tener disponible el espacio reservado a la segunda silla de ruedas en el supuesto de que una persona viajera con movilidad reducida hubiera realizado la reserva prevista en el artículo 11 de este Reglamento. |
| c. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetan etxeko animaliak bertan sartzeari buruzko 21. artikuluan zehaztutako baldintzetakoren bat ez betetzea. | c. Infringir, una vez embarcado en el vehículo, alguna de las condiciones establecidas en el artículo 21 de este Reglamento para el acceso de animales de compañía. |
| d. Erregelamendu honetako 25.e artikuluan adierazitako debekua haustea. | d. Infringir, la prohibición establecida en el artículo 25. e de este Reglamento. |
| e. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetako 25.g., 25.l. eta 25.p. artikuluetan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea. | e. Infringir, una vez embarcado en el vehículo, la prohibición establecida en los artículos 25.g, 25.l y 25.p de este Reglamento. Del mismo modo será infracción que la empresa operadora de transportes no impida la comisión de la referida infracción de este Reglamento. |
| f. Erregelamendu honetako 25.k artikuluan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea. | f. Infringir, la prohibición establecida en el artículo 25.k de este Reglamento. Del mismo modo será infracción que la empresa operadora de transportes no impida la comisión de la referida infracción de este Reglamento. |
| g. Erregelamendu honetako 32. artikuluan ibilgailuaren barruko giroari buruz zehaztutako baldintzak ez betetzea. | g. Infringir las condiciones ambientales en el interior del vehículo previstas en el artículo 32 de este Reglamento. |
| h. Tiketaren zenbatekoa itzultzeko betebeharra ez betetzea, itzulketa hori egokia denean erregelamendu honetako 41. artikuluari jarraituz. | h. Incumplir la obligación de devolución del importe del billete cuando la misma proceda de conformidad con el artículo 41 de este Reglamento. |
| 3. Hauek dira arau-hauste arinak: | 3. Son infracciones leves: |
| a. Fardelak daramatzaten bidaiariei sartzen uztea, erregelamendu honetako 19. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat | a. Permitir el acceso a una persona viajera con bultos infringiendo alguna de las condiciones establecidas en el |

| | |
|---|---|
| betetzen ez denean.<br>b. Etxeko animaliak daramatzaten bidaiariei sartzen uztea, erregelamendu honetako 21. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat betetzen ez denean.<br>c. Erregelamendu honetako 24.j. artikuluan ezarritako higiene- eta osasun-baldintzak betetzen ez dituzten bidaiariei ibilgailuan sartzen uztea.<br>d. Ibilgailuan sartu eta gero, erregelamendu honetako 25.h. eta 25.i., 25.j. eta 25.m. artikuluetan adierazitako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste horiek egitea ez galaraztea.<br>e. Erregelamendu honetako 25.f. artikuluan zehaztutako debekua haustea. Halaber, arau-haustea izango da garraio-enpresa eragileak erregelamendu honetako arau-hauste hori egitea ez galaraztea.<br>f. Aparteko errekargua ez ordaintzea erregelamendu honetako 47. artikuluan ezarritako epearen barruan.<br>g. Eta oro har, erregelamendu honetatik espresuki eratorritako obligazio eta debeku guztien ez-betetzeak, arau-hauste larria edo oso larria ez badira. | artículo 19 de este Reglamento.<br>b. Permitir el acceso a una persona viajera con un animal de compañía infringiendo alguna de las condiciones establecidas en el artículo 21 de este Reglamento.<br>c. Permitir el acceso al vehículo a personas viajeras que no se encuentren en las condiciones higiénico-sanitarias establecidas en el artículo 24.j de este Reglamento.<br>d. Infringir, una vez embarcado en el vehículo, la prohibición establecida en los artículos 25.h, 25.i, 25.j y 25.m de este Reglamento. Del mismo modo será infracción que la empresa operadora de transportes no impida la comisión de las referidas infracciones de este Reglamento.<br>e. Infringir la prohibición establecida en el artículo 25.f de este Reglamento. Del mismo modo será infracción que la empresa operadora de transportes no impida la comisión de la referida infracción de este Reglamento.<br>f. No pagar el recargo extraordinario dentro del plazo establecido en el artículo 47 de este Reglamento.<br>g. En general, el incumplimiento de las obligaciones y prohibiciones expresamente establecidas en el presente Reglamento y no constituyan infracción grave o muy grave. |
| **54. artikulua.** *Erantzukizuna erregelamendu hau ez betetzearen ondoriozko arau-hausteak egiteagatik*<br><br>1. Garraio-enpresa eragileek edota bertako langileek arauak hausten dituztenean, erantzukizuna emakidaren edo baimenaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoarena izango da, alde batera utzita erantzukizun hori sortu duten ekintzak edo ez-betetzeak enpresek edo enpresako langileek burutu | **Artículo 54.** *Responsabilidad por la comisión de las infracciones propias de este Reglamento*<br><br>1. En las infracciones cometidas por las empresas operadoras de transportes y/o por su personal, la responsabilidad será de la persona física o jurídica titular de la concesión o autorización correspondiente, independientemente de que las acciones u omisiones de la que dicha responsabilidad |

| | |
|---|---|
| dituzten; hala ere, beren ustez egokiak diren egintzak ondoriozta daitezke arauak berez hautsi dituzten pertsonen aurka. | derive hayan sido realizadas por ellas o por el personal de su empresa, sin perjuicio de que puedan deducir las acciones que a su juicio resulten procedentes contra las personas a las que sean materialmente imputables las infracciones. |
| 2. Bidaiariek arauak hausten dituztenean, erantzukizuna bidaiariena izango da. | 2. En las infracciones cometidas por las personas viajeras la responsabilidad corresponderá a estas. |
| 18 urtetik beherako adingabeak egindako egintzen erantzukizuna aitortzen denean, erantzule solidarioak izango dira, adingabearekin batera, gurasoak, tutoreak, hartzaileak eta legezko edo izatezko zaintzaileak, hurrenkera horretan, horiei guztiei ezarritako betekizuna betetzearren, hau da, 18 urtetik beherakoei egozten zaien administrazio-zehapena prebenitzeko betebeharra. | Cuando sea declarada la responsabilidad de los hechos cometidos por una persona viajera menor de 18 años, responderán solidariamente de ella sus progenitores, tutores, acogedores y guardadores legales o de hecho, por este orden, en razón del cumplimiento de la obligación impuesta a los mismos que conlleva un deber de prevenir la infracción administrativa que se impute a los menores de 18 años. |
| Erantzukizun solidarioa ezarri den isunaren ondoriozko diruzkoa izango da hertsiki, eta, bidezkoa bada, sortutako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra. | La responsabilidad solidaria quedará referida estrictamente a la pecuniaria derivada de la multa impuesta y, en su caso, de la obligación de indemnizar los daños y perjuicios irrogados. |
| 3. Nolanahi ere, arau-hauste independentetzat hartuko dira ibilaldi desberdinetan egiten direnak, nahiz eta arau berak edo antzekoak hautsi. | 3. En cualquier caso tendrán la consideración de infracciones independientes aquellas que se cometan en relación con distintas expediciones de transporte, aun cuando los hechos infrinjan los mismos o semejantes preceptos. |
| Hala ere, araua hautsi duten egintzek garraio-enpresa eragilearen bulegoetan egiten den jarduera administratiboarekin zerikusi zuzena dutenean, edo erabilitako ibilgailuarekin, eta ibilgailuaren abiagunea zen enpresa-egoitzara itzuli arte zuzendu ezin direla frogatzen denean, egintza horiek arau-hauste bakartzat hartuko dira, nahiz eta bien bitartean egindako ibilaldietan eginak izan. | Sin embargo, cuando los hechos constitutivos de la infracción guarden relación directa con la actividad administrativa que se desarrolla en las oficinas de la empresa operadora de transportes o con el vehículo utilizado y resulte acreditado que no podían ser corregidos hasta el regreso de aquel a la sede empresarial de la que inicialmente partió, tales hechos se considerarán constitutivos de una sola infracción, aun cuando hubieran continuado teniendo lugar durante las distintas expediciones parciales realizadas entre tanto. |
| 55. artikulua. *Erregelamendu hau betetzeko baldintzak ikuskatzea eta egiaztatzea* | Artículo 55. *Inspección y comprobación de las condiciones en las que se cumple el presente Reglamento* |

| | |
|---|---|
| 1. Garraio-enpresa eragileek ikuskatu ahal izango dute bidaiariek nola betetzen dituzten erregelamendu honetan ezarritako betebeharrak; hala ere, zerbitzuaren titularra den administrazio publikoko ikuskatzaileek ere ikuskapena egin ahal izango dute. | 1. Las empresas operadoras de transportes podrán inspeccionar el cumplimiento por las personas viajeras de las obligaciones establecidas en este Reglamento, sin perjuicio de la supervisión por el personal de inspección de la Administración Pública titular del servicio en cuestión. |
| 2. Aipatutako enpresa eragileetako langileak baimenduta daude adierazitako betebeharrak nola betetzen diren zaindu eta ikuskatzeko. Hautemandako arau-hausteen berri eman beharko dute egokia den salaketaren bidez; eta, egokia bada, zehapen-espedientea irekiko da, hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera. | 2. El personal de las mencionadas empresas operadoras está autorizado a vigilar e inspeccionar el cumplimiento de las señaladas obligaciones. Deberá dar cuenta de las infracciones detectadas formulando la correspondiente denuncia, que dará lugar, si procede, a la apertura de expediente sancionador, de conformidad con lo previsto en el siguiente artículo. |
| Adierazitako ikuskatzaileek eginkizun horiek betetzen dituztenean, beren izaera egiaztatzen duen agiria aldean izango dute, eta erakutsi egin beharko dute, bidaiariren batek hala eskatzen badie. | Cuando el referido personal de inspección ejercite estas funciones estará provisto del documento acreditativo de su condición, que deberá exhibir si le es requerido por una persona viajera. |
| 3. Ikuskatze-lanak egiten dituzten garraio-enpresa eragileetako langileek ez dute agintaritza-izaerarik; bai, ordea, zerbitzuaren titularra den administrazio publikoko ikuskatzaileek. | 3. El personal de las empresas operadoras de transportes que desarrolle funciones de inspección no está investido de la condición de autoridad, a diferencia de lo que sucede con el personal de inspección de la Administración Pública titular del servicio en cuestión. |
| 56. artikulua. *Zehatzeko espedienteari hasiera ematea* | Artículo 56. *Iniciación de un expediente sancionador* |
| 1. Erregelamendu honetan arau-hauste moduan tipifikatutako egintzak edo urraketak egiteagatik zehapena jartzeko ahalmena ofizioz hasiko da, eskumena duen organoak hala erabakita, bai bere ekimenez, bai beste organo batzuek eskaera arrazoitua egitearen ondorioz, bai salaketaren bidez. | 1. La potestad sancionadora por la realización de hechos o infracciones tipificadas como infracciones en este Reglamento se iniciará de oficio por acuerdo del órgano competente, bien por propia iniciativa o como consecuencia de petición razonada de otros órganos o denuncia. |
| 2. Beste organo batzuen eskaera arrazoituak barnean izango ditu arau-haustea izan daitezkeen egintzen kontaketa, horien tipifikazioa, data, egintzak gertatu ziren egunak edo denboraldi jarraitua, eta, ahal dela, ustezko erantzuleen identifikazioa. | 2. La petición razonada de otros órganos deberá contener el relato de los hechos que pudieran constituir infracción, su tipificación, la fecha, fechas o período de tiempo continuado en que se produjeron, y, si fuera posible, la identificación de los presuntos responsables. |
| Eskaera arrazoitua aurkeztea ez da loteslea izango zehatzeko ahalmena duen | La formulación de una petición razonada no vincula al órgano investido de la potestad |

| | |
|---|---|
| organoarentzat; nolanahi ere, eskaera aurkeztu duen organoari jakinarazi beharko dio prozedura ireki den ala ez. | sancionadora, si bien deberá comunicar al órgano que la hubiera formulado la decisión sobre la apertura o no del procedimiento. |
| 3. Salaketa zehapen-espedienteari hasiera emateko modu bat izan daiteke. | 3. La denuncia podrá ser una forma de incoación de un expediente sancionador. |
| Salaketak, berak bakarrik, ez du salatzailea bihurtzen zehapeneko prozeduran interesa duen alderdi. Salatzaileak prozeduran izango duen parte-hartze bakarra izango da prozedura ireki den ala ez jakiteko eta, egokia bada, amaiera emateko ebazpenaren berri izateko eskubidea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzea arautzen duen araudian aurreikusitakoaren arabera legitimaziorik ez badu eta zehapen-prozedurari hasiera ematea eskatzen ez badu. | La denuncia no convierte, por sí sola, a la persona denunciante en interesada en el procedimiento sancionador. El denunciante, salvo que tenga legitimación en los términos previstos en la normativa reguladora del ejercicio de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco y solicite la apertura del procedimiento sancionador, no tendrá más participación en el procedimiento que el derecho a recibir comunicación del órgano competente sobre la apertura o no de aquel y, en su caso, de la resolución que le ponga fin. |
| 4. Zehapen-prozedurak, halaber, alde interesdunak hala eskatuta hasi ahal izango dira, banakako edo taldeko legezko eskubide edo interesen titularra dela egiaztatzen badu. | 4. Los procedimientos sancionadores también podrán iniciarse a instancia de parte interesada que acredite ser titular de derechos o intereses legítimos individuales o colectivos. |
| Hipotesi horretan, ezargarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzeari buruzko araudia. | En ese supuesto resultará de aplicación la normativa reguladora del ejercicio de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| 57. artikulua. *Zehatzeko ahalmena gauzatzea* | Artículo 57. *Ejercicio de la potestad sancionadora* |
| 1. Aurreko artikuluan araututako moduetakoren batean salatzen diren arau-hausteen ondoriozko zehapen-espedienteak izapidetuko dira ustez urraketa diren egintza edo ez-egiteak burutu diren unean ezargarria den Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen-ahalmena gauzatzeari buruzko araudian xedatutakoaren arabera. | 1. Los expedientes sancionadores que se deriven de las infracciones denunciadas por alguna de las formas reguladas en el artículo anterior se tramitarán de acuerdo con lo dispuesto en la normativa reguladora del ejercicio de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco que resulte de aplicación en el momento de la comisión de los actos u omisiones presuntamente constitutivos de una infracción. |
| 2. Prozedura hasten denetik sei hilabeteko epean ebazpena jakinarazi ez bada, prozedura iraungi egingo da, Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen legerian ezarritako moduan eta ondorioekin. | 2. Si no hubiera sido notificada la resolución en el plazo de seis meses desde la iniciación del procedimiento se producirá la caducidad de este, en los términos y con las consecuencias que establezca la legislación reguladora del Procedimiento Administrativo Común. |

| | |
|---|---|
| Aurreko atalean adierazitako araudian ezartzen diren kasuetan ez ezik, prozedura interesdunei egoztekoak diren arrazoiengatik geldirik dagoen bitartean ere eten egingo da sei hilabeteko epe hori. | El transcurso del referido plazo de seis meses quedará interrumpido, además de en los casos que así se establece en la normativa identificada en el apartado anterior, mientras el procedimiento se encuentre paralizado por causas imputables a las personas interesadas. |
| **58. artikulua.** *Erregelamendu honetan tipifikatutako arau-hausteei dagozkien zehapenak* | **Artículo 58.** *Sanciones correspondientes a las infracciones tipificadas en el presente Reglamento* |
| 1.- Arau-hauste arinak ohartarazpenaz edo 450 euro arteko isunaz zigortuko dira. | 1.- Las infracciones leves serán sancionadas con apercibimiento o multa de hasta 450 euros. |
| Arau-hauslea berrerorlea bada, ez da bidezkoa izango ohartaraztea, eta isuna jarrita zigortuko da. | Cuando la persona responsable fuera reincidente no procederá el apercibimiento, sino que habrá de sancionársele con una multa. |
| 2.- Arau-hauste larriak 451tik 1.000 euro arteko isunez zigortuko dira. | 2.- Las infracciones graves serán sancionadas con multas desde 451 euros hasta 1.000 1500 euros. |
| 3.- Arau-hauste oso larriak 1.001etik 2.000 euro arteko isunez zigortuko dira. | 3.- Las infracciones muy graves serán sancionadas con multas desde 1.001 euros hasta 2.000 euros. |
| 4. Zehapenak alderdi hauek kontuan hartuta mailakatuko dira: egintza arau-hausleak gizartean duen oihartzuna, nahitasuna, babestutako ondasun juridikoan arau-hausteak eragindako kalteen izaera, legez kanpo lortutako onuraren norainokoa eta jokabide arau-hauslearen errepikapena edo ohikotasuna. | 4. Las sanciones se graduarán de acuerdo con la repercusión social del hecho infractor, la intencionalidad, la naturaleza de los perjuicios causados al bien jurídico protegido por la infracción, la magnitud del beneficio ilícitamente obtenido y la reincidencia o habitualidad de la conducta infractora. |
| Berrerotzea izango da araua hautsi duen pertsonak urtebeteko epean izaera bereko urraketa bat baino gehiago egin duenean eta hala aitortu denean ebazpen irmoaren bitartez. | Habrá reincidencia cuando una misma persona responsable haya cometido en el término de un año más de una infracción de la misma naturaleza y así se haya declarado por resolución firme. |
| 5. Zehatzeko ahalmena duen administrazio publikoak jarriko ditu isunak, bai borondatezko epean, bai premiamendu bidez, ezargarriak diren arauen arabera. | 5. Las multas se exigirán por la Administración Pública titular de la potestad sancionadora en periodo voluntario o por vía de apremio, de conformidad con las normas que resulten de aplicación a aquella. |
| 6. Erregelamendu honetan jasotako arau-hausteak, era berean beste legezko xedapen batzuetan edo arloko araudian jasota daudenak, berariazko legeriaren arabera | 6. Las infracciones contenidas en el presente reglamento contempladas en otras disposiciones legales o normativa sectorial serán sancionadas conforme a su legislación |

| | |
|---|---|
| zigortuko dira. | específica. |
| 7. Egokiak diren zehapenak ezartzea eta hirugarrenei sortutako kalte-galerak ordaintzeko egon daitekeen betebeharra ez dira elkarri lotuta egongo. | 7. La imposición de las sanciones que en su caso correspondan será independiente de la posible obligación de indemnizar por los daños y perjuicios causados a terceras personas. |
| **59. artikulua.** *Erregelamendu honetan jasotako arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa* | **Artículo 59.** *Prescripción de las infracciones y sanciones de este Reglamento* |
| 1. Arau-hauste oso larriek hiru urte igarotakoan preskribatuko dute, larriek bi urte igarotakoan, eta arinek sei hilabete igarotakoan. | 1. Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años y las leves a los seis meses. |
| 2. Arau-hauste oso larriak egiteagatik ezarritako zigorrek hiru urte igarotakoan preskribatuko dute, arau-hauste larriak egiteagatik ezarritakoek bi urte igarotakoan, eta arau-hauste arinak egiteagatik ezarritakoek urtebete igarotakoan. | 2. Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por infracciones graves a los dos años y las impuestas por infracciones leves al año. |
| 3. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatuko da arau-haustea egin zen egunaren biharamunetik hasita. Arau-haustea jarraitutasunez egiten denean, epe hori zenbatuko da arau-haustea izan zen azken egintza egin zen egunetik hasita, edo legez kontrako egoera ezabatu zenetik hasita. | 3. El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que la infracción se hubiera cometido. En los casos de infracción realizada de forma continuada, tal plazo se comenzará a contar desde el día en que se realizó el último hecho constitutivo de la infracción o desde que se eliminó la situación ilícita. |
| Arau-haustearen preskripzioa eten egingo da prozedura administratiboa hasten denean, ustezko erantzuleak horren berri izanda. Preskripzioa berriro hasiko da, epe osorako, ustezko erantzuleari egoztekoa ez den kausaz prozedura gelditzen denetik hilabetea bete denean, edo prozedura erantzukizun-aitortzarik gabe amaitzen den egunaren hurrengoan. | Interrumpirá la prescripción de la infracción la iniciación, con conocimiento del presunto responsable, del procedimiento administrativo. La prescripción se reanudará, por la totalidad del plazo, desde el día siguiente a aquel en que se cumpla un mes de paralización del procedimiento por causa no imputable al presunto responsable, o desde el día siguiente a aquel en que termine el procedimiento sin declaración de responsabilidad. |
| Prozeduraren xedea lortzera bideratzen den eta arrazoizko eran xede horrekiko proportzionala den edozein | La realización de cualquier actuación encaminada al logro de la finalidad del procedimiento y razonablemente proporcional a dicha finalidad impedirá |

| | |
|---|---|
| jarduketa burutzeak galarazi egingo du prozedura gelditzat ematea, nahiz eta jarduketa hori berariaz aurreikusita ez egon prozedurari buruzko arauan, betiere jarduketa hori organo eskudunaren erabakia bada eta behar bezala dokumentatuta badago. | considerar paralizado el procedimiento, aunque tal actuación no esté expresamente prevista en la norma procedimental, siempre que la misma haya sido acordada por el órgano competente y se encuentre debidamente documentada. |
| 4. Arau-hausteen preskripzio-epea zenbatuko da zehapena ezartzeko ebazpena bide administratiboan irmo egiten den egunaren biharamunetik hasita. | 4. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel en que adquiera firmeza, en vía administrativa, la resolución por la que se impone la sanción. |
| Zehapenaren preskripzioa eten egingo da betearazteko prozedura hasten denean, zigortutakoak horren berri izanda. Preskripzioa berriro hasiko da, epe osorako, zigortutakoari egoztekoa ez den kausaz prozedura gelditzen denetik hilabetea bete denean. | Interrumpirá la prescripción de la sanción la iniciación, con conocimiento del sancionado, del procedimiento de ejecución. La prescripción se reanudará, por la totalidad del plazo, desde el día siguiente a aquel en que se cumpla un mes de paralización del procedimiento por causa no imputable al sancionado. |
| Betearazteko prozeduraren xedea lortzera bideratzen den eta arrazoizko eran xede horrekiko proportzionala den edozein jarduketa burutzeak galarazi egingo du prozedura gelditzat ematea, nahiz eta jarduketa hori berariaz aurreikusita ez egon prozedurari buruzko arauan, betiere jarduketa hori organo eskudunaren erabakia bada eta behar bezala dokumentatuta badago. | La realización de cualquier actuación encaminada al logro de la finalidad del procedimiento de ejecución y razonablemente proporcional a dicha finalidad impedirá considerar paralizado el procedimiento, aunque tal actuación no esté expresamente prevista en la norma procedimental, siempre que la misma haya sido acordada por el órgano competente y se encuentre debidamente documentada. |
| Zehapenaren preskripzioa geldiaraziko du, halaber, epaileak betetzeko behar hori eteteak, eta epe osoa berriro zenbatzen hasiko da epailearen etendura kentzen den egunaren biharamunetik hasita. | También interrumpirá la prescripción de la sanción la suspensión judicial de su ejecutividad, comenzándose a contar de nuevo la totalidad del plazo correspondiente desde el día siguiente a aquel en que la |

| | |
|---|---|
| | suspensión judicial quede alzada. |
| Xedapen gehigarriak | Disposiciones Adicionales. |
| **Lehenengoa.** *Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren lankidetza* | **Primera.** *Colaboración de la Ertzaintza y de la Policía Local* |
| Garraioak behar bezala funtzionatuko duela bermatzeko, garraio-zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazio publikoak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko lankidetza sustatuko du, zerbitzu horietarako erabiltzen diren ibilgailuek askatasunez zirkula dezaten, eta garraio publikoko geltokiak, erreserbatutako erreiak eta garraio publikorako erabiltzen diren gainerako bideak libre manten daitezen. | La Administración Pública titular de cada servicio de transporte promoverá la colaboración de la Ertzaintza y la Policía Local para garantizar el buen funcionamiento de aquel, procurando la libre circulación de los vehículos destinados a estos servicios y el mantenimiento expedito de las paradas de transporte público, de los carriles reservados, en su caso, y del resto de las vías utilizadas por el transporte público. |
| Era berean, Ertzaintzak eta Udaltzaingoak garraio-zerbitzu bakoitzaren titularra den administrazio publikoari eta enpresa eragileei lagunduko diete, bidaiariren batek ezargarriak diren betebeharrak eta debekuak bete ez dituenean eta bere jokaera zuzentzen ez duenean. | Del mismo modo, la Ertzaintza y Policía Local asistirán a la Administración Pública titular de cada servicio de transporte y a las empresas operadoras cuando alguna persona viajera haya incumplido sus obligaciones y las prohibiciones que le resultan de aplicación, y no enmiende las mismas de manera voluntaria. |
| **Bigarrena.** *Erregelamendu honi segimendua egiteko jarraipen-batzordea* | **Segunda.** *Comisión de Seguimiento del presente Reglamento* |
| 1. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Batzar Orokorrak adostuko du erregelamendu honen jarraipena egiteko batzorde bat sortzea, erregelamendua indarrean jartzen denetik hilabeteko epean. | 1. La Asamblea General de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa acordará la creación de una Comisión de Seguimiento del presente Reglamento en el plazo de un mes desde la entrada en vigor del mismo. |
| 2. Aipatutako jarraipen-batzordea honela osatuta egongo da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari bat eta kontsortzioko kide diren tokiko erakundeen bi ordezkari, erregelamendu hau ezargarri zaien bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularra ematen duten enpresa eragileen lau ordezkari, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren bi ordezkari, eta irisgarritasuna edo mugikortasuna mugatua duten pertsonen bi ordezkari. | 2. La referida Comisión de Seguimiento estará integrada por un representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa y dos de las Entidades Locales consorciadas, cuatro representantes de las empresas operadoras de los servicios públicos de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general a los que resulta de aplicación este Reglamento, dos representantes de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, y dos representantes de las personas con limitaciones de accesibilidad o movilidad. |
| | La Asamblea General, al acordar la creación |

| | |
|---|---|
| Batzar Orokorrak, aipatutako jarraipen-batzordea sortzea adosten duenean, Batzordearen barruan garraio-enpresa eragileak eta irisgarritasun edo mugikortasun mugatua duten bidaiariak nahiz bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren titularrak diren administrazio publikoak eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza bera ordezkatuko dituzten pertsonak izendatuko ditu. | de dicha comisión de seguimiento, designará a las personas que vayan a representar en el seno de la misma tanto a las empresas operadoras de transportes y a las personas viajeras con limitaciones de accesibilidad o movilidad, como a los representantes de las Administraciones Públicas titulares de los servicios públicos de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general y a los representantes de la propia Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. |
| 3. Jarraipen Batzordearen eginkizunak honako hauek izango dira, besteak beste: erregelamendu honen aplikazioa aztertu eta ebaluatzea, eta, aldian behingo ebaluazioari jarraituz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari bertan aldaketak egiteko proposamenak aurkeztea. | 3. Las funciones de la precitada Comisión de Seguimiento consistirán, entre otras, en el análisis y evaluación de la aplicación del presente Reglamento, así como la presentación a la Asamblea General de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa de las oportunas proposiciones de modificación del mismo, de conformidad con las evaluaciones periódicas realizadas. |
| 4. Jarraipen Batzordeak bere barne-araudia onartuko du, bidezkoa bada, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza arautzen duten estatutuen arabera. | 4. La Comisión de Seguimiento referida aprobará, de resultar necesario, su reglamento de régimen interno, de conformidad con los Estatutos rectores de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. |
| Xedapen Iragankorra | Disposición Transitoria. |
| Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten garraio-enpresa eragileek urtebeteko epea izango dute, erregelamendu hau argitaratzen denetik hasita, bertan irisgarritasunari buruz ezarri diren ezaugarri teknikoetara egokitzeko. | Las empresas operadoras de los servicios públicos de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general dispondrán de un plazo de un año, desde la publicación del presente Reglamento, para adecuarse a las prescripciones técnicas sobre accesibilidad que en él se establecen. |
| Modu iragankorrean, ibilgailuek soinu bidezko ohar-sistemarik ez duten bitartean, gidariek jakinaraziko diete ibilgailuaren barruan dauden eta ikusmen-urritasuna duten pertsonei aldez aurretik adierazi dioten geltokira iritsi direla. | Transitoriamente, en tanto los vehículos no dispongan del sistema de aviso sonoro, será el personal de conducción quien indicará a las personas con deficiencias visuales que estuvieran embarcadas la llegada a la parada en la que, previamente, estas hayan indicado querer bajarse. |
| Xedapen Indargabetzailea | Disposición Derogatoria. |
| Indargabetuta daude erregelamendu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen orokorrak. | Quedan derogadas cuantas disposiciones de carácter general de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente Reglamento. |
| Azken xedapenak | |

| Lehenengoa. Erregelamendu hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen denetik 15 egun baliodun igarotzen direnean. | Disposiciones Finales.<br><br>Primera. El presente Reglamento entrará en vigor transcurridos 15 días hábiles a partir de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. |
|---|---|
| Bigarrena. Bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularrak ematen dituzten garraio-enpresa eragileek behar bezala zabalduko dute erregelamendu hau bertako langileen artean. | Segunda. Las empresas operadoras de los servicios públicos de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general darán al presente Reglamento la debida difusión entre su personal. |
| I. ERANSKINA<br><br>Bizikletak eramatea | ANEXO 1<br><br>Acceso a bicicletas |
| Bizikleten sarrera-erregimena Lasarte-Oriako hiri barneko garraio publikoan honakoa da: | El régimen de acceso de bicicletas en el transporte público urbano de Lasarte-Oria es el detallado a continuación: |
| Araudi honetako 20. artikuluaren edukia, bizikletak eramateari dagokionean, ez da ezargarria izango Lasarte-Oria udalerriko hiri-garraio publikoko zerbitzuan. | El contenido del artículo 20 del presente Reglamento no será de aplicación en lo relativo al acceso de bicicletas en el servicio de transporte público urbano del municipio de Lasarte-Oria. |
| Gaur egun, hiri-garraioan erabiltzen diren ibilgailuen izaera kontuan hartuta, bideraezina da bizikletak eramaten dituzten erabiltzaileek autobusetan bidaiatzea. | En la actualidad, la naturaleza de los vehículos que prestan el servicio de transporte urbano hace inviable el acceso de personas usuarias portando bicicletas. |
| Ibilgailuak berritu ahala, bizikletak onartuko dira, bakar-bakarrik, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta hala ahalbidetzen duten ibilgailuetan, eta aldez aurretik zehazten diren linea, geltoki eta ordutegietan | En la medida que la flota de vehículos vaya renovándose, las bicicletas serán admitidas únicamente en los vehículos que por sus características así lo posibiliten y en las líneas, paradas y horarios que se determinen previamente. |
| II. ERANSKINA<br><br>Etxeko animaliak eramatea | ANEXO 1<br><br>Acceso de animales de compañia |
| 1. Araudi honetako 21. artikuluaren edukia, etxeko animaliak eramateari dagokionean, ez da ezargarria izango Lasarte-Oria udalerriko hiri barneko garraio publikoko zerbitzuan. | 1. El contenido del artículo 21 del presente Reglamento no será de aplicación en lo relativo al acceso de animales de compañía en el servicio de transporte público urbano del municipio de Lasarte-Oria. |

| | |
|---|---|
| 2. Lasarte-Oriako hiri barneko garraio publikoan etxeko animaliak eramateko araubidea honakoa izango da:<br><br>Hauek dira ibilgailuetan eraman daitezkeen etxeko animaliak:<br><br>o espezie eta ezaugarri guztietako txakur txikiak<br>o katuak.<br><br>Baimendutako linea, geltoki eta ordutegiak honakoak dira: denak.<br><br>Baimendutako animaliak garraiatzeko baldintzak hauek dira:<br><br>o Eranskin honetako lehenengo paragrafoan baimendutako txakurrak besoetan edo egokiak diren ontzi itxietan eraman beharko dituzte eramaileek, eta animalien tamaina ez da izango eserlekuaren zabalera baino handiagoa.<br><br>o Katuak egokiak diren ontzi itxietan eraman beharko dira. | 2. El régimen de acceso de los animales de compañía en el transporte público urbano de Lasarte-Oria es el detallado a continuación:<br><br>Los animales de compañía autorizados a acceder al interior de los vehículos son los siguientes:<br><br>o pequeños perros de todas las especies y características.<br>o gatos.<br><br>Las líneas, paradas y horarios autorizados son los siguientes: todos.<br><br>Las condiciones de transporte de los animales autorizados serán las siguientes:<br><br>o Los perros autorizados en el primer párrafo del presente Anexo deben ser transportados por sus portadores en los brazos o en receptáculos idóneos para ello, sin que el tamaño de los animales exceda de la anchura del asiento.<br><br>o Los gatos deben ser transportados por sus portadores en receptáculos idóneos para ello |